



Iturria: *Confesiño ona edo ceimbat ganzac lagundu biar deutseen confesinuari ondo eguiña izateco*,
Juan Antonio Mogel. Fermin Larumbe, 1803.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/MogelJAKonfesino.htm>

KONFESINO ONA

Juan Antonio Mogel

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

KONFESINO ONA EDO
ZEINBAT GAUZAK LAGUNDU
biar deutseen konfesinuari ondo egiña izateko.

Ateraten dau argira Bizkaiko euskeran.

D, JUAN ANTONIO MOGEL
ta Urkiza Markinako uriko kura, edo arima jaoliak.

Biar dan legez.

Vitorijan: D. Fermin Larunbe, liburu-giñaren etxian, 1803 urtian.



BERBA-AURREKUA IRAKURLE BIZKAITARRARI

Orra nos agertuten natxatzun aspaldi onetan eskatuten zendubana emotera, ta zan kiputz euskeran argitu dodan Konfesinuaren gañeko liburuba. Nik ikusi baneu bizkaitarretan euskeriaren zaletasun kiputzetan nekusana, ez nintzan ain esker dongakua izango, zein da itxiko nituban barurik neure bizkaitarrak, Jangoikuaren berbiaren ogi ederra zabaldurik atzeko, ta arrotz legez egiten jatazanetan. Ez dot damu artu neban asmo ta nekia. Neure biotzeko pozik andijenagaz ikusi dot, zelan zabaldu dirian milla bat liburu Naparroa, Gipuzkoa, ta Bizkaijan. Jakin dot abade jaun askok irakurten ditubezala elaxetan, ta nekezale ez gitxik euren etxeetan; ez niri eskerrik, ta bai Jangoiko doe guztien emolliari. Bazaut, autor dot, ta ez daukat aztuta bizkaitar barrukuentzat gatx izango dala Kiputz euskeria ondo aditutia. Baña berba askatu adituten ez dirianak, aditu oi dira lotu ta katetuta dagozan bestiakaz batera. Alan bere atsegin emoterren, ta gauza ain biarrak itsatsi ditezan obeto bizkaitarren biotzetan, ipiñi dot liburu bera bizkaiko euskeran, ta zerbait laburtu ditut luziak zirudijezen Irakaste, edo Doktrinak. Au egiñaz liburubak urtengo dau eskukor, ta txi-karraguak, merkiaguaz ostian. Ze poza niria enzuten badot bizkaitarrak alkarren leijan dendatuten diriala eroatera liburu au, ez biotza iminirik daukadalako saldu erosijetako irabaztetan, ta bai diruba aurreratuten dabeenak liburu onen agermenerako, kalterik izan es dagijen, oztu ta atzeratu ez ditezan urrenguetarako!

Bai ta dinot tolestura бага, nire urtiak izango ez badira bere luziak, gura neukez irago enparetan jatazan egunak ateraten on izango dirian liburubak, ni illda bere, berbaz irakatsi ezin dodanian, irakasteko Zeruko bidia euskaldun guztiak liburu onen bidez. Zeinbat arimak igon daben Zerura gauza onak irakurrita ain gatx da zeinbatu edo kontetia zelan litzatan esatia zeinbat dirian gure gañeko izarrak. Nok ekarri zituban santu ain andi izatera san Anton Abata, san Agustin, ta gere san Ignazio Loiolako? Liburu onen berba ixill, baña itzaltsubak.

Esaten dabee gitxien esan biar leukeen askok, euskeria baldresa, tras-killi ta soñoko zantarduna dala; ezin inok apaindu leikiala. Nik gura baneu apaindu bere etxe ta utxaan daukazan bitxi, ta janzi ederrakaz, apaindubaguak urtengo leuke erdera askok baño; baña ezagutuko ez leuke etxekotzat, dongaro janzita beti ikusi dabeenak. Orregaitino ez dot

janziko jaiegunetako soñokuakaz; esan gura dot, ez dodala irakatsiko noraño elduten dan bere ugaritasuna berbeetan. Gura dabenak sinistu bizkaiko euskeriak ez deusala ezer zor kiputzenai, irakurri begi liburu onek baño leenago urtengo daben neure adiskide andi, ta gauza onetan, neure biarlagun legez egiten dan Aita Frai Pedro Antonio Añibarro Zarauzko Kolejio A, san Franziskoko Ordean misionarijak bizkaitarren-tzat atera daben liburu txikar, baña urre guztiak baño geijago balio dabena. Ediroko dau Esku-Liburu onetan Bizkaiko euskeran ederto adierazo leitezala esan biar dirian gauzaak berba, nekezaleen aotetan dabilzanakaz. Bizkai barru barruko semia da bera, ta bere euskera garbi ta ederrak eza-gutu eragingo dau nun nai ikasi leitiala ondo berba egiten buruba zerbait nekatu gura bada. Alperren soluak beti egongo dira bedar txaarrez betiak. Bizkaitar guztiak erosi biar leukee liburutxu esan dogun au.

Ikusiko da ez ditugula bardin erabagiten berbaak aiatu dodan neure adiskide onek, ta nik; ta emendi aterako da, zetan daguan bizkaiko euskeriaren desbardintasuna. Ak dino *maitea, neurea, zorua, gogoa, burua, kristinaua*, nik barriz Markina inguruan legez, *maitea, neuria, gogua, zorua, buruba, kristinauba*. Zein batera, zein bestera esan, ez dau ezer galduten euskeriak.

Baña ez dira alperrik iragotekuak Aita Agustin Kardaberasen berba *Euskeraren berri onak* izena daben liburutxuban imini edo iratsi zituban oneek. *Ainbeste milla anima*, dino (pagina 12) *edo gizon ta andrerekin igaroko ogei ta anbete urteetan Probinzia oietan misioetan jardun bear izan det; eta egunoro ta geiago miraritu izan nau guzietako, ta ez gutxiago bizkaiko itz egiteko era, edo armoniak. Besteak bezein ondo, ta gauzaren batzetan bear bada obeto Izkeraren legeak an gordetzen dituzte... Jangoikuaren ontasunari eskatzen diot Bizkaiko biotz nobleren bati ango era, edo Dialektoan Zeruko doktrina ta ejenploen libruak ateratzeko arren argi zeloz, ta gogoz bete bat eman diozala*. Au zinuan Misionari birtute andiko, ta euskera zale ak. Nok daki bere erregeu edo eskarijak enzuanak izan ete dirian!

Nik artu dodan berba bidia ezin obia dala edozeñek ezagutuko dau. Konfesiño ona da Zerurako atia pekatu egin dabenentzat. Badakuskuz Eleisaak kristinauz beterik, konfesau ta duazala nos edo nos guztiak altarako maira. Baña, zeinbat duaz lotsaz pekatubak ukatu edo edertuta? Zeinbat, esamina arin ta dongaro egiñagaz? Zeinbat, damu egijazko baga? Uste izan dot bada ezin neikiala gauza obagorik zelan dan gauza onean ganian irakastia astiro ta argiro kristinaubak jakin biar ditubezan gauzaak. Barriz asko dagoz Konfesino jeneralaren premiña daukeenak, ta ezagutu gura ez dabeenak. Konfesino onak dakar komunino ona, batak ta bestiak gure betiko salbazinua bizitza on baten bidez. Irakurten da, santa Teresak



zeruti etorrita adierazo eutsala anima txito on bati, predikadoriak beti legez jardun biar leukeela berba egiten konfesinuaren ganian; sinistu bere ezin leitiala zeinbat arima betiko galduten dirian konfesino dongaro egiñak gaiti.

Bizkaitarrak artuten badeuste liburu au, agertuko dot onen ondoren bere lagungarritzat komunino onaren gañekua. Abade jaunei jagoke erosi eragitia onelango liburubak euren errijetako nekezale irakurten dakijenai. Diru gitxiren kostubaz egingo ditubez irabazi andijak euren arimetarako. Lagunduten ezpajake onetan, ez dabee barririk jakiten; jakinarren, ez dakije nun erosi. Sermoi gei asko daukez liburu onetan, ta besterik ezin dabeenian kura jaunak irakurten baditubez elexan emen dagozan irakaste edo doktrinak, eukiko dabee poza ikusteko jente ez gitxi juakezala konfesino jeneralak egitera, agertuten ditubezala len lotsaz gordetan zitubezan pekatubak. Alan gura dakijola geure Jangoikuari ezarrijaz bere bedeinkazino eder bat nik eratsi ditudan letra.

LENENGO PARTIA. SAKRAMENTU SANTU KONFESINOEKUAREN GAÑIAN



IRAKASTE I

Zein gauza biarra dan konfesinoeko sakramentuba.

ITAUNIA. Asko da batiatuba izatia zeruban sartuteko?

ERANZUTIA. Bai bautismoko grazija galdu ez dabeneztat, ta bautismoko grazija galdu ez darue pekatu mortalik egiten ez dabeenak grazija au artu ezkeru.

I. Eta bautismoko grazija galdu dabenari pekatu mortalagaz, ze bide geratuten jako grazijara biurtuteko?

E. Sakramentu santu penitenzijako edo konfesio oso, ta biar dan legez egiña al dedilla, ta beti deseoz edo gogoz.

I. Zer esan gura dau penitenzijaren izenak?

E. Esan gura dau atsakaba edo penia eukitia artubaz damu egijazko, edo Jangoikuaganik datorrena.

I. Zeinbat penitenzija modu dagoz?

E. Bi, batari deritxo penitenzija birtutia, ta bestiar penitenzijako sakramentuba.

I. Zer da penitenzija birtutia?

E. Da Jangoikoaren doe garuazana pekatubaren gorrotora ta artute-ra gogo sendo bat ez geijago pekatu rik egiteko. Da, dino san Agustinek, *negar egitia iragoriko pekatubak gaiti, ta damuturik, ez geijago egitia.*

I. Beraz barriro pekatu egiten dabenak ez eban leenago penitenzijarik egingo?

E. Ez eban egin salbazinoerako duin edo asko zan penitenzijarik iraun ez ebalako grazijan. *Irauten dabenak* bizitza onian *azkeneraño, salbauko da*, dirausku Kristok. Egija da pekatu biurtuba gaiti izan zeitiala ona ta egiazkua leenagoko konfesino, ta damuba. Baña penitenzija iraguak ez deutsa inori ezer balioko salbeetako pekatu mortalaz galdu badau penitenzijako frutu edo irabazija. Zeinbat dagoz infernuban urte batzubetan penitenzijako negarrak bota zitubenak! Baña iraun ez ebelako, galdu eben zeruko korioa.

I. Beraz biar biarra da penitenzija pekatu egin dabenarentzat?

E. Bai, ta alan denpora guztietan premiña osokua izan da birtutia dan aldeti. Penitenzija onen bidez salbau zirian Adan eta Eba. Soñu au beti legez joten da Eskritura santetan. Jesu Kristok zirautsen *egiten ez badozube penitenzija, guztiok galdubak izango zare*; ta leenago Jangoikuak zer penitenzija eskatuten eutsen? *Biurtu zaitze nigan bijotz guztirik baru ta negarrakaz,*

eten egizubez biotzak, ez soñokuak. Berba onekaz adierazoten da penitenzijak urteten ez badau biotzaren erdirik, edo lagunduten ez badeutsa pekatubaren egijazko damubak ez dala gauza ezetako. Benetako penitentiak prest egon biar dabela leenago galdutera onra, ondasun, bizitza, ta edozein gauza Jangoikua opendidu baño. Bularra jotia bijotza ausi, edo damu sendo baga dala penitenzija itxura utsekua. Ona zer dinuan ostera Jangoikuak Ezekiel profeta santubaren aoz. *Pekatu egiten daben arimia, bera ilgo da. Baña pekatarijak egiten badau bere pekatu guztien penitenzija neure agindubak gordeten ditubala, ta badarua aurrerunzian bizitza zuzen ta garbi bat, biziko da ta ez ilgo. Erdi neugana, ta egizu pekatu guztien penitenzija... Bota egizubez zubebek ganik gauza oker guztijak, ta egizube bijotz ta espiritu barri bat. Zegaiti ilten zaree? Ez dot gura ill zaitzezen, ta bai zubeke biurtutia nigan, ta bizi izatia onelan.* Ona zelango penitenzija eskatuten daben Jangoikuak; *pekatu guztien damuba. Ab omnibus peccatis.* Aurrerakuan gordetia bere agindubak, *ut custodiat omnia praecepta mea.* Egitia gero justizia, edo eruatia bizitza zuzena, *ut faciat iudicium et justiciam*; artutia bijotz ta arima barri bat legez. *Facite cor novum et spiritum novum.*

I. Ori alan izango zan antxiñako legian konfesinoeko sakramentuba ez eguanian. Baña nok sinistu Jesu Kristoren lege bigunian biar diriala orrelango penitenzijaren señaliak?

E. Ez dot ukatuko antxinako legian grazijan jarteko penitenzijako birtutiaren bidez, biar eutsala lagundu Jangoikuaren amore garbi garbijak, ta esan oi dan legez kontrizino oso, edo Jangoikuaren amoreak ausita; ta konfesinoerako ez dala biar modu orretako damurik. Baña zer? Bijotza aldatu baga gaistakeriati onera, pekatu mortal guztien damu baga Jangoikuaren ofensia dalako; artu baga borondate sendo bat ez geiago pekatu rik egiteko, deritxagu erakarriko dogula pekatuben parkazinua? Ez ezelan-bere.

I. Beraz konfesinua de egijazko sakramentuba?

E. Bai, ta alan dauka erabagita elexa ama santiak.

I. Eta badago pekatu konfesinoeko sakramentuban parkatu ezin leitianik?

E. Ez dago, biar dirian prestaerakaz konfesetan badira; ta Erromara juan baga errietako konfesoriak arkituko dabe moduba herejiako pekatuban norbait jausi balitz bere, emoteko absolutzinua damu onaren señaliak konfesetan dirianai. Ez dira barriz herejiako pekatubak atakotzak askok daukeezanak. Alan ez dau arkituko pekatarijak eskusa, edo atxakijarik ez konfesetako zuzen ta argiro bere pekatu guztiak. Ai balego arima benetan humilde ta konbertidu bat; ta zein errez topauko leukian zerurako bidia! Baña pekatu ezañakaz nastauta dagozanak; matasa bat eginda



daukeenak euren konzienzija, biar dabe billatu konfesore jakitun ta arimen gose andiko bat, bestelanguak baño bere kontu geijagogaz. Eta egija esateko, zelan arimia geratuko da bakian konfesore arin duazanakaz enzun ta enzun, igaro ta igaro dabilzanakaz? Zeinbat esankizun geldituko dira gero kezka emongo dabeenak? Barriz konfesore jakitun batek, ta guztiz konfesiñoe jeneralak egin biar dirianian, itanduko dituz biar dirianak, aztertuko dau konzienzija guztija, ta itxiko dau konfesetara juakona bake txito andijan. Gaisotuten garianian badagoz eskuor ta prest sei, edo geijago mediku, esaten dogu betor edozein? Ez; gura dogu onena. Auzi bat daukanak billatu darua letradurik jakitunena. O itsutasun kaltegarrija! Arimako osasuna juakunian edozein konfesore dala ona, ta biar bada billatuten dira pekatubaren kontra gorroto andirik ez daukeenak.

I. Ori orrelan bada konfesiñoe donga asko egingo dira?

E. Alan da; ez dago kristinau errijetan kalte geijago egiten dabenik, zelan dan penitenzija palso edo itxura utsekua. Egiten da pekatu bildur baga, ta esaten da *konfesanko dot* pekatubak esatian bakarrik balego legez parkazinua. Enzuten dabeenian konfesinuak edozein pekatu parkatuten dabela, erreztuten dira edozein pekatu egitera. Alan osakarri edo erremedijo Jesu Kristok itxi ebana, biurtuten dabee arimen beneno, edo satarri izatera, ta gero duaz itsu itsuban eriotza donga batera.

I. Nundi dakigu Jesu Kristok larga euskula penitenzijako sakramentu, edo aozko konfesinua?

E. Ebanjelio santuban irakurten da zelan Jesu Kristok illen arterik biztu ezker agertu jakuen alkarregaz egozan bere apostolubei, esaten eutseela: Bakia zubekaz; ta au esanda erakutsi eutseezan eskubak, eta albua, ta ostera esan: *Bakia zubekaz; neure Aitak ni bialdu nenduban legez, alan nik bere zubek bialduten zaitubedaz. Zan esatia, zelan neure Aitak emon eustan eskuba gizonen juez izateko, alan nik bere emoten deustubet eskubidia lurrian gizonak juzgetako. Gero ezarri eutseen bere arnasa Jangoikozkua esanaz, artu egizube Espiritu santuba; zubek parkatuten dituzuben pekatubak, parkatubak izango dira, parkakatu baga largaten dituzubenak, ez dira izango parkatubak. Esan bere eutseen beste bein gauza berau beste berba batzubekaz; zubek askatuten dituzuben pekatubak, askatubak izango dira, ta zubek lotuten dituzubenak, lotubak. Ona zelan Jesu Kristo emon eutsen Apostolubei pekatuben ganian sentenzija, edo epaija emoteko eskubidia; ta sentenzija emongo ezin da, pekatubak jakin baga, pekatarijak deklarazinoe zuzena emon baga, ta deklaraziño, edo agertuera au da aozko konfesinoe garbi, estalki, ta guzur bagia.*

I. Baña zer esan gura dau pekatubak askatute, ta lotutiak?

E. Esan gura dau, Jesu Kristok emon eutseela apostolubai (ta eurentan emoten jakee arrezkeroko konfesorai), absolbietako eskuba zuzen, ta damubaz konfesetan zirianak, ta ez libretako, edo ukatuteko absoluzinoa damu egijazkuaren ezaugarri edo señaliakaz konfesetan ez dirianai; bada onelanguai emoten jakene absoluzinua, da kaltegarrija alan emon, zelan artuten dabenarentzat.

I. Zer egin biar dau konfesetan daganak esaten badeutsa sazerdotiak ez daguala orduban ondo prestauta absoluzinua artuteko, ta biurtu dedilla beste egun baten?

E. Pensadu, obeto dakijala konfesoraiak zer obe daben, edo zer egin biar dan; egin esaten deustana, ta biurtu beragana arturik emon deustan ordenia. Badira kristinau asko konfesetara duazanak absoluzinua artu ezin leikeen moduban. Onelanguak dira pekatubaren okasino urrekuan borondatez dagozanak; largaten ez ditubezanak leku, edo lagun arimia len sarri galdu eragin deutseenak; konfesoraiak leenago esanda bere eguneti egunera egiazko errazoe baga luzatuten ditubenak biurrera, edo errestituzinuak egitiak, ta ezin kontadu beste, kostunbre edo ekandu jarraitu ta luziak daukeezanak, leenagoko konfesoetan berba onak emonda biurtuten dirianak txakurrak legez jaatera len errebesau, edo atera zituben pekatubak. Baña zer jazoten da? Konfesore zur edo kontuzko batek esaten badeutse larga degijela absolbidu orduko pekatubaren okasinua begijak ta oñak baño biarrago bada bere, aginduten daben legez Jesu Kristok; biurtu dagijela ostuba, kalte egiña, ta bide dongako irabazija, ta biurtu dedilla gero absoluzinua artutera, asi oi dira erreguz, bigunduteko konfesorai esaten deustseela: Jauna emendaiko nas, biurtuko dot ostuba, kenduko dot okasiño dongia. Beste batzuk esaten deustsee orduban absolbietan ez baditu, ez diriala iños geijago konfesauko. Au bai dala humiltasun ta pretaera ederra! Iñok baño guzijago gura leuke konfesoraiak emon absoluzinua albalegi bere arimiaren kalte baga. Dongaro prestauta daganari konfesorai esaten badeutsa: *Nik absolbidu*, edo askatuten *zaitudaz*, esango dau Kristok: eta nik lotubago largaten zaitudaz.

I. Zer biar da bada ondo prestetako konfesinoerako, edo konfesino on bat egiteko?

E. Bost gauza oneek: I. Esamiña kontuzko bat. II. Egijazko, ta bijotzeko damuba. III. Propositu edo gogo sendo bat geijago pekatu edolan bere mortalik ez egiteko. IV. Agertutia bere pekatubak konzienzijan dagozan moduban, jakiñak jakinak legez, dudazkuak dudazkuak legez geitu, gitxitu, ta arindu baga. Konfesoraiak emoten deustan penitenzija kunplidu, edo osoz egitia. Askok da doktriña baterako.



IRAKASTE II

*Konfesiñoe aurreko esaminia zein biarra dan, ta zelanguak izan
biar daben.*

Esan genduban onsubengo dotrinaan, ondo konfesetako lenengo biar dan gauzia zala konzienziako esaminia.

I. Zer da bada konzienziako esaminia?

E. Da kristinaubak egiten daben bere bijotzaren azterren, edo billantza kontuzko bat burura ekarteko azkenengo konfesiñoe ondo egine-ti egin dituban pekatubak.

I. Zegaiti esaten da azkenengo konfesinoe ondo egiñeti?

E. Ez dalako asko onsubengo konfesinoeti esaminia egitia leenago-ko konfesiñoren bat, edo geijago dongaro egiñak badaukaz. Badira kristi-nau larregi daukeezanak oker eginda konfesinuak, edo lotsaz pekatu mor-talen bat edo geijago gorde ditubezalako, edo egjazko damu бага konfe-sau dirialako. Zer egingo dabee onelanguak onsubengo konfesinoerik ostera egin gura dabeenera esaminia egiñagaz? Ez gauza onik ta bai bidiak egin geituteko sakrilejiuak. Onelanguak, gero irakatsiko dogun legez, egin biar dabe konfesiño dongaro egiñen barristazino oso bat esamina kon-tuzko baten, billatuten ditubela denpora guzti atako pekatubak, agertubaz zelan ta zeinbat bider dongaro konfesau zirian. Bestelan ezin salbauko dira. Baña ez daukanak errazoe onik sinistuteko leenago dongaro konfe-sau zala, ez dau beti ibilli biar alango arazu, ta ardura larregijetan, ta erra-zoe geijagogaz konfessore dazaubanak agindu badeutsa ez atan bururik austeko.

I. Zetarako da esaminia edo kontu artute au?

E. Agertuteko konfesoriar bere konzienziya; akusetako bere buruba Jangoikuaren orde z parkatu deijozan pekatubak absoluzinuaren bidez. Konfesoría da Kristoren ordeko jueza. Onik emoteko epai edo sentenzi-ja, jakin biar dau zeren ganian emon; bestelan oker ibilliko da. Lurreko tri-bunaletan dagoz fiskal, edo akusatzalliak, testigubak, ta dongaro egin dabenari deklarazinau artu biar deusana. Guztijak enzunda, emoten dau epai edo sentenzija, dala libretako, dala kastigetako. Zelan bada konfeso-riak emon lei sentenzija zuzena ezpadago akusazino edo deklarazino gar-birik? eta zelan bakotxak emon deklarazino zuzen ta garbi bat bijotza esa-minau baga? Geijago. Lurreko tribunaletan ez deutsee nor berari agindu-ten buruba akusetako, edo agertuteko dongaro egiña, ezpadago akusado-

re, edo dongaro egin dabelako señalerik. Baña parkazinua gura daben dongaro egilliari aginduten deutsa Jesu Kristok egin dedilla bere buruba-aren agertzalle, edo nok berak konfesau dagijala zuzen ta garbiro ezer larga бага, egin ebalako konfesiñoko tribunala Inkisizinoekua baño ixillagua beste testigu, ta akusadorerik baga. Lurreko tribunalak dira justizija utse-kuak legez, juezak ondo badabilz. Konfesinoeko tribunala da miserikor-dija garbi ta utsa, egin ebalako Jesu Kristok dongaro egiñak parkeetako deklaraziño zuzen ta garbi bat egiten bada dongaro egiñaren damu biar dan bestekuaz. Lurreko justizijetan eriotzaren bat egin dabenari, zer era-kusten ez deutse? Artuten badabe, darue karzelara, iminten dabe zepuan, ezarten deutsez katiak. Daruaz gosia, otsa, lo gozorik egin eziña oe gogo-rrian burdiñaz kargauta, bakartadia, antza, ta zeinbat beste atsakaba? Konfesiño edo deklarazinau artuteko, an dira eskribau, jueza, edo bere ordecoren bat berba bigun bat egiten ez deutseela. Ukatu gura badau dongaro egiña, artuten dabee milla kontu aterata, dakarrez testigubak, ta ez deutsa ezer balijoko ukatutiak, egiten badeutse probanza osua. Egija esana gaiti, ez dago parkazinoerik; negarta, erregubak eginarren, justizi-jak egingo dau beria, ta kondenetan dabee bizitzia galdutera. Ez alan kon-fesinoeko tribunal Jesu Kristok imini ebanian. Konfesetan badau zuzen egija, eskatuten badau parkazinua humildade ta damu andi bategaz, ez dago esaterako kastigurik, ta bai parkazinua. Nok emon ez Jesu Kristori esker asko ainbeste erruki erakusten deuskulako?

I. Zegaiti geijago egin biar dan kontuzko esaminia?

E. Konfesoría dalako juez izatiaz ostian, arimako osagilla edo medi-kuaba, ta mediku bati esan biar jakoz garbiro gorputzeko gatzak ezer estari baga oker ibilli ez dedin. Jakin biar dau, oskarri edo erremedio onak emoteko, noskua dan gatxa, zarra edo barrija, nundi jaijo jakon. Alan bada medikuba dan aldeti jakin biar dau konfesoríak pekatuba zaa-rra edo egin barrija dan, antxiñati datorren edo ez; nundi jaijoten dan; zelango leku edo adiskide dongeetati; gatxa dan miñekua, eskuzkua, bula-rreko, edo toki askotakua; au da berbaz, eskuz, bijotzez, edo zezaz peka-tu egin dan. Beraz biar da esamiña kontuzkoa gauza esan biar dirianak agertuteko konfesoríari.

I. Beraz esamina kontuzko au da biar biarra edo preminazkua?

E. Alan da, ta bakotxaren nagitasun oso ta andiz itxiten bada esa-miniaren paltaz konfesau бага pekatu mortalen bat, egingo da konfe-siño dongia; esaminako nagitasuna labur edo txikarra izan bada, izango da pekatu arin edo beniala, baña ez dongia konfesinuak beste utsegiñik ezpadau.



I. Baña zelanguak izan biar dau konfesinoerako esaminiak?

E. Kontuzkoak, berariz egiñak, astiro, ez itoka, aringa ta priesaka. Gauza astun ta arduria emoten dabenetan zelan gabilz? Ez dira itomendiz ta beinguan egiten, ta bai astiro begiratura. Galdu danian ereztun balioso bat, ikusten dira etxeko bazterrak; artuten da itxuski edo eskobia garbituteko loi, edo autsak. Ikusiko bagendu etxian sartuten sugeren bat? zelango bildur, ta arazubak? Aztertuko lirte uape, zulo ta zokondo guztijak billatu ta bizitzia kenduteko piztija gaisto alanguari. Nok lo egingo leuke bakian ediro artian, ta ill baga? Nun da gure fedia? Zeinbat kristin nau dira dazaubenak euren bijotzetan sartu diriala sugia baño kaltegarrijagoko pekatubak, ta egiten dabe lo bildurra kenduta ikusi baga zeinbat, ta zelanguak dirian billatu ta illteko konfesinoeko ezpatiaz?

I. Ori ondo ezagututen da, baña zeinbateraño eldu biar dau esamina onen kontu, edo ziaztasunak?

E. Ez dago onetan zuzenbide, epai, edo neurri bardinik. Konfesioño jeneral ta bizitza guztiakuak biar dau denpora geijago esamina gintzan, iru edo lau urteko konfesinuen barristazinuak baño. Buru iratzarri, edo onak lazterrago ekarriko ditu gogora, buru astun ta txaarra dabenak baño. Sarri konfesetan dirianak, errazago nagitzar belurik belura duazanak baño. Langintza, edo ofizijuak badira batzuk baño bestiak arazu geijagokuak, ta obligazino astunaguak ditubezanak. Bestiak bardin diriala, otsein edo serbitzari batek obligaziño laburraguak dituz ugazaba, edo etxeko andriak baño; ezkontzaka batek ezkontubak baño. Barriz aberats batek geijago nekezaliak baño, tratulari batek atxurlarijak baño; bada estatubetako kargubak eskatuten dabee berezko edo aparteko esamina. Olagizon baten obrera, edo alkandora zantarra ez da ain garbi erraza zelan beste askorena. Urte guztijan sutegi, itxatz ta mallu burdinazkuakaz dabilenaren esku bak ur ta igorzi geijago biar dabee arotz batenak baño.

I. Ondo dino, baña beti geratuten nas bildurrez ondo esaminetan nasan, edo ez.

E. Ezin eranzungo deusut jakin baga zelangua dan zure bizitzia. Uts egin leite larregiz, ta gitxiegi. Larregiz uts egin darue arima eskrupulosa edo bildurtijegi batzuk austen dabeenak buruba denpora luziak igaruaz alperrik; sinistu eragin gura deutse diabrubak konfesioña dala tormentu lekuba, ez lege biguna. Ez dabee besterik egiten ezpada asmau legez egin ez ditubezan gauzaak. Onelanguak egingo balebe pekatu mortalen bat, zein egiteko biar dan ezaguera ta gura osua, ezin aaztuko leuke, ez lorik egin bildurraren bildurrez ta ez leuke esamina egiten denpora luzerik biarko. Obedezidu konfesoriarri. Esan dot benetako eskrupulosuak gaiti,

bada badira kristin nau pekatu mortal galantak irunsten ditubezanak, ta bes-teti pekatu ez dirian gauzeetan ikarakor ta bildurrez betiak. Diabrubak engañetan ditu polito onelanguak; oneek gaiti esan lei euskaldunen esakera ederra: *Zajetan zjogi, urunetan ero*; zai apur bat galdu ez dedin beldu- rrez, ta urun ederra galduarren ardurarik ez.

Bestiak dira kontrako bideti dabilzanak, ardura bagako, ta nagi batzuk arimako gauzeetan; ill askotako, ta urte guztiko konfesinuak duaz esamina baga, edo txito arinagaz. Zelan igarriko deutsee leenago ezagutu bagako konzienzian, zer igaroten jaken? Konfessore artubak, sarri konzienziako bazterren barri izan dabeenak, laster, ta erraz igarten dau dan edo ez pekatu, konfesetan daguanak euki daben tentazinua; ez da baida, edo duda aldi batzubetan ebagiko dau neke andi baga. Mediki ezaguna, ta gausuaren barrijak daukazana, geijenez obia da osatuteko ez ezaguna baño. Etxe baten sarri artu danak, edo urteetan bizi danak, gabaz ta illunian bere ibilliko da jausi baga. Baña len etxeko barri ez dakijana, argirik ezpadau, ibilliko da atzamarka zeri eskuba ezarri ez dakijala, ta banatuteko arriskuban. Alan konzienzijako etxe illunian sarri sartu dan konfesorio ibilliko da erreto; badaki nun labandu leitian; zelanguak dirian peniten- tiaren genijo, pasino, ekandu, tentazinoe, ta daukan bizi moduba. Zer egin barriz konfesorerik jakitunenak esamina kontuzko baga datorkon peni- tente ez ezagunaz? Au da jartia konfesino gauza ez dan bat egiteko bidian.

Badira beste batzuk konfesioño luze edo urte guztikuak euren esami- na moduba eginda laster egiten dabeenak deklarazino illun bat: Akusetan naz, Jauna, aserre puska batzuk izan ditudala etxian, edo auzokuakaz; galdu dot zerbait neure pazienzija; esan ditudaz barre eragiteko berbaak; nosbait edan dot tragotxu bat geijago; baña ez deust gatzik egin; ez bake- rik galdu, ez errieta andirik jaso; ez iñori gatzik egin; akusaziño labur ta nastau onegaz, zer aitu lei konfesoriarri? Guztijak agertu ditu pekatu arin- tzat. Zeinbat pekatu estalduten dira euren arimetako begi lausotu, ta geundubetan? Berba barre eragiteko akusau ditubanak dira menturaz, edo murmuraziño astunak, edo ezain, zantar garbitasunaren kaltekuak, eta arima askoren galdu-garrijak. Errieta edo aserre puskak izango dira birao gaizto, edo maldiziño gogozko, etxeko ta auzuen eskandalu-garrijak; tra- gotxu bat geijago edaatia albo alboka, begijak lausotu, oñak lokaturik etxera nekez biurtutia, etxeakuak biar ebeena tabernan gastaubak. Onelan duaz konfesetara esamina gauza ez dan bategaz lenengo burura etorten jakeena esatera apainduta pekatu andijak, ta utsera jo eragiñik. Eguzki argiti sartuten dana leku illunian, lenengo sarreran itsutu legez egiten da, ta ez dakusaz barruban dagozan pintura, ta gauzaak. Bertan egon edo



iraunaz jatorko argitasuna, ta dakus barruban daguana. Alan jazoko jakee kristinau alanguai irauten badabe esamiña giñen biar dan beste denpora. Edegi konzienzijako ormia, ta barruban topauko dira gordeta egozan dongaro egin asko.

IRAKASTE III

Jarraituten da leenagoko doktrina.

Ikusi dogu irago dan dotrinan, zer dan esamina konzienzijakua, zelanguak izan biar daben, ta zeinbat uts egiten dan gauza ain biarrian; baña geratuten da oraindiño zer irakatsi.

I. Zetan bada geijago uts egiten dabee kristinau askok esamina au ondo ez egitiaz?

E. Alde bitara, bata ez konturik arimiari artubaz ez egiñeko edo omisiñoeko pekatuben ganian; ta bestia, pilluan ta ziastrasun baga mandamentubak iraguaz pekatubak burura ekarteko.

I. Zer da pekatu omisinoeko edo ez egiñekua?

E. Da ez egitia egin biar dan gauzaren bat; esaterako; aginduten dau Jesu Kristok limosnak egitia, au da obligazino estuba al dabenentzat. Bada ez egitia al danian, eta egin biar danian, da omisiño edo ez eginiko pekatuba. Guraso bati aginduten jako aziera ona emotia bere umiai; bada ez emotia aziera ona, da omisinoeko pekatuba. Alan beste gauza asko, ta miserikordijako obra edo egitadetan egiten da pekatu ez egiñaz, egin biar dirian ordubetan. Baña, nok esan lei zein gitxi dagozan onelango ez egiñen ganian esaminetan dirianak? Eli eritxon Israelgo jueza guztiz ona zan alde askotara; baña biar legez kastigau ez zitubalako bere seme donga bi, ta eragotzi biar zituban, ta eragotzi ez zituban oneen pekatubak gaiti, irurak ill zirian beingo baten, ta irago zan kastiguba euren ondorenguetara. Zegaiti jausi zan infernura Jesu Kristok, Ebanjelijo santubak dinuen legez, kontau eban aberats burugin, zeken, ta diru zalia? beretzat eukan mai ona; jaatekua ugari ta larregi, ta bere ataijan egoten zan Lazaro pobriaz ez eban errukirik, ez eutsan limosnarik egin. Alan bada gizon aberats batek iragoko balitu gois guztiak mezaak enzuten, ta egunak dituban ordu guztiak gauza on asko egiten, bada kodizioso, zeken, zisku estuba pobreentzat, ta ez limosnari, ta karidade giña, ez da salbauko. Baña zeinbatego esaminau ta ezauten ditube onelango ez egiñezko pekatubak? Alan eskola maisu, kura jaun, sazerdote, konfesore, mediku, ta ofizijo guztietakuak daukee zer egin esamina apartekua. Bakotxak jakin biar dau zelau uts egin leikian bere estadu edo ofizijuan; ta jakin eza jakin biar dirian ta erraz jakin deitekezan gauzeta, da pekatuba, ta esaminau biar da zelau eranzuten deutseen bere egin biar edo obligazinuai.



I. Zeintzuk dira dongaro esaminetan dirianak pilluan, ta ziaztasun baga mandamentubak iraguaz?

E. Dira mandamentuben berba utsai begiraturen deutseenak, ta ez eurretan sartuta dagozan ainbeste gauzari. Kontu daigun, lenengo mandamentuban aginduten deusku Jangoikuak amau daigula bera gauza guztiez ganian. Gatzik gura ez deusalako, uste dau maite dabela Jangoikua ta ez dauka zer akusau bere ustian. Emen geratuten da esamiña guztia. Baña ez leuke begiratu biar maite daben edo ez benetan bere Jangoikua? Egin ete dituban fede, esperanza, amore edo karidadezko aktuak? Topauko dira asko gogoratuten bere ez jakuena egitia; egin baditube auaz akto amodiozkuak, ez dala izan biar legezko pekatuben damubaz, egon dirialako denpoora luzian pekatu mortalian.

Bigarrenena, ez juramentu bidebagako edo alperrik egitia. Justiziaren aurrian egin ezpadabe guzurrzagako juramenturik, aurrera iragoten dira asko esamina geijago egin baga, egiten ditubela guzurraren gañeko juramentubak beste denporetan esanaz, *Jangoikuak alan salbau nagijala, emendi pansurik egin ez daidala*, ta onelango euren kontrako juramentubak.

Irugarrenian, mezia enzun baga largaten ezpadabe, gitxi esaminetan dira zelan enzun dabeen.

Laugarrenian, gurasuak asko daukee zer esaminau umeen aziera onaren ganian; umiak bere bai, gurasuai zor deutseen lotsa edo onriaren ganian, ta uts egiñak ezagutu biar ditube teologijarik jakin ez arren.

Bostgarrenian, dazaubelako iñor ill ez dabeela, geratuten bere ez dira. Baña zeinbat dagoz aserreren baten ondoren berbarik bere egin baga, lagunaren gorrotuan, ta alanguen gatxetan bijotzez poztuten diriala? Oredituten dirianak, zeinbat edergarri euren pekatuba estalduteko?

Seigarrenian, pekatu oso ta aragi gorputzekorik egin ez badabe, ezertzat ez daukeez mosu laztan, eskuka loi, berba zantar ta kaltegarrijak, ta bijotz bakarreko atsegiñ dongaak. Zelango esaminia egingo dabee alanguak! Eta zer balijoko deutse euren borondatezko itsutasunak? Zeinbat bider enzun dabee pulpituetai, ta konfesoren aoti, diriala pekatu pensamentu konsentidu, aragizko, edo borondatez artubak, ta esan dirian beste gauzaak?

Zazpigarrena, *ez ostutia*. Eskuz ezer artuten ezpadabe, ez dago beste esamiñarik askorentzat. Nok esan barriz zeinbat aldetara pekatu egiten dan mandamentu santu onen kontra! Zeinbat logrerija, irabazte bide bagako saldu erosijetan! Zeinbat kalte modu iñoren ondasunetan!

Zortzigarrenena, ez guzurrezko testimonijorik ezartia, ta ez guzurrik esatia. Iñori asmau ezpadeutse guzur kaltegarririk, ez da askorentzat beste

esamiñarik. Baña zeinbat, murmuraziño astun ta ezkutuko? Onelan, alan Jangoikuaren legeko amar mandamentuban, zelan elexako bosten ganian egiten da konzienzijako azterren, edo esamina azaleko ta laburra, isten diriala bakotxaren erruz ezagutu ta konfesau baga pekatu asko, ta egiten dira konfesiño dongaak. Eta nundi dator kalte au? Ez ete ditube kura jaunak ziaztuten mandamentubak euren sermoe, edo dotrinetan? Ete dira nagijak irakasten, ta euren obligazino ain estubari eranzuten! Alan balitz, ze kontu emongo deutsee Jesu Kristori euren eskubetati eskatuko deutseezianian euren kargura larga zituban arimak? Baña, ze eskusa emongo dabee doktrina santubetati igesi dabilzianak enzun gura ez dabeela Jangoikuaren berbia? Euren jakin eza jatorke bada ikasi gura ez gaiti, ta au litzate pekatu, beste pekatu rik estaldu ezingo dabena. Ezagututen ez dala loko pekatuba; ez da bere damurik artuten. Alan dino Jangoikuak Jeremias profetiaren aoz: *ez dago nok egin dagijan penitenzijarik, esanaz, zer egin dot!*

Esamina bi egin biar dira konfesiño ona egiteko; bata, ezagututeko pekatuben numero edo zeinbatasuna al dedin bestian; zelango gauzeetan pekatu egin dan, ta pekatubaren lagungarri, zertzelidate, edo zerkunstanziya konfesau biar dirianak. Bigarrenena, ezagututeko pekatubaren malizija edo dongatasuna; nor dan ofendiduba, nor dan pekatu egin dabena, ta zergaiti; zeintzuk dirian pekatubaren kaltiak. Esamina, edo azterren au egin biar da erakarteko bijotzeko kontriziño edo damuba, zein baga aozko konfesinua alperra da, gero agertuko dogun legez.

I. Zelan bada egin biar da esaminia aozko konfesiño osua egiteko?

E. Jakin biar da bada ez dabela esamina onek izan biar munduko gauzeen azterren edo esaminia legezkuak, ezpada fede biziti jaijuak. Merkatarri batek ateraten ditu bere artu emon, ta galdu irabazijen kontubak bijotza beti daukala itxasirik ezagututian, zelan urtengo daben. Baña konfesetako esaminia egin biar daben kristinaubak egin biar dau lotsa santu bategaz, ta parkazinua eskatuteko Jangoiko ofendidubari bijotzeko damu andijagaz. Jarri biar dau Jangoikuaren aurrian leku bakar baten; eskatu biar deutsa arimako begijen argitasuna Ebanjelioko itxubak eskatu eutsan legez Jesu Kristori. Biurtu zan salbagillia beregana, ta esan eutsan: *zer gura dozu? Jauna, begijetako ikusbidia*. Ikusirik Jesusek bere fede bizija, esan eban, *alan izan bedi eskatu dozun legez*. Gu geurez itxubak gara arima ta salbazinuari jagokazan gauza guztietan. Biar dogu zeruko argi ederra ikusteko bijotz barruban daguana, ona dongatzat, ta dongia ontzat euki ez daigun, ta alan bere geijago ezagututeko pekatubaren gaistotasun edo malizija.

Dua bidiazti bat leku ez ezagunian, ta artuten dau gabak baso bakar baten. Zelangua bere estuba? Zelangua ikara edo bildurra? Alango baten



topetan dau bakartade atan etxe erdi jausi zaar bat; sartuten da barruban zerbait atseren, ta lo egiteko; argituten da eguna, ta dakusaz uste baga bere albuari sugetzar, dragoe ta beste pizitija bildurgarri asko. Ikaraturik, jagiten da beriala ta artuten dau igesa; ta diño, nun lo egin dot? Zelan iruntsi ez nabee pizitija gaisto aek? Nok eruan nau alango lekura? Zorijoneko eguzki alango lekuti atera nabena. Zek iges eragiten deutsa len ordu osuetan lo astunian egon zan toki atati? Ikusi ebalako argi ederraren bidez bere arrisku edo peligruba. Alan bada pekatarijak dakusazanian zeruko argi ederraren bidez bere arima barruban dagozan dragoiak baño kalte-tsabaguak dirian pekatubak? zelan lo egin pekatuben artian? Zelan iges egingo ez dau konfesoriaran oñetara an arkituteko bere urtenbidia? Zelan esaminetako denporan eskatu biar ez deutsa aspertu baga, zeinbat pekatu, ta zelanguak egin dituban damu andi bategaz guztijak zuzen konfese-tako? Argi au eskatuta, asi biar dau kontubak ateraten, nos egin eban ezkenengo konfesinua; ete daukan itxirik lotsaz pekaturen bat; nogaz lagundu dan, nun irago denporak; utsik egin ete daben bere estadu, edo ofizijoko obligazinuetan, ta gero irago biar ditu mandamentubak kontuz. Zer egin ez darua gauza balijotsuren bat galdu jakonak? Ateraten ditu kontubak, nundi nora ibilli dan, nos galdu eukian, ta dua bide, ta leku alanguak kontuz ikustera begi azarrijakaz damuz ta atsakabez galdu ebalako. Topetan badau, zelango poza? zek artu eragiten deutsa ainbeste neke ta arazu? Gauza galdubaren asko gura edo amoriak. Zer balijo dabee lurreko bitxi, tresna, ta gauzarik ederrenak Jangoikuaren grazijaren aldian? zelan bada damutu biar ez da bera galdubaz? zelan damu onegaz esaminau edo aztertu ez, nun ta zelango lekuban galdu daben! Sartu biar dau gero bere inklinaziño, ta pasino dongaak aratu edo ezagututen. Aserre erraza ta sutsuba bada, begiratu biar dau ezi daben edo ez bere jenijo bizi ta gaistua; itxi ete deutsan iños ta zeinbat bider egiten gura dabena; emendi, iñori ezarri ete deutsan birao txaarik; artu deutsan gorroto oso edo gatx gurarik...

Esaminau biar dira pensamentu, berba, ta egitadak, ta etorten baja-ko ezda baida, edo dudaren bat lekuri emon ete deutsan pensamentu donga loi edo zantarrari, konfesau biar dau konzienzijan daguan legez. Kristinau Jangoikuaren bildur gitxikuak iruntsi daruez pekatu loi asko, alan pensamentuz, zelan berbaz, egiten dabee lo ardura baga, geituten ditube pekatubak, ta esamina kontu andiko baga, ez dabee gauza garbirik aterako.

I. Zein da biderik erraz, ta prestena esamina oso bategaz konfesinua egiteko?

E. Da egunian bein, edo birritan egun bakotzeko esaminia egitia, ta damu artutia uts egiñen bat topetan badau. Au da bitartekorik onena, dino S. Ignazio Loiolako arima maisu andijak, igoteko birtute gora edo altu batera. Badira etxeko jaun batzuk egunero etxian zer kastetan dan kontu ze edo ziatza daruenak; onenbeste diru atera nituban okelatako, ainbeste ardaia ekarteko. Astiaren guenian ateraten dabee zer kastau dan; asteetati ill guztiko kontuba, ta illetati, urtekua. Daukee beste kontu bat errenta ta irabazijena, ta kontubai jo eragiñik dazaube kastuba edo irabazija geijago izan dan. Barriz bapere konturik ez daukeenak, ezpada emon ta emon, artu ta artu, daukeez kontu loi ta garbituten gatxak; orregaitiño ondatuten dira etxe asko. Alan bada, zelan eukiko ez ditu konfesinoerako garbitubak bere arimako kontubak bere konzienzija egunian bein aztertu, edo esaminetan dabenak? Zelan betiko kontu artute onek erakarriko ez dau bizitza on bat?

Daigun kristinau batek daukazala ekandu txar batzuk, guzur txikarrrak esatia, zerbait erraz bizitua, karidadeko paltaxoren batzubetan jaus-tia. Zein erraz kenduko litukian goisian Jangoikuari obra, lan ta neke guz-tiak eskiñi, edo oprezidurik ez alango paltarik egiteko asmoz, ta egiten badau, daigun esan ezagueraz guzurtxoren bat, egin bizitasunen bat, igoz-teko lurra minaz Jangoikuari parkazinua eskatuta! Dator gaba, artuten deutsa kontu arimiari, zelan irago daben eguna, nogaz lagundu dan, ze konbersazino izan... ta topetan badau guzur edo bizkortasunen bat, kon-fesetan deutsa bertan Jangoikuari, artuten dau gogua urrengo eguna obeto iragoteko, ezaguturik, zelan Jangoikua maite daben kristinaubak ez deutsan ofensarik egin biar pekatu benialen izena dabeenakaz bere; zelan kastigetan dituban Jangoikuak purgatorijoko pena andijakaz. Zelan izan-go ez da guztiz ona bere arimiari egunian bein onelango kontubak artu-ten deutsazan kristinauba? Zelango aurrerapenak egin ez zeruko bidian? Lurreko ondasun labur batzuk gaiti kenduko liratian ekandu txarrak, kendu ez Jaunaren grazijaz alan billatuten daben kristinaubak eguniango esamina, ta orazinuaz? Esango bazeuntsa guzur zale bati guzurrik esaten ez daben egun bakotxian emongo deutsazula ogei errialeko bat, zelango arduria artuko ez leuke berba egiteko? Eta beingo batian esango baleu, zelango atsakaba ta damuba berba txatar bat esan baga ez egotia gaiti galdu dabelako ogei errialekoa? Urrengo egunian geituko leuke arduria, ta menturaz illa bete osuan ez leuke guzur bat esango. Alan lurreko sari eskintza labur batzuk gaiti, kenduko liratez aserre, bizkortasun ta pasino txarrak. Nun ete da gure fedia? Jangoikuak pasino txarrak kendu daigu-zan amarez, opa edo eskiniten deuskuz zeruko sari andi ta ederrak,



lurrian konzienzija bake ta atsegiña, ta alan bere ez ditugu ezi gura? O itsutasuna! Zek ekarri eban Dabid erregia santu izatera? Gau ta eguneko nire ogija dira negarrak, esaten eban, itanduten deusteenian, nun da zure Jangoikua? Zegaiti ainbeste negar? *Scopebam spiritium meum*; aratu ta esami-netan eban bere konzienzija, komutetan zan pekatu egin ebanaz, Jangoi-kua ganik artu zituban mesediakaz. Egin daigun guk bere alan, ta elduko gara birtute andi edo goratu batera. Alan izan dedilla.

IRAKASTE IV

Zelan ondo konfesetako biar dan bijotzeko damuarija.

I. Zeren ganian berba egingo dogu doktrina onetan?

E. Kristinaubak gitxijen dakijen, ta geijen jakin biar dabeen gauzia-ganian, zein dan pekatuben damuari konfesinoerako biar dana.

I. Orren biarra da damuari au? Ez ete da asko pekatuben esamina kontuzko bat egin, ta dirianak ezer itxi baga humiltasun andi bategaz konfesoriarri agertutia?

E. Ez dago konfesinoe humilderik, bijotzian maite bada pekatuba. Eskubetan mun egin, ta erreten ikusi gura esku mun eginak. Alangua da kristinau askoren humiltasuna konfesinuan. Dagoz belaunik, golpetu daruez bularrak, eskatuten dabee parkazinua, auan dirudije humilde batzuk, ta bijotzetan falso guzurti galantak. Berbia Jakob onarena, esku edo obrak Esau dongiarenak.

I. Zegaiti esan damuari au dala gitxijen dakijena, ta geijen jakin biar dabeena kristinaubak? Ez da sarri prediketan gauza au? zelan bada egon leite jakineza?

E. Enzun darue pulpituetai; umetati bere irakasten jakee biar dala pekatuben damuari edo gorrotua; baña ez jakee itxasten bijotzian. Begitanduten jakee pekatubak osoz konfesau ezkerro, ta *neure Jesu Kristo Jauna*; golpe batzuk bularrari emonda, eginda daguala guztia. Au da elexa ama santiak daben persekuzinoerik andijena, penitenzija falso edo guzurrez-kua. Auan damuba, bijotzian laztan pekatuba. *Ikusten ez daben begija*, da damurik ez daukan bijotza. Dongaro konfesetan dirianak dazaubela, pekaturen batzuk lotsaz ixildu edo gorde ditubelako, igarten deutsee nun daukeen gatxa; ez dauke bakerik, bijotza ikaratuten jakee sarri, arantzaz beterik dabilz, larritu oi dira, ta sermoietan enzuten ditubezian Jangoi-kuak egin dituban kastigu gogorrek pekatubak bildurrez konfesau baga larga zitubenakaz, juan oi dira sarri konfesiaren oñetara konfesiño jeneral baten guztiak agertutera. Baña pekatubak esan, ta konfesetan dirianak damu itxura bategaz, ta benetako damuari baga, dagoz lo zorro astunian diadarrakaz bere iratzartuten ez diriala; komuninoera duaz alan bildurtzaka, ta konfesino-komunino pekatuzkuakaz bizi dira kondenzazinoeko arrisku andi baten.

I. Zelan dongaro konfesau ta komulgau igarri baga?



E. Erantzuten dau santo Tomas maisu andijak, ez igarte, edo ez ezagututia dirianian bakotxaren erruz, jakin eza ta ezagutute eza eurak dirialako pekatubak, ta pekatu bat izango ezin dalako beste baten eskusa egijazkua. Gauzaren bat danian ikasi biarrekua, ta ikaserraza, ez ikastea, ta ez jakitia pekatuba da. Damuari bijotzekua da gauza biar biarra konfesino ona egiteko, ta besterik jakin erraza, sarri enzuten dalako. Bada ez dakijena, edo sermoietati igesi dabilzalako, edo enzunda sinistuten ez dabelako, edo sinisturik prestetan ez dirialako, euren erruz ta guraz egiten ditubez konfesiño dongaak, ta duaz ost baga ta arimako begi estaldubakaz beti iraungo daben infernura.

Egija au ezaguteko ez dago itandu baño konfesiño onduan, damu dozu Jangoikua ofendiduba? Bai Jauna, dinue, ez dot damu izango? Zelan bere damu dodan; emongo ditu golpiak bularrian, makurtuko dau buruba, ta esango dau ezpanakaz *neure Jesu Kristo Jauna*. Onelan konfesetan dira pekatuben inguruban jira ta bira dabilzanak. Onelan okasino galdubetan sarturik dagozanak. Onelan urte osuetan obetu ez dirianak sarri konfesauta bere. Onelan ordisats, lujurioso zantar, lapur ta bizijo dongeeran jarraituz, ta ekanduz diraubenak. Itxiten ez badabe pekatu konfesau baga, ta artuten badabe absolutuz arin emona, duaz bake itxura bategaz komulgetara, ta erakustera Jesu Kristori bere ostatu donga atan, zelan bijotza daguan pekatubaz oraturik. O itsutasun odolezko malkuakaz negar egitekua! Alanguak ez dabee gura pekatubaren izena, baña bai izana. O gauza zurtutekoa! Konfesinua berez izanik arimaak askatuteko diabrubaren kateetarik, askorentzat da, bakotxaren erruz, euren arimen galbidia. Dakuskun bada, zer dan biotzeko damuarija, zeinbat modutakua; nortzuk daruen konfesinoera, ta nortzuk ez.

I. Zer da bada kontriziño, edo damuari au?

E. Da, dino Trentoko konzilijo santubak, *pekatu egin danaren atsakaba, edo gorroto bijotzekua aurrerunzian ez ostera egiteko propositu*, edo goguaz. Penitenzijako sakramentubak daukaz iru parte, kontrizinua, konfesinua, ta satisfakzinua. Kontrizinuan sarturik dago ostera pekatu ez egiteko propositu, edo gogo sendua. Konfesinuan, leenaz egin biar dan esaminia. *Kontriziño*, edo damubak, dinuanaz konzilijo berak, zeñen dotrinia dan elexiarena, *prestetan dau pekatuben parkazinna erakarteko, lagunduten badeutsa konfianza, ta borondatiak egiteko sakramentu santu au artuteko biar dirian beste gauzaak*. Emendi aterako dabee kristinaubak, dino Erromako dotrina liburubak, damu edo kontriziño au ez daguala bakarrik batek aurrerunzian pekatu ez egitian, pekatu ez ostera egiteko asmuhan, ez da bizitza ona astian bere. Biar dala guztien aurrez legez artu lengo bizitza dongiaren

gorroto ta damuari sendo bat satisfakzinua emoteko goguaz. Egija da ezin egongo dala egijazko propositu Jangoikuagandi sorturik, pekatu lenguen damuari, edolan bere ezkutuko baga, ta eruatia aurrerunzian bizitza on bat dala damubaren ezaubide, edo senalerik onena.

I. Zegaiti pekatuben damubari emoten jako kontrizinaren izena?

E. Adierazoteko penitenzijagaz urratu, ta austen diriala gure bijotzak zelan arri bategaz ausi ta mallatuten dan gauza gogorra. Pekatubak daukaz gogortuta bijotzak, ta kontrizino edo damubak ausi ta bigunduten ditu.

I. Parkatu leite pekatuik damu, edo kontriziño baga?

E. Ez ezelan bere. Alan esamina kontu andiko, ta konfesino oso bategaz ilten bada pekatarija, ezpaeban eruan konfesinora kontriziño, edo egijazko damurik ez deutsa ezer balijo, ta kondenuko da. Munduban iragoten dira aldi batzubetan eskritura ta diru palsoak, baña Jangoikuaren aurrian ez egijazko kontrizinua ez danik.

I. Zeinbat modutakua da bada kontrizino edo damuari au?

E. Bitakua; bata da kontrizino perfektu, edo oso osua, ta bestia kontrizino ez osua. Kontrizino osuari deituten bere jako soil soilik kontrizinua, ta ez osuari, atrizinua. Argiruago jakiturija bagako ta euskaldunentzat, kontrizino edo damu osua da amore damuba, ta atrizinua bildur damuba.

I. Zegaiti kontrizino edo amore damuba da oso edo perfektua, ta ez atrizino edo bildur damuba?

E. Zerren kontrizino edo amore damuba bera bakarrik asko dan pekatuba parkatu, ta arimia grazijan iminteko; ez baña atrizino edo bildur damuba; *damu onek prestetan dau pekatarija konfesinoko sakramentubaren bidez grazijan jarteko*. Doktrina au da Trentoko konzilijo santubarena. Eizari, edo kazadore batek jarraituten deutsa basaurdiari, jaurtigiten deutsa tirua, ta zorijonez joten dau garunetan baliaz, ta bertan geratuten da illik abere zantarra. Urteten deutsa geruago beste basaurde batek; jaurtigiten deutsa oni bere, baña eztau joten lenengua legez beinguan erijotzia emoteko lekuban; austen deutsa aurreko besua, geratuten da manka arinik ezin eginda; artuten dabee eizari ta txakurren artian, ta ilten dabee bertan kolpeka. Lenengo tirua izan zan oso osua, zerren ill eban beingo baten iñoren laguntasun baga; alan kontriziñoa bere da damu osua, konfesinuaren laguntasun baga, edo konfesau baño leenago ilten dabelako pekatuba. Atriziño edo bildur damuba ez da kolpe osua ilteko pekatuba; manketan dau bai ta konfesinuak lagundurik, geratuten da illik pekatuba.

I. Zer da bada kontrizinua edo damu osua?



E. Da pekatubari artuten jakon gorrotua gatz guztijai baño guzijago Jangoiko txito on ta amagarrijaren ofensia dalako. Damu au dator Jangoikuari artuten jakon maitetasun, ta karidade garbiti geure onari begiratu baga; alango moduz eze zerurik ezpalego bizitza onaren saritzat, infernurik bere ez kastigetako gure pekatu mortalak, gurako gendukian ondo bizi ta pekatu egin ez, merezi dabelako gure Jangoikuak guk bera ametia bere ontasun neurri bagia gaiti.

I. Beraz kendu biar dogu infernubaren bildurra, ta zerurako gogo ta esperanzia Jangoikua garbi garbi maite izateko?

E. Ez orrelangorik. Jangoikuaren bildurra, ta ezperanzia dira Espiritu Santubak emoten deuskuzan doe ta mesede andijak. *Jangoikuaren bildurra da amore* santubaren *asieria*; alan dino Espiritu Santubak. Gitxi izan dira san Agustinek baño amodijo geijago Jangoikuari izan deustanik; orregaitino bere esaten eban; *Betiko subaren bildur nas*. San Franzisko Borjakok amodijo garbi garbija eutsan Jangoikuari; alan bere ordu osuak iragoten zituban infernubaren gañeko konsiderazinuan. Barriz esperanzako birtutia biar biarra da birtute guztijetarako. Ametia Jangoikua guretzat zeruban daukazan sarijak gaiti, ez da eragozpena ametako jauna sari baga bere. Seme on batek artuten ditu amorezko ezagutziaz aitak emoten deustazan ondasunak ondo serbietan dabelako; maite dau aita agertuten deustan asko gura edo amodijua gaiti. Baña pobretuko balitz aita bera, ta ezpaleuka bere zer emon, seme onak serbietan dau len legez sarijaren uste baga.

I. Zelan zeruko desioti iragoko gara erraz Jangoikuaren amodijo garbira?

E. Zeruba billatuten dogunian, ez bakarrik gure gorputz, ta arimak an euki daikezan atsegin andijak gaiti, baita bere an amauko dogulako Jauna amore txito andi, ta guztiz garbijagaz; an ofendiduko ezin dogulako gogo edo desio bizijakaz, an bedekatu ta alabauko dogulako amorez beteta. Au da gura izatia Jangoikuaren onra, ta ametia bere ontasuna gaiti. Bardin, damututen dabena infernubak, ez bakarrik an gorputz ta arimak iragoko ditubezan tormentu ta atsakaba gogorrek gaiti, baita bere an amauko ezin dalako Jangoikua, ta bai gorrotua euki berari, ta bere justizijaren kontra birao gogorrek ezarri, ta emendi damututen bagaitu pekatubak galerazoten dabelako betiko Jangoikua ametia, da eukitia pekatubaren damu amore garbiti datorrena.

I. Zer da bildur damu, edo atrizinua?

E. Da pekatubari gorroto artutia, edo Jangoikuak dongeentzat presaturik daukazan betiko kastigubak gaiti, edo galerazoten ditubalako onentzat daukazan betiko atsegiñak, edo pekatu beraren ezaintasuna gaiti,

fedeko argijak lagunduten deuskunian. Damu au dator Jangoikuaren bildur santuti.

I. Eta infernubaren bildur guztija da atrizino, edo damu santuba?

E. Ez: gauza bat da infernubaren bildurra, ta beste bat pekatubaren damuba infernubaren bildurrez. Bildurtuten zaitu infernuko subak, ta ez pekatubak, dino S. Agustinek pekatari askoren bildur utsa gaiti. Iru bildur modu dazaubez jakitunak; bata Jangoikuaren semeena, bestia serbitzariena ta irugarrena esklabo, edo nai ta ezeko mendekuena. Semeen bildurra da bildurtutia, pekatuba dalako Jangoiko aitarik onenen ofensia pekatubaren kastigubari begiratu baga. Serbitzarijen bildurra da damu emotia pekatubak arimako kaltiak gaiti, oneek dira, zeruko gloria galdutia, infernurako bidian imintia, ta pekatubaren ezaintasuna. Esklabuen bildurra da gordetia buruba pekatu egitei infernu edo beste kastigubaren bildurrez, kastigurik ezpalego pekatu egiteko borondatiaz. Seme on batek egiten ditu aitaren esanak aitak kastigetaz ezpadaki bere; pobria izan ta herenizariarik itxaroten ezpadau bere. Au da amore garbi interes bagia. Serbitzari onak egin daruaz borondate onaz ugazabaren esanak, ta biar agindubak, alan aserratu ez dedin, zelan emoten deustalako alogera ta jaatekua, ta ez dabill biarrik egin gura ez da, ugazabak ikusten ez dabentian; begiratuten deusta etxiari amore modubaz, ta egiten dau biarra borondate onagaz. Barriz esklabuak egin daruez geijenez Jaunaren esanak ta biarrak ezin beste, damuz legez; beti dauke gogua azote, edo makillakadetan; ez deutse begiratuten ugazabaren aurrerapenai borondate garbijagaz, ta iges egin albadabe kastiguti, largaten deutsee biarrari. Oneen serbietia da borondate txaarrekua. Mutil batek jarduten dau karta jokuan beste lagunakaz; dakus datorrela maisuba; ezkutetan ditu kartak, ta jarten da berba egiten modu onian. Esango dozu alango mutillak gorroto deutseela karta ta jokuari? Ez; bildurten dau azote, edo agirakiak.

Otso gose danak urten darua basoti ardi billa; enzuten ditu txakur zaunkak, dakus ardizain edo pastoria aga bat eskubetan dabela. Bildurrak geratuten dau; ez deusta ardiri gatzik egiten, ta biurtuten da basora. Otso au biurtu da bildots izatera? Ez, dino san Agustinek; bere gogo ta ardi artuguria lengua da. Otsua zan atrapetara orruaz joanian, biurtu zan otsua bildurrez, baña beti zan otsua. *Lupus fremens, Lupus tremens, sed semper Lupus*. Onelanguak dira pekatari asko. Bildurrak atzeratuten ditu zerbait bide dongati; baña ez deutsee gorrotorik artuten pekatubaren gaistotasunari. *Malitiam autem non odivit*. Poztuko lirite infernurik ezpalego; ezpalegoz zaunkaz legez Jaunaren ministrak bildur baga pekatu egiteko. O arima zorigaistoko Jangoikuari emoten ezteutseenak bijotza, ez bijotz



onez larga pekatuba! Lapurrak bidera urtenda eskatuten deutseenian norbaiti daruan diruba, emoten jakee; baña bildurrez, ezin bestez; iges egin balegi, gordeko leuke polsia. Alanguak dira kristinau asko; ezpalego infernirik, iraungo leuke pekatubetan. Eta artuko dau Jangoikuak alango bijotz dongia?

I. Zer biar da bada atrizino edo bildurra santuba ta bide onekua izateko?

E. Pekatubarentzat borondate guztia kendutia, dino Trentoko konzilijo santubak; gurago izatia galdu onra, bizitzia, ta gauza guztiak Jangoikua ofendidu baño; artu gogo sendo bat aldegitoko pekatubaren okasino, lagun, ta ebillera urrekuetati, ta bijotza biretia benetan ta osoz Jangoikuagana, Artu biar dau bildur santubaren bidez bada bere bijotz, ta espiritu barri bat ta damu emon pekatubak Jangoikuaren ofensia dalako. Bildur santu ta bide oneko au da amodijo garbijaren asieria, ta irauten badogu Jangoikua serbietan, geitubaz juango gara Jangoikuaren amorian. Arako seme ondatzalle Jesu Kristok adierazo ebanak, aitaren etxeti iges eginik, ikusi zitubanian gosia, premiña, ta gauza guztien paltia, juan zan bere aitagana; bildurrak berak ezagutu eragin eutsan nor galdu eban; ta au zala aita maitagarri ta bijotz bigunekua. Alan bada Jangoikuaren bildur santubak ezagutu eragingo deusku, nor ofendidu dogun, zelan kastigau geinkezala kastigau ez gaituban, bedeinkatu ta alabauko dogu bere ontasun ta miserikordijak gaiti, ta serbiduko dogu seme esker onekua bere aita legez.

I. Baña biar biarra ete da kontrizino oso, edo amore garbiti jaijua konfesinoe ona egiteko?

E. Da txito ona, ez premiñazkua; ez dago zer estutu ta larritu konfesetan bagara Jangoikuagandik datorren damuari egijazkuaz. Teologurik geijenak dinue, asko dala ondo konfesetako, ta onen bidez grazija artuteko, esan dogun legezko atrizino edo bildur damuba. Beste batzuk eskatuten dabee Jangoikuaren amodijuaren asiera bat. Baña Espiritu Santubak dino Jangoikoaren bildurra dala amodijuaren asipena. *Timor Domini initum dilectionis*. Bijotza aldatuen edo konbertietan bada, konfesinua ona izango da; aldatuten ezpada, ez dago egijazko atrizinorik. Egin daigun alegiña pekatubaren damuba artuteko konsideraziño bildurgarri, ta amore-garri-jakaz. Konseju au txito ona, ta guztijak emoten dabeena da.

I. Gura neuke baña enzun bardintza, edo konparaziño adiutu ta on bat kontrizino oso ta atrizino santuba adituteko?

E. Ona emen. Seme batek bere aserrian emoten deutsa aitari golpe andi bat. Sartuten dau preso justiziak; ezarten deutseez katiak. Artuten

dabe informazinua, ta kenduten deutsee aitarenazienda edo ondasunetarako eskubidia. Seme onek dazau bere dongaro egiña; deituten deutsa karzelara gurasuari, ta ikusirik onen arpegi zauritu, ta banatuba, emoten deutsa negarrari, dinuala damuz beterik. Ai ene! Ai, neure aita ona! Zer egin dot neure itsutasun gogorrian! Zuk agiraka egiten bazeunstan, izaten zan neure ondo gura edo amorez. Zuri zor deutsut Jangoikuaz beian nerue izatia; zuk ni mantenietarren artu zenduzan neke gogorrak. Eta nik eskubak ezarriko neutsuzala zuri? Nik zu banatu? Ez nabee mindu edo penetan daukadazan katiak, ez leku loi ta atsitu onek; ez gose daruanak, ez da bere justiziak kendu deustan eskubidia zure ondasunetara. Oneek ta geijago merezi ditudaz. Bakarrik dot damu zuri egin deustudan injuriya edo bidebagia; zuri, zein zarian neure aita, ta aita neure ona billatu dozuna agiraka egiten zeunstanian bere. Ona emen kontrizinoe oso, ta amorezko damuari garbijaren irudin edo pintura bat. Pekatu egin dabenak fedeko argi ederragaz ezagututen dabenian pekatu mortal bategaz aita baño aitaago dan Jangoikuari egin deustan ofensa ezaña, ez bakarrik golpe, baita bere ostera kruzifiketan dabela Jangoikuaren semia; ta artuten dabenian damu txito andi bat, ez ainbeste galdu dabelako zerurako esku-bidea, ta infernuko pena ikaragarrijaren bildurrez, zelan bere aita ain on, ta ain maitegarrijari egin deustan bidebaga, edo injuriya gaiti, artuten dau amore garbi ta interes bagako damuba. Au da kontrizinoe oso arimiaren santifikagarrija.

Baña esan dogun seme ak, ezaguturik zeinbat kalte ekarri deustazan bere burubari aitari eskubak ezartiaz, damuturik bene benetan bere dongaro egiñaz, erregutuko baleutsa bijotz humildiaz gurasuari, enpeñau edo bitartetu dedilla justizijaz librau dagijan karzelati, ta biurto degijon here-detako eskubidia, erregu au egiten deustala ezaguturik bere aita dala errukitsua, ta konfijanza oso bategaz, damu emoten deustala, ez bakarrik kastigu daruanak, baita bere aitari egin deustan ofensiak, au litzate atrizino, edo bildurdamu santu baten irudi, edo pintura. Dakusanian kristinaubak pekatu mortalaren bidez bere arimiari ekarri deustazala kalte andijak, galdu dabela zerurako eskubida, jarri dala kondenazinoeko peligruban; galdu ditubala lengo obra onen irabazi edo merezimentubak; daukala diabrubak preso edo lotuta legez, ondo egiten dau zuzendutia Jangoiko ofendidubagana konfijanza oso bategaz, artuten dabela egijazko damuba, aserratu eragin deustalako Jangoikuaren justizijari. Emendi jatorko bere miserikordijaren ezauera osua, zeñen besuetan ezarten dan, ta ametan dau Jauna, edolan bere ain ona izan dalako beretzat, kastigau eikiala, kastigau ez dabelako, ta bai itxaran penitentzija egiteko. Prestaera onegaz eldu ezke-



ro konfesinoera, jadietsi edo alkanzauko dau pekatubaren parkazinua. Baña esana esan, ez dago egijazko damurik bijotza prest ezpadago leenago galduera honra, ondasunak, ta bizitzia, ta gogo senduaz alde egiteko pekatubaren okasino urreko guztietarik. Baña zeinbat dira onelango damuba daruenak? Au ikusiko dogu urrengo dotrinan.

IRAKASTE V

Konfesinoerako biar dan damubaren ganian bigarren doktrinia.

Ikusi genduban iragoriko dotrinan, zer dan dolore edo damu konfesinuari lagundu biar deusana, zein biarra dan, ta zeinbat modutakua. Dakuskun gaur zeinbat penitente guzurrezko dirian, ta zein gitxik pekatarijen artian daruen egijazko damuba.

I. Nundi jakin leite ori baldin damuba badago bijotzian, ta bijotzeko barri Jangoikuak bakarrik badaki?

E. Badira señale edo ezaubide argituten gaitubezanak. Ona batzubek. Damubak egijazkuak izateko, biar dau jaijo Espiritu Santubaren golpeti, ez munduko motibuetati. Izan biar dau senduak; au da, atsakaba geijago emon biar dau pekatu mortal bategaz Jangoikua ofendidubak, onra, osasun, ta gauzarik estimagarrijenak galdutiak baño. Izan biar dau guztijenak, edo ez dedilla pekatu mortal kasta edo muetarik izan, zeñi gorroto artuten ez jakon. Orain bada, dakuskun nortzuk ez daruen egijazko damurik. Lenengo aldeti ez darue egijazko damurik munduko kaltiak gaiti bakarrik damututen dirianak. Jokolari itsu batek bere arimiaren kaltian jokatuten dau biar baño geijago; galduten ditu diru asko; aserratuten jako; egiten ditu birao latzak, urratuten ditu kartaak, ta egiten dau promes legez ez geijago kartarik eskubetan artuteko. Zelango damuba! Zelango proposituba! Baña munduko kaltiarena; irabazi baleu, bedeinkatuko zituban kartak. Ordituten da gizon ardaozele bat, jausi ta batiatuten da; osatuteko egin ditu kostu andijak, ta igaro miñ gogorrek. Madarikatuten dau ardanetxe edo tabernia, edan eban ardaua, izan zituban lagunak, ta damu dau alan ordituba. Baña zek emon daruako ainbeste atsakabe? Emoten dituban eskandalubak etxe ta errijan? Jangoikuari egin deusan injurija egin dalako abere zantarren irudikua, izanik bere itxura edo irudiñera egiña? Bai barriz. Damu emoten deutse gorputzeko miñak, kastau dituban dirubak. Damu alperra konfesinoerako. Gizaseme lujuriotsu bati pekatu egin onduan itxasten jako gatx donga bat; gorputza eriduta ikustian, ezarten deusaz birauak pekatu lagunari; damu emoten deutsee igaro biar dituban miñak, egin biar dituban gastubak; osatuko bada, agertu biar dabelako gatx lotsagarrija. Eta Jangoikuari egin deusan injurija baltza gauza ain zantarran jausi dalako? Eta arimiari egin deusazan kaltiak? Oneek ez deutsee damurik emoten. Jangoikua ixillik dago.



Jausten da neskatiilla bat pekatu zantarrarian mutil donga baten palagu, eta eskintzak gaiti. Agertuten da pekatubaren frutuba. Mutillak garbitu gura dau buruba, dinuala: Guzur andi bat ezarten deust, billatu begi bere galaia. Dakusarian neskatiilla bere buruba lotsaari alanguan, honra guztia galdurik, buruba agertu ezinik, senidiak daukeen atsakabia, mada-rikatuten dau jaijo zan eguna, tentau eban mutilla. Ai dino, nik sinistu ezpaneutse gizon gaztiaren berba labanai, arpegija urratu baneutsa pekatu egin baño leenago!... Zer egin dot? Zer egingo dot orain? Damu alper-rra, mundukua, ta Judasenen modukua. Apostolu donga onek artu eban pekatubaren damuba, bota zituban dirubak Kristoren arerijuen aurrian esanaz: *Egin dot pekatu errurik ez enkan* neure maisuba saldubaz. Zer eran-zun eutseen pekatuko lagunak? Or konpon, Judas, or konpon; orain ez dogu zure biarrik, len bai. Alan esaten dabee gizaseme gaistuak, or konpon dedilla neskatiilla. Zer balijo deutsee oni negarrak? Damu alperra. Zeinbat andijaguak dira bere pekatuti etorri dirian arimako kaltiak? Zelango eskandalubak zabaldu ez dira? Nun da Jangoikuaren grazija galduba? Nun infernu irabazi, ta zeru galdu dana? Oneekaz ez dago ardurarik. Agertu ezpaliz pekatuba, agertuta bere lograu baliz dote andi, edo ezkontzia, ez zan negarrik ikusiko, ez malko bat emongo. Biar bada esango zan bijotzian: O zorijoneko pekatu ainbeste on ekarri deustana!

Egija da, dala gatxagua pekatubaren damu benetakua artutia pekatuti onak atera dirianian, kaltiak atera dirianian baño. Baña fedeko begijak jasoten ez badira Jangoiko ofendidubagagana, ta arimako kaltiak geijago sentidu gorputzekuak baño, ez dau alango damubak ezer balijo konfesi-no santurako. Zelango damuba Saul errege dongiak Jangoikuaren esana gorde ez ebalako? *Egin dot pekatu*, zirautsan Samuel profeta santubari, *baña onrau nagizu Israelen aurrian*. Zein bestera Dabid penitentia! Ez eutsan erregutu librau egijala adierazo jakazan kastigubetati, ta bai negar asko egin alde egin ebalako ardi batek legez bere Jaun ta arzain amorosuaganik. *Erravi sicut ovis, quae periit*.

I. Beraz asko dira damu itxura ta estalkijakaz konfesetan dirianak, damu sendo ta indartsu baga?

E. Txito asko, ta emendi dator ainbeste kristinauren kondenazinua. Zerbait erosteko biar da diruba, baña diru legekua, benetakua, ez palso edo itxura utsekua. Zuaz merkatari bategana diru palso bategaz; urria irudin arren, ez bada urre ona, botako zaitu ordu gaistuan. Zelango kastigu parkazino bagiak ez dagoz lurreko legeetan dirugin palsuentzat? Orain bada, zelan biarra dan diru garbi edo ona zerbait erosteko, alan biarra, ta biarragua da zeruba erosteko pekatubaren damu ona, egijazkua, bide

zuzenako, ta pin piña, ez palso ta itxura utsekua; urrezkua, ez metal basto urre estalkiz legez egiña. begitanduten jakee kristinau askori malko batzuk begijetati emon baditube, golpe batzuk bularrari buru makurraz emonda esan ezkerro damu dot Jauna, guztija daguala egiña barru ta bijotza aldatu baga. Esan biar litxake onelango penitentiai Jesu Kristok fariseo dongai zirautsena. *Ai zubeke fariseo garbituten dituzubenak gañe utsez baso, edo onzijkak barruba garbitu baga, bijotzian tranpa ta lapurretak kendu baga zagozela! Sepultura zuritu ta barruba azur ustelez bestiak*. Berba ederrak gizonak engañetako, baña ez Jangoiko bijotz barruben barrija daukana. *Biurtu zaitte nigana*, dino Jangoikuak, *bijotz guztirik, baru ta malkuakaz*. Da esatia, baru ta malkuak bere urten biar dabeela bijotz konbertidu, edo ondo girauti. *Ausi egizubez zuben bijotzok, ez soñokuak*. Alan bada ez dago parkazinoerik ezpagara biurtuten Jangoikuagana bijotz guztirik.

I. Eta egon leite damu zal, zoli, ta sendo bat bijotz agor siku, ta negar bagian?

E. Bai, ta zelan egon leitian. Damurik ez daukeelako estu ta bildurrez egon oi dira arima on asko, ta bizitza gaiztoko ez gitxi ardura baga, ta damubaz konfesetan dirian uste edo eretxi betian. Zek egiten dau? Kristinau onak bildurtuten ditu Jangoikuaren jiuizjuak, betiko kondenazinuak; maite dabee Jauna, ta eldu gura leukee garbiro sakramentu altarakora. Barriz kristinau dongak ez ditu ezek bildurtuten biar legez, ez deutsee amodijorik Jangoikuari, ta ez dira estututen damubaren gañian.

I. Jauna, dino kristinau on batek, konfesetara nuanian gura neuke euki damu andi bat, ta negar egin Magdalena batek legez; baña neure bijotza dago gogorra, ezin emon dot malko bat. Zelan egon leite dolore edo damu egijazkua sentimentu geijago baga?

E. Onen konsuelorako jakin biar da dolore, edo damu modu bi diriala; bata barru barrukua, bijotzian gordia, ta agertuten ez dana sentimentu samurrakaz. Samurtasun, ta sentimentu agirikuakaz. Samurtasun, negar, ta zizpurubak urteten badabe bijotz damubaz ausiti, dira txito onak, ta estimagarriak. Alan Dabidek busti eruan bere oia negar malkoz pekatuba goguan artuta bijotzeko pena andijaz. Alan san Pedrok, Magdaleniak, ta beste kristinau on askok negar egin eben. Ikusten dira baña txito kontu andijagaz bizi, ta sarri konfesetan dirianak malko bat emon ezin dabeenak. Jakin biar da, benetako damuba daguala pekatubaren gorroto andi baten, lagunduten deustala oni propositu, edo gogo bijotz bijotzekuak ez geijago pekatu mortalian jausteko, ta alde egiteko pekatuko bide, lagun, ta ibillune urreko guztietarik; ta onelango damuba egon leite negar malko baga. Zeinbat bider munduko atsakaberik andijenetan batzuk



peniaren penaz malkorik emon ezin dabee? Ilten jakee guraso batzubei seme, asko maite ebeena. Amak emoten ditu illeta andijak, ikusten da diadar, ta arrantzaz. Barriz aitak ez dau alango sentimenturik agertuten, bere atsakaba ta semia ill jakolako damuba izanarren ain sendua zelan amarena. Kristinau birtute andiko batzuk izaten dira konfesetako unian malko bat emoten ez dabeenak, birtute txikar ta laburrekuak negar asko egin daruela. Emendi ateraten da, damubaren sendotasuna ez daguala negarretan, ta bai pekatubari jakon gorrotuaren anditasunian. Suge bat urreratubaz, zelango atsakaba, gorroto, ta igesguria malko baga bada bere? Bada pekatubari euki biar deusagu gorroto geijago.

Ona bada orain nortzuk duazan konfesetara bijotzeko damu baga. Etxian borondatez pekatutako okasino dongia daukeenak. Zetako dira oneen negarrak! Ai Jauna! esango deutsee konfesoriarri; gura neuke tentauko ezpanendu; jausi banaz pekatuban, geijago izanda ugazabaren lotsaz, ta bildurrez, aragijaren atsegiña gaiti baño. Konfesoriak dirautsa: Ezin absolbidu zinaidaz etxeti urten artian. Ez naz ostera jausiko, dino otsein neskatiliak, ausiko deusat arpegija bide dongarik barriro emoten badeust. Urteten badot etxeti, izango da zer esana, beintzat amaitu biar dot urtia. Itxiko baleust bakian, ez neuke nik pekatuturik egingo. Berba ederrak, zeintzubekez konfessore batzuk engañau oi dituben. Baña ona zer dinuan Jesu Kristok: *Begijak emoten badetsu pekatuturako bidia, atera egizu, ta oñak bazaruaz dongaro egitera, ebagi egizu. Obe da zerurra juan begi ta oin bakotxakaz, binaakaz infernura baño.* Orain bada, bazenki ugazaba, edo etxeko beste gizakumeren batek aterako deusula begi bata, edo ebagi oñen bat, egongo ziñate alango etxian? Esango zenduke emongo dala zer esan urteten badozu? Eta zure arimiak gitxiago merezi dau zure begi ta oñak baño? Ez dago bada bijotzeko damurik alde egiten ezpada pekatuko okasino urrekoti. Bardin esan biar da kanpoko etxeren baten pekatuko lagun ta okasinua daukeenakaz. Itxi gura ezpadabe sarrerria alango etxian, ez darue damurik. Fedeko dotrina Kristok irakatsija sinistuko balitz, zelan arimako salbazinua gaiti etxi ez etxe, lagun ta olgantza pekatuta eruan dabeenak, ta peligrubak urrian daukeezanak? Zelan emon ainbeste eskusa, atxakija, ta atzerapen?

Topauko ditu konfesoriak jente gazte piesta zale batzuk konsentidu ditubenak danza naastubetan akziño edo tokamentu txarrak, edo berba desonesto amoragarriak. Dirautsa, itxi biar deutsezu toki, ta debersino donga orreei, nun galdu zarian len; zuretzat danza orreek dira pekatuko okasino ezagunak; nasaituten zara; emoten deutseezu leku tokamentu edo akzinoc dongai. Orlango dibersinueta iragoten dira zure damu baga

esku estutute amorezkuak, esku ezarte tentagarriak, begirakune itxaskor ta kariñotsubak, berba samur txito peligrusuak. Eta zer ez? Eta danza ostian kale, bide ta lagun zoro nasaitzarren artian, zer iragoten ez da? Jangoikuak agertuko ditu egunen baten. Espiritu Santubak dino, *peligruba maite dabenak bertan galduko dala.* Ez deusazu sinistuten Kristori begija baño maitiago edo biarrago dan gauziari bere, larga biar jakola bada gure arimetako kaltian? Eta biarrago dira danza zantarretako olgantza edo dibersinuak begija baño? Eta ez dago peligrurik len ainbeste pekatu egin dituzun ibillera zoruetan? Illgo jatzu aragija? Egongo dira santubak legez geldí zu tentau baga albo bijetan ta esku bijetati oratuta eukiko zaituben mutil bijak? Sarna gaistoz beterik balegoz alango mutillen eskubak, gordeko ziñate alakuen eskuetan ibiltia. Eta ariman itxatsi ez ditezan pekatu mortalak len legez, ez zaitubela atzeratuko? Eta uste dozu damu dozula pekatuba, ta gorroto geijago deusazula beste gatx guztiai baño? Guzurra, guzurra, ta damurik eza.

Ez darue damurik konfesinoera alkarren gorrotuan bizi dirianak, ta gorroto benetakua kendu baga duazan konfesetara. Ona emen eskusa ederrak. Jauna, emon eustan injurija andija, ezin aztu jat, odolak irakiten deust ikusijagaz beste baga. Nok euki pazienzija? Nik gatxik egin ez neutsan; zetarako egin biar eustan niri? Damu ederra; konfesinuan bertan bere buruba garbitu, bestia akusau; aserria beragaz ekarri. *Parkatuten deusat, ez deusat gatxik opa.* Eta poztuten zinian bere kontra besteren batek zerbait esaten ebanian? Ukatuten deusazu agur ona? Emoten dozu zer esanik auzoeran tratetan ez dozulako auzo onak legez? Esan egizu egija, dirautsa konfesoriak. Damu bazendu izan dozun aserria, benganza gaisto ta gorroto bijotzekua, egongo ziñate prest eskatuteko Jangoikuari zeure arerijo ustekua gaiti, bedekinkatuko zenduke madarikatu zaitubana; ezagutuko zenduke zuri lagunak egin deusun ofensia dala ezer ez bat, zuk Jangoikuari egin deusazun ofensiaren aldian edozein pekatugaz. Alan bada doiana konfesinoera projimuari bijotz onez, ta garbijagaz parkatu baga, dua damu baga, ta arimia galdutera. Asko da esana gaurko egunerako, ta urrenguan jarraituko deusagu gei berari ziaztaubaz nortzuk geijago dongaro konfesetan dirian damu egijazkuaren paltaz. Jangoikua alabaua izan dedilla beti. Amen.



IRAKASTE VI

Nortzuk ez daruen egijazko damurik konfesinoera.

Irago dan dotrinan irakatsi genduban, nortzuk ez eruen konfesinoera biar legezko damurik; baña zelan ez luzatuteren ziaztauz ez zirian guztiak, gaurkuan egingo dogu.

Duaz bada damu egijazko baga konfesetara opizijo edo biargintza askotakuak, irabazi dongaak egin, urte osuetan ondu baga, ta biar legez konfesautzaka. Zeinbat dendera ta tratulari gitxika lapurreta zitalak egin daruezanak, edo neurri txikarragua emonaz, edo gauza txatar ta erdi galdubak ontzat saldubaz, edo biar baño goraguan? Zeinbat biargin aloger osua artu, eta neke osua artu gura ez dabeenak, jaubia begira ezpadago denporak alperrik iragoten ditubela?

Zeinbat lapurreta txikirik askorakuak egin daruez ernijetako saltzallak apurka gauza andijetara igoten dabeela? Bitartian konfesetan dira baña, zelango dolore edo damubagaz? Damu dabee geijago ezin ostuba justizijaren bildurrez. Orijo, okela, ogi, ardao ta beste jan-gauzak saldu-tian, zeinbat ostuten ez da? Jentiak bazaube, kejetan dira, ta esan darue, ez dakijela zelan konfesetan dirian. Zelan? Dongaro alango maña edo ekandu dongaak daukezanak, konzienzija diabrubari emonda. Onelango ta beste lapur ezkutuko ta agirikuak ezagututen dabee zer dan arimia galdutia gauza ta irabazte laburrak gaiti? zer dan saldutia zeruba errial, edo diru batzuk gaiti? Zelango damuba darue onelanguak? Dinot ostera, geijago ezin ostubarena. Nok kontau zeinbat lapurreta modu egiten dirian?

Orain bada, ez darue damurik konfesinoera, duazanak konfesetara biurrera, edo errestituzinuak egin baga, egin izan albadabe. O zeinbat konfesino donga alde onetarik! Beti esan darue, *egingo dot; egingo dot*. Oneei eranzun biar deutsee konfesoriak, egizu, egizu, ta absolbiduko zaitut egin daizunian. Sinistuten ete dabee parkatuten dala pekatuba, biurtu baga ostuba, edo kalte egina? Ez dot uste. Eta prestarera ona da juatia konfesinoera obligazino ain estuba kunplidu baga al dedilla, edo al dan bestian? Zakeo eritxon tratulari aberats batek konbidau eban bein Jesu maitia bere etxerako. Eta zer esan eutsan Salbagilliari? *Neure ondasun guztien erdijak emoten deutseedaz pobriai, ta ezzer kendu badentsat inori, biurtuten deusat lau bider geijago*. Eta zer eranzun eutsan Jesu Kristok? *Gaur sartu da osasuna* (arimakua) *etxe onetan*. Biurtu kenduba baño geijago, eta bere ondasun garbijetati emon ainbeste limosna? O penitente ederra? O damu sendo, negar

bagu bere obraz agertuten dana! Ez eutsan Zakeok Kristori esan, *biurtuko deutset Jauna, kendu deutseedenai, egingo ditut limosnak*, ta bai emoten deutseedaz, biurtuten deutseedaz, edo emon ta biurtu ditudaz. Alan sartu zan grazija, edo arimako osasuna bertati.

Esan baleutsa Kristori *biurtuko dot* elduten ez zala inos biurtia; euki baleu tratulari ak bijotza lotuta inoren ondasunetan, atera ezinik legez bere etxeti ostuba, edo irabazi bide dongakua, sartuko zan grazija bere ariman, ta gero Kristo bere etxian? Zein gitxi! Bada, zelan uste dabee eruan konfesinoera egijazko damuba, biurtuten ez ditubenak ostu, edo irabazi gaistuak, egin daikeela? Ze balijoko dau esatiak *biurtuko dot*, gero al daidanian, abustuban garija salduta, edo urrijan artua batuta? Ez ete dira irago abustu bat baño geijago berba ta eskintza ederrakaz? Etorrizunak, nos egingo dira etorrijak? Ez da len orrenbeste esan konfesorien onetan? Ez daukat orain zer biurtu, gastau neban ostuba... Alan jazoko da, arimia galdu, ta pobrezia geitu. Ez ete dago zer saldu biurtuteko biar dana, zatika baño ez daba bere? Ez dira Jangoikuaren aurrian iragoko ezin egiñak egijazkuak ez badira, ta ezin egin egijazkua daganian bere, biar da pekatubaren damu andi bat gogo sendo bategaz ez guzijago ezer ostuteko, ta biurtuteko ainbat lasterren aldanian. *Asko ostu, gitxi biurtu, ta pekatuba ez damutu*; alan galduten dira ainbeste arima.

Ah! Eta zeinbat kristinau bizi dirian uste dongaan, elduten diriala konfesetara damu itxura bategaz pekatubari benetako gorrotua artu baga! Oneen artekuak dira ekandu gaistuetan sarturik dagozanak konfesino baterik ta bestera ondutzaka. Eta zeinbat onelango? Topauko da andrakume aserrakor, bizi, ta kolera andiko bat, ume ta senarrari noisian bein birao gogor edo maldizinuak ezarri, ta ejenplu dongia emoten dabena etxian ta auzuetan. Konfesorik emonarren konseju on, ta penitenzajak, aurrera daruala esatiari: *Ilgo al az, itoko al az, eztanda egingo aldok, bizirik etorriko ez al az*, ta zer ez? Onelakuak, absoluzinua berba guzurrezkuakaz konfessore siniskor bati aterata, duaz komulgetara, ta artutera Jesu Kristoren aragi ederra euren miñ madarikatubetan. Onen artekuak dira, jaijegun oso ta santubetan biar debekau, edo eragotzi luziak euren maña gaistoz egin daruezanak konfesorik bein baño geijagotan agindu arren ez egiteko. Oneen artekuak dira, amarren, eta primizijak dongaro pagaurik, ta kenduba biurtu baga, konfesetan dirianak.

Oneen artekuak dira txito asko, aragijaren bizijo ezkutuetan sarturik dagozanak euren artian pensamentu loi edo zantarrak euren guraz, edo borondatez euki daruezanak; euren burubakaz egiten ditubenak eskuka, edo akzinoe ezain, zikin, ta jentil bati dongaro eretxiko leuskijuenak.



Oneen artekuak dira konfesore nasai, ta kontu gitxikuen ondoren dabilzanak estutu ez dagizan pekatuko lagun, ta okasinuak itxitera konfesore jakitun, begiratu ta Jangoikuaren bildurreko batek. Itxubak billatuten badau itxuba zuzentzalle, edo itxumultizat, bijak jausi ta banatuko dira. Dei egin gatx asko ta andijak daukazanak mediku, edo osagille gitxi jakin, ardura bagako, ta gaixuaren gustora osakarri, edo erremedijuak emongo ditubana? Da señalia, gatxak damu andirik emoten ez dabena, edo osasuna benetan gura ez dana. Alan bada billatuten ditubenak arimako gatxetan guztia iragoko dabeen konfesorik, obligauko ez ditubenak egin biar dabeena egitera, largatera okasino dongaak, ez dabee pekatubaren Jangoikozko damurik; gura dabee kargia ezarri ostera beste bat egiteko, ezarri albaleije legez konfesinoe txarrakaz.

Badira beste batzuk, edo justiziaren, edo gurasoen beldurrez itxi ebeenak tratu dongia, baita bere konfesorik absolbidu gura ezta, bota edo kendu dabeenak okasinoko pekatuba. Badirudije ondu diriala, pekatu baga geratu diriala. Baña askok ez dauke damurik, bijotza osatu ez jakelako; gordeten dabee ondo gura, edo amore gaistua borondatian. Loten emaztiak legez, ezarten ditube pensamentuko begijak euren Sodomamaitera, au da, gozatuten dira itxi eban adiskide dongiaren oniritxi edo kariño ondagarrija. Ijituko kipulak daukeez goguan Ijituti urtenda bere. Au da gordetia okasinua borondatian, ta iraun eragitia bijotzian lengo bizitza gaistuari; damurik ez eukitia, ta bai poza edo atsegiña. Ez deuta medikubak itxi gura gaixo bati ura edaaten epelduta ezpada. Bildurrak dauka gaixua edan baga; geituten jako egarri edo edan guria kalenturiaren berotasunaz; sikatuten jako miña. Gogora jatorkoz iturri batzuketako ur preskuak; borondatia iminirik dauka iturri oneetan, ta edaten dau bijotzagaz, auagaz edan ezin dabenian. Artuten deuta onek gorrotorik ur preskuari? Zein gitxi! Len edaten ebanian baño maitiako dau. Alan dira kristinau dongaro bizi izan dirian asko. Arimako mediku, edo lurreko beste atzeragarriren bategaiti, kendu dabee tratu gaistua, ez dira alkar ikusten, beintzat berba egiteko moduban; baña leengua da lujurijako ardao ordigarrija edateko egarrija; edan darue goguaz, ta bijotzaz ta borondatia leena da; bijotza osatu ez da; kendu biar jakoz borondatiari pekatuak lagun-garrijak; artu gorroto santu bat okasino dongarako izan dirian personai; bestelan ez dago damurik.

Eta zer esan, gura legez urtian bizi, ta pazkuaz baño konfesetan ez dirianen ganian? Oneek dabee pekatubaren damuba? Nundi igarri? Zek daruaz konfesinoera? Oniritxi utsak, edo txartela erakutsi biarrak. Urte guztian lo galanto ta bildur baga pekatu mortalakaz; ez ikaratu eriotziaz,

ez infernubaz. Garizuman enzun sermoe batzuk gogo andi baga. Dator konfesetako epia. Alan dabilz, zelan igaro denporia konfesino arin bategaz; komulgetan dira, artuten dabee txartela, ta urrengo urterano bakia, bizi izateko nasaitasun osuagaz leenagoko urtian legez. O zori dongako jente modubak! Zuaze, zuaze infernura edolan bere sakrilejio baga. Ez deutzazube barrerik egingo Jangoiko ondo zazaubezanari.

Beste asko jakin ta donga batzuk dagoz, konfesau baño leenago amabost egun, edo iru bat astian pekatuak egin baga dagozanak pensau dagijan konfesorik onduten asi diriala. Baña gero? Errekatxuba iragoteko bota dan zaku edo alforjia, artu darue ostera. Ez ditube urratuten pekatubak, dino elexako irakasla santu batek, ta bai arnasa artu ta atseren puska bat, gogo geijagogaz, ta ariñago ibilteko pekatuak bidian. O penitente ederrak! Ori da pekatubaren damuba. Zetako bake gaistuan ipini gura izatia zuben konzienzija? Gaur konfesinuan bularra joten, lepo makurragaz negarrez legez damu dot esaten; arik laster pekatu billa, kale ta bazterretan okasino dongen atzian.

I. Baña zetan dago geijenez damurik eza?

E. Ebaten ez dirialako sustrai dongaak; artuten ez dirialako onduteko biar legezko bidiak. Bizargin edo barberuak apañduten dau arpegija bizarra kenduta; baña egun gitxiren buruban balzituden da, jaijoten da bizarra, sustraiti atera ez zalako. Garbituten da solo bat atxurragaz lurra saratuta; baña laster beteten da bedar txarrez, sustraijak lur barruban geratu zirialako. Zelan bada jaijoko ez dira ostera ta ostera pekatubak, ebaten ez badira sustraiti? Zer? Begitandu daruala batek pekatubaren damuba gorroto artu baga pekatubaren okasinoe, ibillune, ta lagun dongai? Ezi ta eskuratu baga gaiski egitera makurtu ta obenduta daguan aragija? Munduko bulla, olganza zoro ta kaltegarrietan ibilliko dala penitente benetako bat? Au da negar egitia? Au ezagutua nor ofendidu daben, zer merezi izan, ta zer galdu eban pekatubagaz?

Benetako penitenzijak eskatuten dau, ez bakarrik alde egitia pekatubetati; baita bere bizitza on bat aurreranzian eruatia. Bizitza on batek zer eskatuten dau? Sakramentubetara sarri ta ondo prestatuak elduta; oraziño zalia izatia, korputza illdurau, edo mortifiketia, ta obra miserikordiazkuetan jardutia jagokan bestian. Ez da asko bedar txarrak kendutia soluetati; biar dira erein azi onak frutu onak artu gura badira. Zeinbat penitente dagoz kontu onegaz bizi dirianak? Zer egin darue geijenak? Konfesino iski, ta izeneko bat egin, jira ta bira pekatubaren inguruban dabilzala; jarraituten deutseela mundu, infernuko, ta aragi txarraren lege edo ekandubai; meza bat edo beste enzun debozino baga, esan itoka erro-



sarijo bat pekatubakaz bake galantian dagozala. Alan daruaz diabbrubak geldika erijotzako une, edo tranzeraño, ilten ezpadira beinguan, ezagura guztija galdu ta konkortuta. Egin darue konfesino larri, estu ta bildurrez beteriko bat; duaz sepulturara, edo lurpera, azur pekatubetan koipetubak usteldu ditezen. Eta arima gaixuak? Jesu Kristoren tribunalera, egitera konfesinoe jeneral ta bizitza guztikua diabru ta konzienzija akusadore ditubezala. Ai kristinaubak! Ez da au begitazino edo bildurtuteko geituz esaten dana. Da egija garbi bat. Orain egiten dira damu bagako konfesinuak, ta gero konfesauko dira infernuban betiko damubaz ezer aterako ez dan denporan. Pensau ondo.

IRAKASTE VII

Zelan konfesino onak eskatuten daben onduteko gogo barri, edo propositu sendoa ez geijago pekatu rik egiteko.

Ikusi dogu iru doktrinatan, zer dan pekatubaren damuba, zelanguak izan biar daben, zeintzuk dirian señaile edo bere ezaubidiak. Orain jagoku berba egitia damu oni lagundu biar deutsan onduteko propositubaren ganian.

I. Jakin gura neuke, zer dan propositu ori?

E. Da bada, pekatubaz ondo damutuba daguan kristinaubak artuten daben bijotzeko erabagitasun, ta gogo sendo bat ez geijago pekatu edo lanbere mortalik egiteko, ta alde egiteko pekatubaren peligru urreko, ta ezagunetati.

I. Egon leite egijazko damurik onelango propositu baga?

E. Ez ezelan bere. Zelan damu izan pekatuba benetan, ostera egiteko goguaz? Trentoko konzilijo santubak damubarentzat eskatuten dau, kendu biar dala pekatu egiteko borondatia. *Si voluntatem peccati excludat.* Beti da txito ona egitia propositu argi, ta banakuak; baña kristinau pekatubari gorroto deutseenak, ez dabee larritu biar, gomutau ezin badira egiten ere dituben alango propositu banako, edo damubaz gañekuak. Proposituba sarturik badago bere damu benetakuan, badabe euren desbardintasun, edo diferenzija. Damuba zuzenduten da iragoriko pekatubetara, baña proposituba etorkizunetara. Batagaz damu da egiña, bestiaz gogo ta asmua da aurrera ez egiteko. Lau errialeko baten sarturik dagoz ogeta amalau lauko; bardin balijo dabee zein batak, zein bestiak. Alan bere zidarra ez da kobria bere izatian. Baña esana esan, penkatubaren benetako damu ta gorrotua daukanak, ez dau larritu biar eruan ete eban edo ez konfesinoera egijazko ta aparteko propositurik, bada zelan ez dakijala, egoten dira aurrerako gogo onak.

I. Egon leite benetako propositurik bekaturen baten jausi leitekialako bildurraz?

E. Badau zer ikusi itaune onek. Bildur izan leite bat infernuko arerijuak goitu, ta pekaturen bat egin ez dagijan. Baña bildur oni lagundu biar deutsa esperanzako birtutiak, itxaroten dogula Jangoikuaren grazija zenez gaz goitu, edo benziduten dirian tentazinuak, ta iraun asi daben saill, edo bide onian. Ez ete deusku Jangoikuak lagundu gura? Ez dino ber berak gura dabela gure bizitza ona ta azkeneraño irautia grazijan? Zetan dago ez



irautia, ta propositurik senduenak austia? Eskatuten ez deusagulako Jangoikuari bere laguntasuna orazino bero ta gogotsubagaz; sartuten dirialako asko euren guraz pekatubaren peligru jakiñetan, nora lagunduko ez deuskun Jangoikuaren grazija pekatuturik gordeko gaituzanak. Alan bada guri jagoku alde egitia peligru ezagunetati, ta eskatutia sarri zeruko laguntasuna. Au egin ezkerro, eukiarren batek bildurra iraungo ete daben edo ez propositu on artubetan, izan leite kontrizino ona eukitia. Ona emen adi-garri batzuk.

Pelota jokuan apostetan badau norbaitek bost ezku-doko bat, bildur da galdu ez dagijan, baña badauka irabazteko gogo edo propositu sendua. Bildurrak ez dau nagituten, ta bai bizkortu egiteko irabazteko alegiña. Gerra andi baten sartu biar daben soldaduben agintari batek, badauka bildurra goitu edo benzidu ez dagijan arerijuak; baña badua irabazteko gogo edo propositu sendua; bildurrak ez dau nagituten, ta bai dendatu ta azkortuten pelietako irme ta sendo. Alan bada, nagituten ez bada kristinauba bildurragaz, ta bai animau egitera alegiña arimako arerijuak benzidu, edo goituko, eukiko dau borondate sendua ez jausteko pekatuban.

I. Zelangoak izan biar dau propositubak?

E. Izan biar dau piñ, zindo, ta ez pusuak; urten biar dau bijotzaren barruti, ta ez euki bakarrik ao ta ezpanetan. Konfesetan dan edozeñi itanduten bajako daukan onduteko gogorik? Eranzungo dau beriala, bai Jauna, badaukat. Baña zer esango deutsee askori konzienziyak ondo aztertuten bada? Ez dakijala zelan urratuko dituzan pekatubaren soka, ta katiak; zelan itxi len pekatuba eben lagun ta bidiak; ez dau animo, edo bijotzik kate orreek urratuteko. Inok pekatuturik gura ez dau bere izenaz, bai baña bere izanaz. Gura da zelanbait Jangoikua ez ofendidu, baña ez dira larga gura Jangoikuaren ofensa baga izan ezin leitezana gauzaak. Gogo ederra! Da gura izatia legez Jangoikuak eragotzi edo galerazo dituzanak bildur baga pekatu egiteko.

I. Orren biarra ete da propositubaren sendotasuna?

E. Bai, ta bardintza edo konparazino onegaz adierazoten dau san Agustinek. Artuten bada eskubetan ladrillu, edo tella ondo gogortu, ta erria, ta garbitu gero uragaz, geratuten da garbirik, ta argi egingo dau; baña ladrillu edo tellia balira egin barri, ta sutarik igaro bagiak, zeinbat geijago garbitu gura dan, ainbat eta zikiñago geratuko da eskubak loi loi egiteraño. Alan bada, arimia damubaren su baga, ta propositubaren gogortasun, eta sendotasun baga, zeinbat garbituago egin gura dan konfesinoeko iturrijan, ainbat zikiñ, ta loitubago geratuko da.

I. Esan begi bada, zelan guak izan biar dau propositubaren sendotasunak?

E. Euki biar da borondate zal, ta zoli zolija ez inos pekatu mortalik egiteko; ez aidetasun, ez adiskidetasun, ez lurreko esakizun, ta egikizun gaiti urratuteko Jangoikuaren legia. *Ni baño beste gauzarik maitiago dabena, ez da niretzat gauza*, dino Jesu Kristok. Guraso ta beste sendiai bere, gorrotu artuten ez deutseenak Jangoikuaren bideti atzeratuten dabeenian, ez dira izango Kristoren eskolako, ta jarraitzalliak. Gorrotua artuteko aginduten dabeenian Jesu Kristok, esan gura dau, ez diriala euren esanak egin biar Jangoikuaren kontra dirianian. Emendi dator, ez daukanak propositu ain sendua, nun da galduko ez litukian leenago onria, bizitzia, ta edozein ondasun Jangoikuaren grazija baño, ez daukala egijazko propositurik, ta daguala pekatu mortalian. Etorriko balitz fedieren kontrako persekuzinoe bat emon biarko genduke bizitzia, ta galdu onra, ta ondasun guztiak fedeko artikuluren bat ukatu baño leenago? Baietz dinozu. Bada fedia baisen biarra da grazija salbeetako. Ikusten zirianian len kristinau argalen batzuk tormentuben bildurrez, ta bizitzia ez galdueren eskiniten inzen-sua idoluai, edo berba dongaren bat esaten Jesu Kristoren kontra, zelan begiratuten eutseen beste kristinaubak? Deskomulgetan zituben, ta etorten baziran gero parkazino eske persekuzinua iragota, zeinbat urteko negar ta penitenzija gogorak egin biar zituben absoluzino osua artu orduko? Eta penitenzija eginik jausten baziran ostera fedia ukatutera munduko tormentuben bildurrez, zelan guztiak? Zein nekez sinistu euren negar ta parkazino eskatutia! Au da, zinuen, kristinau bere bizitzia maitiago dabena Jesu Kristo baño. Eta zer esango zan amar, edo ogei bider ukatu baleu fedia tormentuben bildurrez? Esango eben alanguak emoten zituben berbak ziriala sendo ta zalak? Ez, ta bai epel, ta indar bagiak. Orain bada, zelan esan leite diriala propositu benetako ta senduak ainbeste bider austen dirianak konfesinoe onduan? Nok sinistu prest dagozala galduera onra, bizitza, ta gauza guztiak pekatu mortal bat egin baño leenago, edozein tentazinoe edo okasinoek ezarten dituzanak persekuzino gogor baga? Zelan euki onelanguak bizitzia emoteko prestasuna onra apur bategaiti, errege ta palagu batzuk gaiti pekatuba baduaz? Zeinbat kristinau dagoz konfesoriaren onetan berba ederrak emon, ta arik laster jaten ditubezanak persekuzino andi baga, euren borondatez, ta atsegin zantar batzuk gaiti?

Batek eskatuten deusta norbaiti prestau dagijozala lau bat anega gari illa bete barru pageetako epiaz. Beteten da denporia, iragoten dira illa bi, ta atzera paguba. Juako eskatutera beste ainbeste lengua pagau baga. Eranzuten deusta, zelan sinistuko deustut ekarriko deustazuala lengua, ta orainguak? Bai, dirautsa eskaliak, guztiak ekarriko deustudaz illa biren



epian; zagoz ardura baga, gizon prestuba nas. Berba labanakaz ateraten deutzaz beste lau onega. Beteten dan epe edo plazuba, ta pagatzalle gais-tua juako diru ta gari baga eskatutera beste ainbeste gari esaten deutzala, lotsa nasala natortzu, baña ikusirik zure ontasuna, emon biar deustazuz beste lau anega, ez dot len egin dodana egingo, agindu, ta kunplidu ez; badaukadaz artzekuak ta denpora gitxiren buruban etorriko natxatzu amabi aneguen dirubaz; sinistu nagizu. Zer esango litxakio alango paga-tzalle txaarrari? Nok emon eskatuten dabena ikusi ezkerro zeinbat bider jan dituban berba emonak? Zuaz emendi ordu gaistuan, esango litxakio, ekarten ezpadeustazu laster gari eruanen paguba, egingo deutzut justizija. Alan ez da?

Pekatzabaz konfesetara duanak eskatuten deutsa Jangoiko ofendidu-bari parkazino osua. zelan konfesorik ez dakijan biotz barruban dagua-na, emoten deutsa absoluzinua sinisturik onduteko emon deutzazan ber-bai: Onduko nas, ez dot ostera pekatuak egingo, ta alde egingo dot peka-tubaren peligru, edo okasinuetati. Zuaz bakian, dino bere aldeti konfeso-riak; kontu, ez geijago pekatuak. Dator ostera konfesinoera, baña ondu baga. Alan irugarren, laugarren ta geijago biderrian dua ondu baga beti berba onak emoten dituzala. Onelanguen berba ta propositubai nok sinis-tia emon? Nok esan guzurti falso batzuk ez diriala? Alan dabilz asko jira ta bira pekatuben inguruban geruago ta dongago egiten ez badira. Txa-kurjaanak trokau, errebesau, edo kanpora ateraten ditubezanak legez, ostera jaateko ateraak. Alan dino san Pedro apostolubak. O propositu galanta! Zein ederto dinuan Dabid erregiak onelanguak gaiti. *Miñian guzuru darabille*, berba onak; baña euren bijotza ez *zuzena Jangoikuaganunzko*. Eta guzurtijak engañau leike Jangoikua?

I. Jauna, nik ondu gura neban konfesinuan berbak emoten nituzan-nian. Uste neban neroiala propositu ta borondate ona.

E. Ona zer dinuan Espiritu Santubak: *Alperrak gura dan, ta gura ez dan*. Gura dau jan, baña ez erein, ez soluan nekatu, ez laarrak kendu, ez otz-berorik irago atxurlari biargin onak legez. Alperraren jan guria ez da sendo, zindo edo piña. Alan dira kristinau asko arimako gauzeetan. Gura dabee zeruba, baña ez egin arako biar danik, ez nekerik artu. Gura dabee pekatuben parkazinua, baña ez ondu, ta parkarkazinua izateko biar dirian gauzaak egin gura. Konfesetan dirianak dongaro ezaguera osuaz, bildur-tuten dira, badazaube euren estadu gaistua ta ezaguera onegaz errazago da konfesino barri, ta damuzkuaz biurtutia Jangoikuaren grazijara. Baña ondo konfesetan dirialako begitazino ta uste txaarras duazanak komulge-tara, jaaten dabee Jangoikuaren juizijua itsu itsuban. *Bada bide bat*, dino

Espiritu Santubak, *ona dirudijana, baña azken dongia dabena*. Onak dirudijez askoren konfesinoe oso ta ezer itxi bagiak; onak alanguen komuninuak euren eretxijan, baña azkena dabee dongia; zerren santo Tomas andijak dinuanaz, propositu, ta damu egijazko baga egiten dirian konfesino, ta ondorengo komuninuak dira sakrilejijotzarrak, ezagutu daikianian bako-txak, ez daruala prestaera biar danik, ez ezagututia bera dalako pekatu barri bat.

Gauza bat bijotz onez gura danian, nekatuten da buruba ta egiten dira dilijenzija andijak jadetsi, edo alkanzateko? Zer egin ez darue ogi, edo diruba irabazi gura ditubenak? Larga daruez erri, aide, ta ezagunak; sar-tuten dira onzi baten itxaso luziak igaroteko bizitzako arriskubagaz; jaa-tekua laburra, lo gitxi ta bildurrezkua, otza ta berua aldizka txito andijak. Guenian, Indijetara elduta, ez dau an diruba pilloka aurkituten; nekatu biar dau tratu gogaitkarrietan, ta asko geratuten dira ezer irabazi baga, edo onik onenian guztia galdurik. Zek egiten dau ainbeste buruko min, ta neke artutia? Diru gura sendo, ta borondate benetakuak. Gaisotuten diria-nak artu daruez edaari mingotx, ta iguina emoten dabeenak, ta bein baño geiagotan itxi daruez aragi zatijak ebaten. Nekezaliak, zeinbat arazo ta lan ogija irabazteko? Olagizonak sutan erreten legez dabilz; lo gozo bagia, gaba ta eguna bardinak. Zeinbat izerdi? Atxurlarijak, ikatzgiñak, zeinbat zeregin neke andiko? Zek egiten dau au? Eukitiak borondate sendua ogija irabazteko. Orain bada zer da gauza biarragua? Lurreko dirubak, edo zerurako aberastasunak? Gorputzeko osasuna, edo arimakua? Emengo ogija, edo Jangoikua bera gozeetia? Zelan dira bada gizonak ain begiratu-bak euren bizi moduba aterateko, ta ain epel, nagi, ta ardura bagaak gauza ain astunian? Artuten ez dabeelako borondate edo propositu sendorik ondu, ta onian irauteko. Zer? Gure salbazinua, edo kondenazinua da ardura gitxiko gauzia? Pekatu mortal bakar bat baño egin ezpagendu bere, bizitza guztiko damu ta negarrakaz parkazinua eskatu biar genduke, dino san Agustinek. Zelan bada uste dogu propositu argal, igarokor, ta frutu onik ez dakarrenakaz alkanzau parkazinua, edo egin konfesino ona? Nundi dator barriz sinistutia, edozelango proposituba asko dala konfesi-no ona egiteko? Ezagututen ez dalako pekatubaren astuntasuna, ta zer dan konbersino, edo bijotzeko aldatute osua.

Santo Tomasek dino, pekatari bat grazijako bizitzara igarotia obra andijagua dala, zerubak, eta lurra egitia baño, ta Jangoikuarentzat gauza gatxik ezbadago bere, dirudi gure adituteko moduban, guzijao kosteetan jakola pekatuko erijotzati grazijako bizitzara aldatutia gizona, beste gauza guztiak egitia baño. Jangoikuak egin zituban gauzak bere esan, edo agin-



du utsagaz. Esan eban, egin bedi zeruba, egin bedi lurra, egin bedi argija, ta beste baga zeruba, lurra ta argija egiñak geratu zirian. Zeinbat bider dino Jangoikuak, biurtu zaite nigana bijotz guztiaz, ta gizon gogorra geratuten da pekatuban?

Jesu Kristok txito erraz biztu eikian Lazaro difuntuba; baña zeinbat demonstrazino agertu zituban biztu baño leenago? Egin eutsan orazino gogotsu ta berua Aita Eternuari; emon zituban begijetati negar malko, edo ampullubak; askatu eragin zituban difuntubaren lokaarriak; artu eban bijotzeko ikara andi batek, ta esan eutsan, *ez edozelan*, ta bai diadarragaz, *Lazaro, urten egiñu kanpora*. Onenbestegaz biztu zan Lazaro. Elexako irakasla santubak dakuse Lazaro difuntu atsituban pekatu mortalaz illda daguan arimia, zeñek emoten deutsa Kristori ikara andi bat, atera erazoten deutsaz negarrak, ta biztuteko grazijako bizitzara egiten deutsaz bere Aitari eskaari, edo erregubak. *Ipse interpellat pro peccatis nostris*.

Orain bada, nok sinistu pekatubetati konfesinoera, konfesinoeti pekatubetara, edo ekandu jarraitubetan sarturik dagozanak, biztu ta ill, ill da biztu dabiltzala, biurtuten diriala egijaz Jangoikuagana euren konfesino ondu bageetan? Zer? Kristinaubaren arimia izango da ostatu edegi bat gaur gaiskina artuteko, ta bijar Jangoikua; etzi ostera diabruba, ta arik laster Jangoikua, diabruba ta Jangoikua urte guzti ta osuetan aldizka dabiltzala? San Agustinek dino, propositu ezda baidako, gaixo, argal ta indar bagiak, edo bateti bestera dabillen borondateti urtenak, ez diriala penitente egijazkuarenak; biar dala gura izan sendo, ta osoro. *Velle fortiter et integre*: biar diriala urratu eragozpen, ta katia guztiak, urtengo badau diabrubaren karzela, edo presondegiti.

I. Ah Jauna! Gizona jauskorra argala ta arerijoz ingiratuba da. Gura izana gaiti, propositu sendua artuarren, biurtu leite pekatu.

E. Egija bategaz estaldu gura leukeez kristinau askok euren pekatu ta konfesino dongaak. Gizona argala da; baña Jangoikuaren grazijan jarri darian konfesino onagaz, ta alde egiten badau pekatubaren okasinuetati, zelango indarrak artu ez daruaz arimiak arenjuak goitu, edo benziduteko? Zelan kristinau eurenaz argal askok, irauten dabee bizitza onian, ta egin obra on asko? Indartuten ditubalako Jangoikuaren grazijak, ta grazija artu ebena geituteko, egin daruezalako gauza on asko. Baña zer egiten dabee propositu argalakaz konfesetan dirianak? Egin biarrian alegiña irauteko bide onian, ebagi biarrian pasino dongeen sustraijak, egin biarrian orazino jarraituba ostera pekatuban jausi ez ditezan, bizi dira nasai ta ardura baga munduko atseginen ondoren arerijo donga oni bildurrik artu baga. Len legez duaz bulla guztietara; lengo adiskide, konbersazino, ta ibillune-

tara. Jesu Kristok amorez artu zituban pekatarijai emon eruaken enkar-guba zan, ez ostera pekatu rik egiteko. *Noli amplius peccare*. Ta gatx andijetati librau eban bati esan eutsan, *ez geijago pekatu rik egin, gauza dongaroren bat jazo ez dakizun*.

I. Zeintzuk dira bada propositu egijazkuaren ezaubide, igargarri, edo señaliak?

E. Ona onen onena: aurrera eruatia bizitza ona, ta ondo bizi izateko artutia bitarteko senduak. *Euren frutubetatek ezagutuko dituzu*, dino Kristok. Nundik dazaugu arbolia ona edo txatarra dan? Arbola onak dakaz fruta onak; txatarrak, txatarrak. Konfesino asko egiten dira, urte bata bestia dirudi. Zer esan bada frutu ain dongaak ikusirik? Propositu palso edo guzurrezko asko dagozala.

Propositu onaren señaliak dira konfesino onduan, ta geruagoko denporetan bere, egotia beti ikara santu baten; gau ta egun Dabidek legez negarrakaz arimako bazkari ta afarija billatutia; lotsatu, ta buruz bera legez ibiltia Jangoikuaren aurrian, bere pekatuben ezaintasuna ikusita fedeko begijakaz; damu emotia besteen pekatubak; emon gura izatia Jau-naren justizijari bere dongaro egiñen satisfakzinua; konfesore jakitun bat artutia bere esanak kontuz egiteko; sarri konfesau, jarraitu gogoz orazinuari; gorputza ezi zelanbait bere erro gaisto, ta indar dongarakuak kenduteko; eruatia, Jangoikuaren amorez, izaten dituban atsakabiak; pekatu txikinetan ez jausteko arduria, ta jausten danetan, jagitia beriala damuba artubaz, ta penitenzijatxuren bat bere burubari emonaz; Jangoikuaren amorian aurreratu gura sendua, ta sugiaren arpegiti legez iges egitia pekatuko okasiño, lagun ta bideetarik. Ona frutu onak.

I. Zer egin biar dau seña le txaarreko propositubakaz konfesau danak salbau gura badau?

E. Egin, konfesino dongeen señaliak daukezanen barristazino, edo konfesino jeneral garbi ta damuzko bat, ta aurrerakuan eruan bizitza frutu onak dakarzana. Alan izan dedilla. Bai arren bai.



IRAKASTE VIII

*Zelan benetako proposituba dan guztiz gatxa alan osasunian,
zelan erijotzako egunetan, ekandu dongeetan sarturik dagozanetan.*

Irakatsi dogu irago dan dotrinan, zer dan proposituba, ta nundi igarriko dan bere sendotasun edo argaltasuna. Baña dakuskun orain, zein gauza gatxa da bizijo edo ekandu dongetan sarturik dagozanentzat.

I. Nundi dator kristinau asko egotia bildur baga euren pekatuben artian, edo bizitza donga ta guzti?

E. Dator begitanduten jakeelako konfesino on bategaz nos edo nos alkanzauko dabeela pekatu guztien parkazinua, ezagutu biarrian geruago ta gatxago egingo jakeela bijotza onera jiretia. Baña, zein zorakerija andija! Nor da bere bizitziaren jaube? Nok daukaz eriotzako giltzak? Jangoikuak. Nok neurtuta imini ditu gure egunak? Nori emoten deutsa kontu Jaunak nos izango dan bizitziaren azkena? Eta artuten bagaitu eriotziak uste bagaan onduteko asmo soill, ta zoruakaz? Salbauko gaitube gero onduteko gogo edo propositubak? Datorren urtian batuko dan garijagaz jango da aurten? Infernuba beterik dago propositu onez, dino san Bernardok. Kristinau gitxi dira Judas legez ernegau ta galdu dirianak betiko. Geijenak kondenetan dira salbeetako ustiaz. Espiritu Santubak estalki baga dino, gaistuen egunak laburtuko diriala, gabaz, lapurra legez, etorriko dala eriotzia. Beraz luzabide zoruakaz, ta pekatubak pekatubei geitubaz, iminten dabee kristinaubak arimia iños penitenzijarik ez egiteko arrisku ezagunian.

I. Baña osasuna, ta entendimentuko argitasuna euki ezkerro edonos birau leiteke pekatarija, ta zelan guztiak ilten ez dirian begingoan, uste dot salbauko nasala.

E. Errazoe zorua baño dongagua da ori. Osasun onak ez dau berez emoten penitenzija, ta bai geijenez atzeratu gizonen gaistakerijaz. Barriz, nok esan deutsu gero nos nai zeuri otu, edo antojetan jatzun orduban, gura dot esan ta beste baga, arimia aldatuko dala beinguan pekatuak grazijara? Konbersinoe egiazkua ez da gure alegin utsakaz egiten; biar deusku Jangoikuak lagundu bere miserikordijako auxilijo, edo lagungarri santubakaz. Zelan ateraten ditugu kontubak? Itxaran dagijala Jangoikuak ordu onian gu pekatuz aspertu artian. Gogait egin daigunian bera ofendietaz, mundubak ezertako gura ez gaitubanian, datorrela Jauna geure billa, ta gura ta ez legez eruan gagizala beragana. Deituten gaitu orain; gortuten gatxakoz; baña

geuk gura dogunian, artu gagizula, obligauta balego legez gure esanak egitera, ta ez guk beriak. O itsutasun ezin andijagua!

Erdu ona. Ekanduta ez daguan bat erlojubak egitera, obligau gura bazendu beingo baten egin dagizula bat, zer eranzungo leuskezu? Ikasi ezdabela biargintza gatx ori. Bada zelan beinguan ta nos nai egingo ditu akto kontrinoeko bijotzekuak egitera ekanduta ez daguanak? Baña daigun ez zaitubala Jangoikuak largaten zeure borondate dongiaren atzamarretan; gero ta gero bere deituten zaituzala bere grazija edo lagungarri bizkorakaz, bakerik aurkituten ez dozula zeure pekatubetan. Jarraituko deutsazu bere deijari? Elduko zara bere besuetara pekatuben damu andi bategaz? Ah, ta zelan bildur izateko dan gogortuko zariala, ikusi gurako ez dozula argi santuba, ta ilgo zariala pekatuban konbertietako propositu argalakaz! Ez orain ez orain, eranzungo deutsazu, bai gero. Eta gero au nos elduko da? Geruago ta gogorrigo egingo zara; baketuko zara konzientziaz arragaz, ta iges eginik Jangoikuaren argituk, ibilliko zara pekatuben illunpian, ta joko dozu infernuko lezara, nundi urtengo ez dozun.

Gura dituzu enzun bardintza batzuk? Ona bada. Sutegiti atera barrija dan burdina samur ta biguna dago; mallukiagaz edozein itxura artu eragiten jako. Baña gerora oztu ezkerro, gogortuten da, ta mallukari gaisuak ezin dau besterik ezpada nekatu buruba alperrik. Pekatuban barrijak dirianak bildur errazak dira geijenez; ekarri deitekez gauza onetara orrenbeste neke baga. Baña pekatubetan zaartu dirianak, bekatuba egin danian etxeke, edo ekanduba, alango moduz gogortuten dira, eze galdu darue geijenez Jangoikuaren gauzeetarako gogua, ta artu daruezan onduteko propositubak dira falso, guzurrezko edo itxura utsekuak. Ortuba jaon edo zainduten daguan txakurtzarrak, badakus urrineti bere, ez dazaubana, asiko jako zaunkaz, ta gura leuke agiñen artian euki; baña etxekua bada, ta ezagun egin bada kanpokuaz bere, sarri etxian ikusi dabelako, ez deutsa gatxik egiten, ta bai pozkarijak. Alan bada, lenengo pekatubetan konzientziaz egiten deutsee zaunka, ez dau bakerik arkituten, konfesau biar dot beriala, dino arimiak; txikituten dau buruba negarrez. Baña pekatubakaz ezagun, adiskide, ta etxekotu dana, dabill gero piestan pekatubakaz.

I. Beraz guztiz gatxa da osoz ondutia dongara ekandurik daguana?

E. Zelan bere dan. Surauts, edo tabakua artutera ekanduta daguana, txito gatx egiten jako ez artutia. Berez tabakua artuteko oben edo inklinazinoerik ez dogu. Askok dira artu gura ez dabeenak, ta gorroto bere deutseenak; lenenguetan ez dau atsegiñik emoten, ta erraz itxiko litxakio. Baña artutera ekandu dana, urte osuetan surrak autstu ditubanak, nekez itxiko dau, ta egun baten palta bajako, bijotz triste edo illunagaz ibilliko



da beti bere tabakera ta tabakua goguan ditubala. Nok esan lei, ezpagenkuz, ain gatxa dala kendutia ekandu au, ta zeñetarako beste aldeti ez dakargun jatorriz inklinazinoerik? Orain bada, zeinbat atzerabide, ta eragozgarri izango ez ditu gizonak kenduteko aragijaren bizijo itxaskor ta naturalera dongatuti datorrena atara emona bada? Zelan erraz ezi, edo bezau aragi pekatubagaz uzutuba? Zelan lotu begi oitu, edo ekandu dirianak ikustera amore gaistoz adiskide pekatukuak? Zelan egongo dira ixillik nosian bein berba zantarrak esatera egin dirian ezpan, ta miñak? Zelan artu gorrotua, ta betiko agurra egin len ain maite izan dituban danza naastu, ta okerrai? Zelan euki geldi oratute ta tokamentu loijetara ekandu dirian eskubak? Pasiño txar bat itotia ain gauza gatxa bada, zelan goitu edo benzidu sentidu guztijetan artu dirian usadijo edo ekandu dongaak? zelan arpegi emon ainbeste arerijori?

I. Jauna, badira orretarako bitarteko onak, zelan dirian orazinua, liburubak irakurtia, gorputzari indarrak kendutia, ta alan beste batzuk?

E. Bai; baña pekatubetara ekandu dan arimiak ez dau geienez gogo ta gozorik orazino bero, ta negarrezko eskarijetara; gorroto oi deuta penitenzijari; liburu onak edo irakurriko ez ditu, edo irakurriko ditu ezin bestez. Alan aurkituten da arimia abere bat eginda gauza on guztietarako atzeratuba, bakarrik daukala atsegiña aragijaren gusto zikiñetan, pekatuben pisubaz obendu ta makurtuba, begijak zerura gogoz jasoten ez dituzala. Zelanguak izango dira bada onelanguen propositu ta konfesinuak?

I. Dirudi ez daguala zer eranzun errazoe ain argijetara; baña bada-kuskuz pekatubetara ekandubak bere denpora apur baten zerbait ondubak; pazkuaz konfesau, misinoe bat enzun, ejerzizijo batzuben eginda, egon oi dira bizitza on bat daruelako estalkijaz.

E. Ondo dinozu; badirudije zerbait ondubak, baña ez dira dirudijen guztiak ariman obiaguak. Ez daruez atera pekatuben sustraijak; ez ebagi ondoti arbola txarra ta bai adarren batzuk inausi. Egun gitxiren barruban ikusiko dira erro barriak, janziko da arbolia adar andi ta senduakaz. Bide luzeren baten sartu danak, atseren biar dau zerbait, ta atseren au ez da bidia largatia, ta bai indar ta arnasa artutia aurrera ibilteko gogo barri-jagaz. Alan bada dakuskuz pekatari zaartu asko garizuma. ejerzizijo ondo, ta misinoe osteko egunetan buruz bera legez, pekatuko bidian aurrera ez duazala; baña ez beinguan sinistu itxi deutseela guztiz pekatuko bidiani; arnasa artu darue, atsereten dagoz, ta jagiko dira laster jarraituteko gogo barri ta senduaz lengo bide dongiari. Amabost bat egunian pekatuak egin baga, gogait legez egin dabeelako pekatuko bidian, *lassati suntus in via iniquitatis*, ta gero urte guztija Jangoikua ofendietan. O negar egiteko gauzial

Eta zer jazoko jakee? Indartuko dira pasiño gaistuak, gogortuko da bijotza, ta geruago ta gatxago Jangoikuagana biurtuteko propositu, edo gogo egijazkua.

I. Gura neukez enzun bardintza, edo konparaziño onen gañekuak?

E. Ona emen. Seintxu edo jente gaztiak txito erraz, ta ederto ikasi darue berbeetia, dala erdera, da euskera. Gaztelati badator euskal errira lau edo bost urteko mutiltxu bat laster ta geuk legez ikasiko dau euskaria, ta aztuko jako ikasi eban erderia, baserri baten azten bada. Baña badator berrogei urteko gizon bat, biarko dau denpora luzia ikasteko, ta ikasten dabena bere, ez ondo; beti izango da ezaguna. Miña egiten da molda gatxa. Landaratu guztiak oker badatoz, zuzen errazak dira, baña arbola lurrian mardotu edo loditubak, nok zuzendu okertubak badagoz? Errekatxu bat igarotia erraza da, baña ez ujolak jagi badira. Zelan bada zuzendu konfesinuak biar daben propositu sendora urte osuetan pekatubetan gogortu ta sustraitu dirianak? Zelan ikasi ta artu birtuteko bidia pekatubetan zaartu dirianak? Zelan igaro erre penitenzijako ibaija pekatuben ujolandiak jagi badira?

Bai bai; pekatubaren ultze sartu barrija atera leite erraz, baña ez pekatubakaz mallukatu badozu, dino san Juan Krisostomok. Pekatu egin barri bat konfesetan lotsatuten dira asko, baña zelangua izango ez da lotsiaren indarra konfesino donga asko egin badira bildurrez estalduta? Nok atera ultze ain mallukatuba? Len asko zan pekatuba bera agertutia konfesoriarri; baña gero esan biar dira pekatuba bera, ta au ez agertubagaz egin dirian konfesiño donga guztijak. Maldizino edo birao astunak asieran kendutia, etzan gauza orren gatxa; baña euretara ekandu dirianak, ez dabee beste dotrinarik euren esturasunetan, ta urten daruakez aotik zelan ez dakijela. Gauza ostuba lenenguan biurtutia ez zan orren gauza gatxa, baña etxekotu, ta aragitu bada, nok atera untze ain gogortu ta sartuba? Alan beste bizijuetan; batez bere amore loi bat urratuteko. Zelan luzatu bada, atera? Zelan bigundu alango bijotza amore gaistoti Jangoikuaren amore ederrera? Ez milagro andi baga.

I. Baña guzur andija da, diabrubak kristinau askori siniserazoten deutseena, au da, gerora aldatuko jakeela bijotza onerako, propositu senduak egingo ditubezala aragija makaldu, ta indarbagatu dedinian?

E. Bai bai, ta zelan dan guzur galanta. Ona zer dinuan Jeremias profeta santubaren aoz guzurrik esan ezin daikian Jangoiko ber berak. Gatxa itxatsirik daukana, nos osatuko da? Nos largako deuta dongaro egitiati? Etiopie baltzak narruba edo azala zuritu, ta aldatuten dabenian, edo leopardo edo arriak aldatuten ditubanian bere kolore, edo mantxak. Mauru



baltzari zelan zuritu bere arpegija milla uregaz bere? Katu nabar bat zelan zuritu? Ez Jangoikuaren milagro andi бага. Orra bada zein gauza gatxa dan zuritutia pekatu asko, ta ekandukuakaz balzitu dan arimia. Biar da Jangoikuaren mirari andi bat, ta mirari edo milagruak gutxijenak dira. O itsutasun ezin esan bestekua! Beste gauza guztietan ezagututen da asieran erraza dana, gatxa dala geruaguan. Gorputzeko gaxtetan esan oi da adiuntzaz, edo asieran datozala ondo osagarri, edo erremedijsak; belu datoza-la, gatxak indarrak artu baditu. *Iru soka alkarregaz biurtubak, nekez eteten dira*, dino Espiritu Santubak. Zeinbat nekezago amar edo amabi orapillotubak? Zeinbat gatxago izango da pekatu askoren orapillo lodi bat urrutitia? *Gaztiak* (geijenez) *ez deitsa zaartuta bere itxiko bere bidiani*, au dino Espiritu Santubak. Gaztetan uste da zartzako egunetan artuko dala birtuteko bidia, ta zaarturik dagozan asko dabilz nasaitasunak alabetan. Baña zer izango da? Azeri gasito onek beti darabile aldian antza, ta zarrago ta geijago. Ezpadabilz eskuka lojjetan, esango ditube berba zantar, ta arima askoren ondagarriak; ezpaduaz danza naastu edo peligrisuetara, gaztiai emongo deutsee aurrerabidia jua ditezen. Buru ule murrutu, edo zuritubaz eukiko ditube bijotz ta ezpan porruba baño berdiaguak.

I. Jauna, ez neban sinistuko orren gauza gatxa zala Jangoikuagana propositu senduagaz biurtutia jausi ta jagi, ta bizijo dongeetan sarturik dagozanak.

E. Ona bada sinisgarri barri batzuk. Eldu zan bein Jesu Kristogana txito estu, ta larri gizon bat, zeñek eukan bere semia Gaiskiñakaz, ta dirautsa, Jauna, eruan deutset seme au zure diszipulubai osatu dagiden, ta euren konjuru guztijakaz ez dabee ezer egin; sendo dagoz espiritu dongaak, ta ez dabe urten gura izan. Erdu ona, esan eutsan Jesu Kristok. Nosti onakua dau gatx ori? Noskuak ditu beregaz Gaiskiñak? Umetati onakuak, Jauna, eranzun eutsan gizonak. *Ab indantia*. Zetarako egin eutsan Kristok itaune a, berak beekijan guztija? Ezagutu eragiteko gatx zaarrak ez diriala osatuten edozelan; biar dala Jesu Kristoren konjuruba; biar dala milagro andi bat. Itanduten bajake konfesetara datozen batzubei, noskua dozu berba zantarrak esateko ekanduba? Noskua pensamentu ezañetan gozatuteko oituria? Nosti onakuak zikinkerijako beste pekatubak? Eranzun leike egija esatera, umetati asi ziriala eskola donga atan. gero zerbait azita bere, jarraitu eutseela ekandu donga umetako egunetan artubari, ta buruko uliak beste pekatu egin dabeela pensamentuz, berbaz, ta eskuz. O zein zaarra, ta txaarra gatx au! Zelan beinguan osatu? Zelan artu gogo senduak birtutia maite izateko, ta pekatubari gorroto? Askoe ete dira sermoe, ta konfesoren konjuru, edo konsejubak? Arrizkuak dira alan-

guen bijotzak, diabrubak jaubetasun edo posesino luzia dauka, ta Jesu Kristok mirari andi bat ez egitera, bijotza lengua izango da, ta iraungo dau borondatiak aldatu бага erijotzaraño.

Baña ona Ebanjelijoko bigarren ejenplu bildurgarrijagua. Gizon bat librau zan infernuko Gaiskin loi edo zikiñeti. Ikusi zanian arerijo loi ta donga a bere etxeti kanpuan, ebillen basamortuan atseren ta bakerik artu ezinda. Dino alango baten, biurtuko nas urten neban etxera. Biurtu zan; baña zelan topadu eban grazijaz apainduba, ez eban sarrerarik izan. Zer asmau eban? Juan zan lagun billa, ekarri zituban beragaz bera baño dongago zirian beste zazpi Gaiskin edo infernuko Espiritu. Ekin eutseen guztijak gizon ari, goitu edo benzidu eben, eragin eutsen pekatu, ta galduearazoz grazija, sartu zirian zortzirak gizon triste aren barruban, ta geratu zan lenenguan baño dongago; len infernuko bategaz, ta bigarren pekatu aldirian, zortzigaz. Zelan arik atera zortzi Gaiskinak? Nun da gure fedia? Oneek ete dira ipuin engañetako asmaubak? Ez, ta bai Kristoren esanak. Zelan geratuko da pekatuban daguan arimia urte osuetako konfesinoe, ta pekatuben nastiakaz? Zelan sendotuko ez dira infernukuak? Zelan gogortu ez irauteko eurentzat daukeen etxian? Ah ta zelan dan guzur andija baño andijagua, geruago ta errazago dala propositu senduak artu, ta Jangoikuagana biurtutia! Pekatubak pekatubari geitubaz egiten da kate lodi ta senduagua. Ta erraz izango da kate au urrutitia? Geruago ta borondatia gogorrigo, Jangoikua aserriago, ta infernukua indartsubago.

Baña ez da ixillik igarotekua San Jeronimok dakarren jazoera au. Eguan bein Arsenio eritxon eremutar santuba baso bateko kobao, edo lezan. Agertu jakon aingeru bat ta esan eutsan, Arsenio, urten egizu kanpora, ta erakutsiko deusut gizonakaz jazoten dana. Urten, ta ikusi eban gizon bat basuan egurra ebagi, ta kargia egiten. Kargia zan legez andijegija, egin arren alegina lepora jasoteko, ezin eban jaso. Ezarri eutsazan egur barriak lenguak gitxitu biarrian; dendatuten zan osteralepora jasoteko, baña alperrik.

Eguan Arsenio zurtuta esaten ebala; gizonaren zorua! Jaso ezin daben egur kargiari ezarriko leuskioz egur barriak? Geitu, astundu geijago, ta tematu gero jasoten kargia? Ez ezauban Arseniok, zer adierazoz gura eben ekusan gauza ak, ta esan eutsan aingerubak: Au da gizonen itxumendi ta zorakerija. Dabilz infernurako kargak egiten pekatubakaz, batzuk lujurijako basuan, beste batzuk inoren ondasunetakuan; asko, onra txarra deritxonian. Nekatuten dira jaso ezinik kargatza gaistua. Zer egin darue? Azi kargia, astundu, pekatu barriak lenguai ezarririk. Amarri ogei, ogeiri berrogei. O zelango kargia! Zein astuna! Indarrak gitxitu, ta geitu



kargia? Zelan erraz jaso? Ikaratuten da kristinau bat konfesetan pentsamentu zantar konsentidu, edo leku-emon. Zelango larritasunak artuko ez dau geitu badeutsaz gurari edo deseo borondatezko, ta ezañak? Zelan koloriak gorrituko ez jakoz, igaro bada bere burubagaz egitera eskuka zikiñ, ta aragijari atsegin zantarra emotekuak? Zelan erraz konfesau, gero amore gaistuan sartu bada, ta egin baditu bera bere lotsatuten dabeen akzinoe ezañak? Larrituko da, baña kezka guztiakaz bere, gordeko ditu pekatubak, agertuko ez ditu biar legez, ta lotsiaren lotsaz konfesau ezinda, juango da infernura probetxu bagako konfesino osua an egitera. Bai, dino san Buenabenturak, lenenguan osatuten erraza zan gatxa, ta osatu gura ezaz dator kangrena, edo aragijaren usteltasuna, zelan osatu mirari andi baga? Jakin ta sinistu bada adi onez, edo lenengoti biar dala artu propositu sendua, oni iraun eragin biar jakola; ez gerorako larga.

IRAKASTE IX

Zelan benetako propositurik ez daruen konfesinoera okasino donga, urreko, ta borondatezkeuan sarturik dagozanak.

I. Zeren gañian izango da gaurko dotrinia?

E. Gauza premiña andiko baten gañian, ta da, adierazotia ez daguala benetako ondugura, edo propositurik larga nai ezpadira pekatubaren okasiño jakin, urreko, ta borondatezkuak; ta emendi aterako bere da, zegaiti egiten dirian konfesino donga asko, ta irauten dabeen ain gitxik artu dabeen on izateko goguan, bada euki biar da ondo konfesetako, borondate zal, ta sendo bat, kenduteko ekandu dongak, ta largateko pekatubaren okasino ezagun, ta urrekuak.

I. Zer adituten da pekatubaren okasiño ezagunaren izenez?

E. Adietan da pekatua daruan gauzaren bat, dala bere naturaleziaren indarrez, dala darraikon lagungarri edo zirkunstanzijaren bategaiti.

I. Gura neuke argiroago azaldau, edo esplikau dagidan esan dabena.

E. Enzuzu bada. Okasino donga batzuk izatia ezagun, urreko, ta borondatezkuak euren indarrez, dator daukeelako arrisku edo peligru jakiña zeñean jarri ezkeru, ezagutu biar dan galduko dala geienez. Onelan liburu desonesto, ta kontu zantarretakuak irakurtia premina baga, ta gatzia edo gazte modukuak, da bide ezagun ta urrekua pekatu loirako, bada alango irakurlerik geijenak galduko lirite. Onelan beste gauza ta ibilune asko gero esango dogun legez. Beste okasino, edo jausgarri batzuk dira euren ez dabeenak gatxerako indarrik, baña lagungarri edo zirkunstanzijaren bate-gaiti dongaak urten daruenak. Kale batera juatia, auzo etxian sartutia, berez gauza txarra ez da; baña kale edo etxe aetan badagoz tentatzalle gaistuak, edo lengo adiskide pekatuzkuak, izango litzate okasino benetakua alango lekubetara juatia. Bardin, beste bategaz berba egitia pekatu ez da berez; baña berba egitera badua jakinik emongo deusala pekatuako bidia, orduban berba egitera juatia da pekatuko okasinuan jartia.

Okasinua da ezagun, urreko, ta jakiña zenian sartu ezkeru, jarten da bat pekatu egiteko arriskuban aitu, edo jakitunen eretxijan, edo nok berak lenago irago jakoneti ezagutu biar dabenian. Okasino urrineko, leku gutietan dagozanetati, ezin alde egin giniai mundu onetan bizi garian artian, baña bai ezagun ta banakuetati.



Okasino donga ezagun ta urrekua izan leite, edo gurazkua, edo gura bagakua. Okasino gurazko edo borondatezkua da, zeñetati alde egitia dagan bakotxaren eskuban, ta onelanguak dira geijen geijenak. Guraezko, edo borondatiaren kontrako okasinuak dira, zeintzubeñetati alde egitia ez dagan bakotxaren eskuban, ta onelanguak dira txito gitxi. Diabrubak sare barruti alderik egin ez dagijen, asmau eragiten deutsee askori, dongaro esango dala, eskandalubak emongo diriala, onria juakola, ta alan daukaz beti katigu, edo preso grillu senduakaz. Artu biar dira alditezan bide ta neurri guztijak alde egiteko, edo kenduteko pekatuko okasino eza-guna. Daigun, etxe seme batek daukala okasino dongia neskatiilla otsein, edo serbietan bertan daganaz. Biar deutsa esan sendo oni, urten dagijala berak estalki on bategaz. Gura ezipadau onian, esan daikio mutillak bere gurasuai atera dagijela neskatiilla etxeti, bere arimia dagualako arrisku andijan etxian au dagan artian. Neskatiilliari ez jako kalterik egiten etxeti kendubaz ta bai mesede andi bat. Ze onra galduko dau etxe semiak gurasuari ainbeste esanaz? Ze guraso dago barriz estimauko ez dabena alango abisuba? Alan benetan gura balitz, okasino gitxi dira borondatezkuak ez dirianak.

Okasino batzuk dira, dino san Karlos Borromeok, oñian edo izatian dagozanak, ta beste batzubek alan ez dagozanak. Lenenguak dira, esaterako, batek eukitia bere etxian, edo beste baten bere etxian legez, pekatu laguna; serbitzari neskatiilliak etxeko ugazaba, edo besteren bategaz daukanian tratu dongia. Onelango okasinuak dira guztien artian dongeenak. Bigarren okasino modubak dira, joko moduren bat, dazaubanarentzat arik etorri jakozala birao astunak, ernegu andijak, edo larregi jokatubaz, gastetan dabela gastau ezin leikiana, bere etxia, edo besteena ondatuten dala. Da ardantegi, edo tabernia, dakijanarentzat, len jazo jakoneti, an sartu ezkerro igaroten dala ardauan, gastetan dabela etxerako biar ebana.

I. Baña pekatuak egin edo konsentidu baga egon leite okasino andi ta larga biarrekua?

E. Bai, bai. Daigun neskatiilla bat aurkituten dala serbietan etxeren baten, ta ugazaba, edo bere seme dongiak emoten deutsalpe pekatuak bidia berba gaistuakaz, eskuka zantarrakaz, ez bein edo beste, ezipada sarri. Neskatiilla onek ezer konsentidu ezipadeutsa bere, dago konsentietako peligru andi baten, ta ez dago gizon aitu esango ez dabunik, alango neskatiilla daguala peligru urrekuan ainbeste tentazino, edo esetsiren artian. Onelango neskatiilla gaisuak, dakusianian, bere arpegi astun, ta agiraka garratzakaz itxiten ez deutseele tentetiari, urten biar dau alango etxe-

ti, iminijaz konfianza osua Jangoikuagan, ta ez deutsa paltako ogija, arimia ez galduterren bide au artu dabelako.

I. Eta korputzagazko pekatuban jausi ez danak konsentiduarren pensamentu zantarrak, berba edo eskuka zikiñiak etxeko okasinuetan, zegaiti urte bair dau?

E. Au da askoren utsegite edo engaño kaltegarrija. Zer, ez dira pekatu mortalak pensamentu, ta eskuka loi konsentidubak? Bai. Bada pekatu mortaleko okasino jakin ta urrekuan daganak borondatez, ezin eruan lei absoluzinoerik, ta larga gura ez dabeenak, dagoz pekatu mortal jarraitu ta betikuan.

I. Eta neskatiilla serbitzarija jausi bada bein bakarrik korputzagazko pekatuban etxeko ugazaba, edo semiaz urten biar ete dau etxe atati?

E. Bai. Ez dago gauza gogorrik arimako salbazinua juakun gauzeetan. Etxian sartuta laster emon baleutsa ugazabak zurra andi bat, ez leuke iges egingo laster? Ez leuke esango beregango, onelan bein eskubak ezarri ta banatu nabena, zer egingo ez deust gero? Urten bada beriala alango etxeti; bigarren pekatuba errazago egiten da. Pekatuko etxeko negarrrak laster liortuko dira. Tentadore len pekatu ekarri ebanak esango deutzaz milla berba laban, ta erakarriko dau ostera dongaro egitera, ta bata ta bestia dagoz peligru ezagutuban amore itxura iragoteko onra ta arimari begiratu baga. Alan ezin absolbidu lei konfesorik etxeti urten gura ezipadau.

I. Zelan bada ikusten dira konfesau ta komulgetan okasino dongee-tan sarturik dagozanak?

E. Au dator, edo konfesorien paltaz, edo konfesetara duanaren malizija, edo okertasunez. Konfesorik badabil aringa, ta ondo aztertu baga pekatubaren iturri, edo sustraijak, ez dau ezagutuko gatxa azaleti baño; zerren alango penitenterik geijenetan, ez da aurkituko zinzotasun, edo zuzen gauzaak esaterik. Zer egin darue onelango askok? Akusetan dira zelan egin edo konsentidu ditubezan eskuka zantarrak, akzinoe zikinak, edo pekatu aragizkuak, baña estaldu darue noskua dabean ekandu dongaa, zelan len bere konfesorik estutu zitubezan istera okasinuak; ez darue agertu etxian, auzuan, edo beste lekuren baten dukeela okasinoe jarraituba. Konfesorik itanduten ezipadeutsee nos artu eben adiskidetasun dongia, etxian, auzuan, edo beste leku jakiñen baten daukeen okasinua, berba onakaz absolbiduko dituz; geratuko dira oñian ekandu txarrrak, etxeko okasinua, ta osatu biarran arimia, geratuko da len baño gatxu senduagaz, geitubaz sakrilejiuak konfesino ta komunino dongaak eginik.



I. Baña jakin gura neuke nortzubek dagozan, edo bizi dirian okasino ezagun ta dongeetan; bada gitxijenak dira euren etxeetan daukeezanak?

E. Ezin izan leite dotrina biarragorik, ta biar da ziaztu, edo emon esplikazino argi bat.

Lenengo zuzenbidia. Jangoikuak eragozten dabenian pekatu gauza-ren bat, eragozten bere dau jartia pekatu egiteko peligru ezagutuban. Alan peligruba gura dabenak, gura dau ausi Jangoikuaren legia. Geijago. Peligru ezagutuban gura dabela sartuten danak, egiten dau beste baga pekatu, gero egin ez arren pekatuba bera, zein egiteko peligruban jarri zan. Alan meza ez enzuteko peligru ezagutuban, ta borondatez jarri danak jai egunen baten, gero mezia enzun beeban bere, egin eban pekatu mortala.

Bardin okasino donga ta torpia euki dabenak etxe baten, badua ara jakin biarrian jarten dala pekatu egiteko peligruban, juanaz beste baga egin dau pekatu mortala, gero ara juanda gauza dongarik egin ezpeeban bere. Alan beste gauza askotan. *Peligruba maite dabenak, bertan galduko da*, dino Espiritu Santubak; au da, peligruban bertan dauka arimia galdutia. Eta beste leku baten dino, *alde egiten dabenak lakirijuetati, ibilliko da seguru. Qui eavet laqueos, securus erit.* Alan bada okasino donga ta ezagutuban borondatez sartutia, da pekatuba; ta sartuta egiten bada Jangoikuak debe-kauriko gauzia, da beste pekatuba, dino aita Kalataiud jesuita misionari ta beneragarriak.

Bigarren argibide, edo zuzengarrija. Gauza bat izan leite batzubentzat pekatubaren okasino urrekua, ta ez beste batzubentzat; zelan bijilijako jaanak batzubei gatx egin daruaken, ta bestiai ez. Batzuk dira jauskorruak ekandu donga izan zitubenak gaiti, ta bestiak ez.

Irugarren zuzenbidia. Okasino urreko ta borondatezkua izateko, ez da bere etxian euki biar pekatuko bide edo laguna, ez pekatu korputze-korik egitia. Bardin egon leite kanpuan, edo ibilleretan, pensamentuz, berbaz, edo akzino dongaakaz. Au onelan izanik, atera egizuz ondorengo oneek. Ezagututen dozu onelango, edo alango etxera juan zarian askotan ibilli, egin, edo konsentidu dituzula akzino edo egitada txarrak, ta esan, edo gogoz enzun berba zantarrak? Ezagututen dau beste batek urlija lagunaren berbeta, edo konseju dongaakaz len galdu dala? Oneek dira okasino urrekuak, ta ondo konfesau gura dabenak, ez dau oñik imini biar alango etxe, ta ibil-modubetan; artu biar dau gogo sendo bat ez trateetako alango personaakaz; zerren donga batek erraz dongatuten dau ondu gura dabena, ta badakus bizitza barri, ta on baten len alangua izan ez dana, milla barre ta burlagaz atzeratuko dau bide garbiti. San Pablo apostolubak enkargetan dau, kristinau lujurijosuakaz ez mai baten jaarteko.

Zelan bada iges egin biar ez da euren adiskidetasun, edo tratuti? Baña asko da gaurko. Urrenguan irakatsi dogu enparauba.



IRAKASTE X

Gauza beraren ganian beste dotrina bat.

I. Zeren ganian berba egingo dogu gaur?

E. Ontsubengo dotrinan ez luzatuteren esan bago larga genduzanen ganian, agertuteko nun dagozan pekatuko okasinuak.

I. Zer esan biar da euskal erri askotan ikusten dirian jente gazteen batzakuntzen ganian?

E. Negar egiteko gauzia. Artuak zuritu, ta linuak apaindu biar badira, batuten dira neskattilla ta mutillak. Esan daruez berba ezañak; beste batzuk lagunduten deutsee dongaro esatiari, zerbati aurreratubaz. Neskattilla zoruak egiten ditube barre gozuak; eragorzi biar leukeen gizon ta andra naustubak, ez dabee damurik artuten, ta uste dabee gazteetan gutia ondo dirudijala. Alan, askotan guzti guztiak, zar ta gaztiak beteten dira pekatuz. Zeinbat danza modu dongako? Zelango esku ezarte, ta laztanak? Ordu osuak gabaz pekatu asko egiten igarota, duaz euren etxetara illunian neskattilla ta mutillak, ta aitatu bere biar ez dira alkarren artian egin daruezan zikinkerijak, ta duaz oera pekatuz aseta. Once deituten deutsee bigirak; ikusten dira kristinau errijetan; gurasuak largaten deutsee seme alabai alango biargintzetara juaten; bai, euren zorigaistuan. Onelango toki, ta okasino dongai betiko agur bat egin gura ez deutenak, ezin absolbidu leiz Aita Santu Erromakuak bere. Esaten ezpadabe konfesinuan zelan jua, ta ibilli dirian, ta zertzuk egin dituben, dongaro konfesetan dira; esan, ta iges egin gura ezpadabe alango okasinuetati, konfesetan dira propositu bago, ta dongaro. Arimarik santeenak galduko lirate laster alango gorputza beteta balebilz bere. Zeinbat geijago bestelanguak?

I. Eta zer esan hermita ta erri albokuetako piestera duazan mutillak gaiti? Oneek badauke okasino dongarik?

E. Itaune oni eranzutia erraza da asko minduko badira bere. Ez dogu esango mundu guztijak ez dakusanik. Zetako ixillik itxi? Ze gauza on ikusten da bide orreetan? Mutil ta neskattillak zelan dabilzaz? Ze berbak esan daruez? Zeinbat esku ezarte, ta musuka gaisto? Zeinbat konbersazinoe lotsagarri? zeinbat algara gozo enzunda berba txarrak? Piestako danzetan gauza zantarrrik egingo ezpalebe bere, nok ukatu egin daruezala guztiz asko bideetan alkarregaz duazanian, ta menturaz gaba eginda, or ta emen geldituta, ta bidiaz neskattilla batzuk tabernetan mutillakaz sartuta? Santa Teresak beste birtute baleuke bere, galdu ta nasaituko lirate uda aldi baten

alango piestetara duazan neskattillak. Saltoka, brinkoka, ajui ta zanzuak egiten, eskubak alkarri emonda, botaka, bulzaka, esku ezarka, gau illun ta bide bakarretan. O euskaldun maitiak! Oneek ezpadira okasino donga ta pekatubak, nun dago munduban okasinoerik? Guzurrak dinodaz?

Ez jauna; baña ez dogu intenzino dongarik; ala da usu, alan izan dira lenguak bere. Zer? Intenzino txarrrik ez daguala pekatu mortalak egiten ibillita? Juzgauko zaitu Jesu Kristok munduko usu dongeetati? Ez, ta bai bere legiagaz. Asko dabilz? Ainbat gaistuago. Askoren pekatubak geijago aserratu darue Jangoikua, gitxirenak baño, ta ez zara infernuban gitxijago erreko, dino san Agustinek, askogaz erreko zarialako. Ebagiten ezpadira pekatuko bide ezagunak, ezin leiteke konfesinoe onik.

I. Eta itxi gura ez ditubezanak danza donga, edo modu gaistokuak bizi dira okasino urrekuan pekatu egiteko?

E. Bai; badira barriz danza onelanguak pandango, edo mutil ta neskattillak gitxi batzuben artian egin daruezanetan. Oñakaz magalak arindetia, aringa aurrera etorri ta mutil dongiak egitia demonstrazino pekatukuak, edo mobimentu asmo gaistokuak, dakusezanai bere emoten deutseenak bidia atsegin loiren bat artuteko, ta laztan emotiak baño malizija geijago erakusten dabeenak. Ez dago iñor akzinoe donga oneek librauok ditubanik pekatu mortaleti, dala emoten deutseelako pekatu bidia neskattilla danza lagunari, dala ikusten dagozanai. Onelango danzetati alde egin gura ez dabeenak, bizi dira pekatubetako okasino ezagutuban. O guraso euren etxeetan onelango bigira ta danza lotsabagiak eukiten dituzubenak! O neskattilla alango danzetara lagunduten dozubenak! Zelan konfesetan zaree?

I. Zer esan baña plaza agirijetan tanboril soñubakaz usetan dirian danza naastu, ta neskattilla mutillen artekuen gañian?

E. Oni eranzuteko asko esan biar litzate. Bakarrik dinot, danza oneek askorentzat diriala pekatubak egiteko okasino ezagunak. Sarri, ta gogoz onelango danzeetan dabilzatan jente gaztiak, dabilzala peligru urrekuan, ta arimarik onena bere galdu ta nasaituko dala urte bete baño leenago. Nosbait, gitxi gitxitan, gogo otz, ta afizino bago, lotzaz, edo aginduz, kontu andijagaz ibilteko asmoz, duanak alango danzeetara, pekatu loijari gorroto deutsala, librau leite pekatuti, ta onelanguentzat ez da izango okasino urrekua. Bein edo beste afizino amorezko bago neskattilla batek berba egitia mutil bategaz bakarrian, ta errazoe onaz, pekatu ez da. Baña afizinoz, oniritxiz, gogoz, sarri alkarregaz egon, ta berba egitia neskattilla mutillak, da amore dongia artuteko, ta gauza txarretara igarroteko okasino andija, zerren onelango okasinuetan geijenak galduten dirian.



Alan bada bardin gitxi gitxitan, gogo otzaz, asmo donga baga, pekatu loi-jari gorroto deutsala doianak danzara, ez dau agaiti pekatu beintzat mortalk egingo. Alan bere guztiz ondo egingo dau, ta Jangoikuari atsegin emongo deutsa, ez juatiaz alango danza nastubetara beintxu bere; eta guraso dongaren batek aginduko baleuskio juateko piesta leku ta alango danzeetara, ez dauka umiak obedezietako obligazinoerik. Kristinau onak baduaz danzeetara, zelan dongaai sinistu eragin jua biar ez dabeela?

Gauza gogorra, jauna, esan darue kristinau gazte askok, urte guztian egotia piesta ta danzetara jua baga. Zer esango dabee nigaiti? Zer? Gauza gogorra, arimia gordeterren orrenbeste egitia? Emongo baleutsu gurasuak ogei errialeko bat danzara ez zuazan bakotxian, edo piestara jua baga etxian egotiarren, ez ziñate etxian geratuko? Jangoiko aitarik onenak eskiniten dituz sari andijaguak bere amorez okasino urreko laster egiten dirianetati alde egiten dabeenentzat. Nok euki lei gogua, nok gorroto artu ez ibillera ta olgantza nasai, zeintzubetan egiten dirian Jangoikuaren ainbeste ofensa, ta galdu arima asko? Barre egingo deustee ez banua. Eta lotsatuko gara Jesu Kristoren diszipulu izaten? Bera bere lotsatuko da onelango lotsoor, ta bildurtijak dizipulutzat ezagututen. Larga bada lurreko legiai, askoren egite zoruai, ta bizi beti iratzarririk tentazinoko lekubetara jua baga; barriz arimako kaltiak len atera ditubezananak, bestiak baño errazoe geijagogaz.

Ez dot nik inos gauza txarrrik egin plaza danzeetan. Au da esesino, atxakija, betiko lelo, ta soñuba; au, eranzun daruena danzazaliak. Baña izan leite biar legez ez ezagututia, ez sentietia antz, edo usain dongia egonarren, zelan gaisotegi edo hospitaletan gaisuen artian dabilzananak, sentidu ez daruen usain txar edo antzik, ta bai banaka batzubetan baño ez duazanak. Erdu ona. Ez deustsazu oniritxi, edo berezko kariñorik artu danzara atera zaitubanari? Ez deustsuz inos esaten belarrira berba laban edo amorezkorik? Ez dira bein baño geijagotan irago esku estutute malizijazkuak, ta beso imurtxijak? Eta nosbait zerbait geijago? Artuten zeuntseen gorroto andirik? Esana esan, peligrasuak dira gazte guztijentzat euskal errietako danza agirikuak, ta askorentzat okasino oso, ezaguna, ta pekatu bide urrekuak.

Dongago da ibiltia bazterretan pandango ta danza ezkutuko, ta lotsagabeetan, edo konbersazino dongeetan. Kontu ederra! Eta egin lei kristinau batek ondo ez dan gauzaren bat on andijak baletoz bere dongaro egitetik? Ez-etx dino san Pablo apostolubak. O errazoe sustrai bagial Dongago da gizon bat iltia, makillaka banatutia baño. Eta makillaka banatu ginai? Dongago da ogei eskudoko bat ostutia, eskudo bat baño. Eta

ostu ginai eskudo bat pekatu baga? Zer balijoko dabee Jangoikuaren jui-zijuan apaindurija ta esesiño txarrak? Gauza on ez dirian guztijak eragotzen ditu Jangoikuak. *Gorde burubak*, dino apostolu batek, gauza txarre-irudin edo itxuria daukeen guztietati. *Ab omni specie mali abstinete*. Ez aztu bada esan doguna, ez daguala konfesino onik propositu egijazkuaren paltaz, pekatuko labanarri edo okasino ezagunetati urten gura ez bada. Au da eleixako dotrinia. Sinisten ez badogu, jentilen artian kontadubak izango gara.

I. Baña gatx egiten jakee okasino dongaak daukeezanai larga, edo urratutia?

E. Bai, bada loturik daukaz diabrubak amore zantarraren katia gogorrrakaz, ta urratu ez dagijezen ta iges ez dagijen, astunduten deutseez grillubak. Zeinbat asmazino ta atxakija emon ez darue? Ateraten badot, edo urten etxeti urtia osotu baño leenago, dongaro esango da. Agur nire onria; agur nire ogija; nun topaduko dot beste etxe, edo ugazaba bat? Nun onelango serbitzarija? Au zer da? Pekatuban barrurago sartutia, katiak astunago egitia, pekatuba edertu guria. Baña zer eranzuten deutsee Jesu Kristok? Ona bere berbak. *Baldin eskubak, edo oñak emoten badetsu arimia galduteko bidia, ebagi egizu. Begijak bazaruaz pekatuta, atera egizu. Obe da begi, esku, ta oñ bakarrakaz zeruban sartu, begi, esku ta oñ binaakaz infernuban baño*. Au da esatia, begija, eskuba, ta oña bera baño bere biarragotzat badaukazu pekatuta zaruazan persona, leku, etxe, ta beste edozein gauza, larga, bota, ta urratu dagizula. Infernura bazuaz, zek aterako zaitu? Ugazaba donga tentatzalle gorroto santu bat artu biar deustazunak? Zer onra ta onra oste? Jentia leenago ezer ez badaki, ezin ezer esan lei; badaki, bera gaiti kendu biar da zer esana. Gosia emoten dan etxeti, edo ugazaba andra ernegada, ta errierta zalia dan serbizijoti, urtetan da laster begiratu baga zer esanai. Neskatiilla otseiñak ostuteko ekanaduba badauka, botaten da arin onian. Ezin urtenak dira arimia galduteko peligrubak dagozanean. Edo larga konfesinua, ta jua infernura sakrilejiuak egin baga. Eleixa ama santiak eragotzen deutsee konfesorai emotia absoluzinua borondatezko okasino ezagutu ta dongeetan dagozanai. Baña zer egin darue alan bizi dirianak? Edo ukatu pekatubak konfesinuan, edo billatu konfesore jakiturija ta konzienzia bagiak, dino san Antonio Florenziakuak.

Jauna, dinue, juango nas len dongaro bizi nintzan etxera; baña ez dot barbarik bere egingo pekatu lagun izan dodanaz. Guzurre dinozu. Ez da propositu benetakua maite danian okasinua. Gorroto bazeuntsa pekatubari, gorroto izango zeunskio bere okasinuari. Lenengo sarreran egongo zara bildur apur bategaz; nundi edo andi agertuko da pekatu laguna. Men-



turaz au dago lengo asmo dongeetan, ta ez balego bere, begijak ez dituzu eukiko beti lurrian josirik; elduko jatzu ikusguria, ikustiak biztuko dau oniritxi, edo kariñua, jagiko da tentazinua, asiko dira irribarretxubak, begijak itxastiak, berba egitia, bakarrik geratutia, ta orra ostera katigu lenenguan baño katia gogorruguakaz.

Zelan baño igaroko nas agur edo berbarik egin baga edolan bere bidian topeetan badot len adiskide izan dodan personia? Adiskidetasun ori izan da arerijotasunik gogorrena. Gorroto bazeuntsa pekatubari, egingo zenduke benetako gorrotuan dagozan personak egin daruena; iges egin bidez bere topau ez dagijan arerijua; damuz topetan badau, edo agurrik egin ez, edo agur otz, ta motz bat eginda irago aurrera bekoki astunagaz. Au, ta geijago egin biar dabee dongaro bizi izan dirian kristinaubak; egin alegiña ez ikusteko; uste baga, topetan bada, igaro aurrera berbarik egiten geratu baga, motz motzik, ta bekoki astunategaz. Bestelan berbiak ekarriko dau ikus ta egon guria, onek biztu kariñua, ta sartuko ditu diabrubak lengo sarian, ta ez dabee beinguan iges egingo ostera atrapetan baditu.

I. Badago onen gañeko ejenplurik?

E. Bai ta ezin esan beste. Zeinbat galdu dira erijotzako une edo tranzian bertan negar andijakaz konfesau zirianak, etorri jakeelako gela, edo oe aurrera amore gaistoko laguna, ikusita beste baga bijotza samurtu, ta amoria bizturik? Zeinbat ill dira zerbait leenago laztan estuba emonik oe onduan eukan adiskide txarrari? Bildurtuten zan Herodes San Juan Bautistiaren berbaakaz; gauza on batzuk egin eruazan, baño ez itxi, ez bota etxeti Herodiana andria. Alan lotuten ditu diabrubak, sartu daruaz bere butroe barruban; badabilz jira ta bira, baño urten baga. Beti, ezin eginak, murmurazino bildurrak, ondu gura gauza ezak, propositu berbazuak; baño beti sare barruban, katigu okasino dongeen grillubetan. Igaro misinuak, egin konfesino jenerala negarrakaz; baño egun gitxi barru lengo olgantza txar, etxe, piesta ondagarri, ta lagun dongeetara. Bizarra egin, arpegija apaindu, baño laster ostera bizarrez janzi, sustraijak atera ez zirialako. Nun dira lengo negarrak? Nora propositu ain senduak zirudijenak? Nora konfesoriarri esatiak, jauna, ikusiko dau; emendi aurrera beste bat izango nas? Nora? Aise dongiak eruan ditu; diabrubak sartu ditu, zabalduarik eukan sarian. Baña norako dira azkenian pekatu zantarrez beterik? Badaruez egunak, esaten deutsee Isaias profeta santubak, *atsegin ta kontentubetan, ta beingo baten jasten dira infernura*. Azken ederra.

IRAKASTE XI

Zelanguak izan biar daben aozko konfesinuak.

I. Asko ete da pekatuben parkazinua alkanzetako bijotzeko damuba eukitia? Agertu biar ete jakoz konfesoriarri?

E. Bai, agertu biar jakoz al dedilla, ta Magdaleniaren besteko damuba ez da asko alan egiten ezpada. Ona zelan erabagiten daben Trentoko obispo jaunen batzaar edo konzilijuak. Inok esaten badau, konfesinoeko sakramentu santuba ez dala Jangoikuak aginduba, ez da bere salbeetako biarra jaunaren aginduz, izan dedilla deskomulgaduba.

I. Gauza gatxa, ta gogorra dirudi agertu biarra inok ez dakijozan pekatubak, dirian ezain, ta lotsagarrirenak bere. Esan leite gogor, edo astuna dala konfesinoeko legia.

E. Ez da alan. Jesu Kristok berak dino, bere buztarrija dala bigun, edo eruaten erraza, ta ariña kargia. Antxinako legian egozan pekatuben kastigu, arrika ilte, ta ainbeste kostetan zirian sakrifizijuak, kendu zituzan Jesu Kristok, ta imini eban konfesinua. Zer da gauza gogorragua, edo esatia ixillik, egin dan pekatuba, edo arrika illa izatia? Edo agertutia konfessore bati bakarrian abere, edo ganadu bategaz egin dan pekatuba, edo ganadubagaz beragaz erria izatia askoren aurrian?

I. Baña jakin gura neuke zelan egin biar dan pekatuben agertute, edo deklarazino osua.

E. Eranzungo deusut Trentoko konzilijo santubagaz, konfesau biar diriala esamina kontuzko baten bidez, goguan, edo konzienzijan dagozan legez, pekatu mortal guztijak euren lagungarri, zerezeldade, edo zirkunstantzija pekatu beste bat egiten dabeenakaz.

I. Beraz pekatu arin, edo benialak konfesetako obligazinoerik ez dago?

E. Alan da, baño orretarako jakin biar da ziur, pekatu beniala baño ez dala egin dan utsegite, edo paltia. Bada zenbat engañu ez dago gauza onetan? Zeinbatak daukez pekatu benial edo arintzat pekatu mortal, edo astunak dirianak? Barriz, zeinbatak bapere pekatu ez dirianak daukeez pekatu ezain, ta anditzat, ta gero lotsaz agertu ezinda kondenetan dira, sustraijan pekatu ez zirianak gaiti?

I. Esplikau begi argiro ejenplubakaz, bada bestelan ezin ondo aitu ginai?



E. Edozeñek daki, guzur txikar bat esatia, ta alan beste gauza batzuk, bakarririk dirialak pekatu arin, edo benialak. Itxiko balitu batek konfesatza ezagueraz, edo dan legez dala, ez leukiala alde onetarik konfesino dongarik egingo, dagozalako beste bide batzuk, konfesinuaz ostian, onelango pekatubak parkeetako, ta pekatu beniala ez dalako berez kondena-zinoko geija. Baña, nok esan zeinbat kristinauk daukeezan pekatu arintzat astun ta mortalak dirianak Jangoikuaren aurrian? Badira asko, pensamentu loi borondatez, gura osoz, ta ezagueraz eukijak, arintzat daukeezanak, ez badauke borondaterik, edo desiorik gauza txaarren bat egiteko. Badira beste batzuk gurari, edo desio zantar, ta borondez eukijak, arintzat daukeezanak, azaletik egiten ezbadabe gauza gaistorik. Badira bai esanarren berba ezain, zantar, lotsagarri, ta arima askoren ondagarriak, begitanduten jakeenak, ez ebeela asmo dongarik, ta barre eragoteko esaten ditubelako edergarrijaz, konfesau daruezanak, edo ez daruezanak, pekatu andiak ez balira legez. Badira, eginarren danza naastubetan eskuka tentagarrijak, edo danzati kanpora ibilliarren apa laztanga, esku ezarte lujuriosuetan, gauza txikintzat daukeezanak, ta egiten ez baditubez beste gauza ezañaguak gorputzaz, pekatu arinak legez, edo konfesau бага largaten ditubezanak, edo konfesetan baditubez, izan oi da damu бага pekatu benialtzat eukirik. Nok esan zeinbat itsutasun, edo ezjakin dagan gauza onetan? Baña ez daukee errazozko eskusarik. Prediketari da, ta konfesoriarik bere irakatsi oi dabee, egiten diriala pekatu mortalak pensamentuz, desioz, berbaz, ta obraz. Sinistuten ez badabe irakasten jakeena, dira herejen gisakuak; sinistuten badabe, ez dago eskusarik; ez da bere pekatu bildurgarrijagorik, borondatezko ez ezagutute itxuba baño. Alan egiten dira konfesino donga txito asko ezagutu gura ez dirian, ta ezagutu biar dirian pekatubak ez konfesetiarren.

Dakuskuzan banaan. Guraso asko dira txito nagi ta ardura bargaak umeen azieran, ta gitxik dazaube obligazino andi au, ta gitxik konfesau darua nagitasuna. Egiten dira irabazi bidebagiak, salduten dirianian gauzaak tranpak eginik, edo prezijuan, edo neurrijan, edo pisuban, edo ontzat, galdu edo kaltetubak dagozan gauzak; eta bizi dira konfesau бага pekatu astun oneek. Alan beste gauza askotan. Onelanguai emoten ezpa-deutse Jangoikuak argi txito andi bat ezagututeko euren itxutasuna, galdubak dira. Agaiti, gau, ta egun esan biar geunskio Dabid penitentiarik legez, *Jauna, librau nagi pekatu estaldu*, edo ezkutukuatati. Orregaitino da konseju guztiz ona agertutia konfesoriarik tentazinuak, inklinazio, ta pekatu benialtzat daukazanak bere; bada askotan jazoten da, penitentiarik

benialtzat eukazanak ezagutu ezaz, ezagututia konfesoriarik ziriala mortallak, ta alan argitutia konfesetan dana.

I. Beraz tentazino utsak konfesetako obligazinoerik ez dago?

E. Ez dago, bakotzak badazau argiro, lekurik emon ez deutsalata tentazinuari; baña txito ona da agertutia konfesoriarik, konseju santubakaz anima dedin benzidu edo goitutera, ez geijegi larritutera, ta sarijaren esperanziaz diabrubaren kontra pelietara. Kristinaurik onenak dira geijen tentadubak Gaiskiñaren aldeti; zerren dongak aurkiten ditubez euren galdubidiak lagun, ta ibillera txaarretan, edo euren borondate gaistuan. Ez alan kristinau on alde egiten dabeanak okasino txarretati, borondatia prest daukeenak Jangoikua ez ofendietako. Onelanguai infernuko arerijauk emon daruakez tentazino bizi ta portitzat alde askotarik; ta biar dabee konfesoriarik laguntasuna goitu edo benzietako tentazino gogorrik, urteteko duda andijetati; zerren diabrubak ekarri ezin dituzanian pekatubari leku emotera, larritu daruaz erdi sinistu eraginik, pekatu egin dabee-lata tentazinueta, irabaztiz urten dabeanian bere. Alan askatu bijotza konfesoriarik, ta aurkituko dau argi, ta bakia.

I. Eta batek, berez pekatu ez dana, artu badau pekatutzat, ta atan badago konfesetako denporan, konfesau biar ete dau?

E. Enzun kontuz, dalako askorentzat premiña andiko gauzia. Pekaturik ez dago ezauera, ta borondate бага, baña badira kristinau pekatubari gorroto deutseenak, artu daruezanak pekatutzat pekatu ez dirianak Jangoikuaren aurrian. Alan bere, errazoe onen bategaz kenduten ez dabeanak pekatu dalako bildur, kezka edo sinistia, biar dabee konfesau, pekatu mortaltzat daukeena. Badira kristinau errukarri batzuk Jangoikuaren kontrako gogorazino, edo pensamentu dongaren bat etorri bajake, izan bada-be aragijaren gerra, berotasun, edo arrotasunen bat, begitanduten jakeenak, egin dabee-lata pekatu andiren bat, ezagueraz, ta borondatez lekurik emon ezarren. Eta zer jazoten da gero? Begitanduten jakee, egin dabee-lata herejiazko pekatu andiren bat, fediarren kontrako gogorazino txaarren bat, etorri jakeelako; lotsatuten dira konfesetan, ixilduten dabee, ta egin daruez konfesino ta komunino dongak bide bagako bildur ta sinistia gaiti.

Etorriarren pensamenturik ezañenak Jangoikuaren ganian, edo Jesu Kristoren imajinakaz, ez dago pekaturik, ez konfesakizunik alango pensamentu edo gogorazinuai lekurik ezagueraz emoten ez jakeenian, ta gitxitan emoten jakee alango gauza ezañetan. Enzun ejenplu edo jazoera bat.

Bizi zan andrakume besteti kristinau ona zan bat txito larri ta estu, pekatu ezañen bat egin ebalako ustiaz, etorri jakolako pensamentu donga



bat Jangoikuaren kontra. Alangua izan zan bere lotsia konfesetako, konfesakizunik ez eukan gauza atan, eze egon zan urte osuetan agertu baga sari konfesau ta komulgetan zala. Eldu zan misinoe bat zorionez bizi zan errira; juan zan konfesetara misionista bategana, ta esan eutsan oni; Ai neure arimako aita! Galduba naz; daukat pekatu bat ain ezain ta lotsagarrija, zein da ezin konfesau izan dodan urte osuetan, ta orain ez daukat bijotzik berorri agertuteko. Eranzun eutsan konfesorriak: Zer pekatu izan leite niri esateko bijotzik ez dozuna? Asi jakon itanduten mandamentu guztietarik, ta ez eban ezer topetan. Eldu zan seigarren mandamentura, ta emen bere garbi eguan. Itanduten deuta guenian: Izan dozu iños Jangoikuaren kontrako pensamentu ezainik? Ai jauna! igarri deust, eranzun eutsan andrakume gaixuak zizpuru ta zotin andi bat emonda. Ori da guztia? dirautsa konfesorriak; eta egon zinizan gozatuten ezauera, ta zeure guraz gogorazino ezain orretan? Ez jauna, zirautsan andriak; larritu ta ikaratu nintzan, ta ezagutu nebanian, emon eustan atsakabe ta gorrotua alango pensamentubak. Bada txorua, dirautsa konfesorriak, ez zenduban pekatu txikarrik bere egin; ez zeunkan zer konfesau bere; baña zelan urte guzti orreetan egon zarian lotsaz konfesau baga pekatu andija zalako uste, edo sinistiaz, egin dituzu pekatu txito asko ainbeste konfesino, ta komunino dongatan. Alan atrapau eban diabrubak bestelan atrapau ez ebana.

Esana esan, ez dago pekatuik pensamenturik ezañetan, diriala Jesu Kristoren, diriala Ama Birjiniaren, diriala santu santen kontrako gauzetan, ez da bere konfesetako preminarik alango tentazinuak, ezaueraz, ta bakotxaren guraz lekuri emoten ez jakeenian, geijenez emoten ez jakeen legez. Baña egon danak konfesau ezinda, ta pekatu dalako ustiaz bildurra errazoe onagaz kendu baga, agertu biar deuta konfesorriari, zer jazo jakon, barristetako konfesino dongaro egiñak.

Ames zantarrak eukitia berez pekatu ez da, ezaueraz, ta borondatez lekuri emoten ez bajako amesetan irago dan atsegin dongiari; ta ez dago obligazinoerik konfesetako alango ames, esnatuta konsentidu ez dirianak. Bardin, ez dago pekatuik, ez konfesetako premiñarik, aragijaren arrotasun zantar borondatiak kontrakuak, edo ezaguturik gorrotua emoten dabeenak; zerren ez dago pekatuik bakotxak bere eskuban ez daukan gauzaan, ta ez dago bakotxaren eskuban, gogorazinoerik gaistuenak, ta aragijaren arrotasunik andijenak etortia. Baña egon danak pekatutzat artu ta konfesetako orduban bildurrez ezin agertuta, egin ditu konfesino dongaak zeinbat bider bildur agaz konfesau baga larga dituban, ta biar ditu barristau alan egin dituzan konfesinuak. Zegaiti itandu ez konfesorriari etorten jatzuzan dudak, ez daukazunian argi edo errazoe onik bildurra ta

ez jakiñza kenduteko? O lotsa kaltegarrija! Eta zeinbat arima daruazun infernuko laba andi ta gorira!

I. Eta konfesau biar ete dira iños emoniko tentazino, edo pekatuak bidiak lekuri emon ez jakeenian?

E. Ondo da konfesetia, baña ez dago obligazinoerik, ezagututen dabenian bakotxak ziur, lekuri emon ez deuseela. Kristinau onai bere ez deuse askok largaten tentau baga, edo berbaz, edo eskuz, edo kiñu gaisuakaz. Alango ordubetan igesa artuten bada arpegi astuna erakutsirik, edo dongaro esanda, ez dago pekatu, ez konfesakizunik; baña bai arpegi alegria erakusten bajako tentadoriari, esana gaiti epel epel, makal makal, zagoz geldirik, ta tentadoriaz egotiarri jarraituten badeutsa, zerren okasinuan borondatez daguanak, gura dau pekatuba. Nok esan zeinbat guzur esan daruezan kristinau askok konfesinuak? Jauna ez neban gura. Esan deustez mutillak berba zantarrak, egin deustez esku ezarte txar, ta lazta-nak, baña neure borondatiaren kontra.

Dakuskun. Erdu ona, zelango bidez edo okasinoez jazo jatzuz gauza orreek? Juan zinian zeu okasinua eguan lekura, edo jente nasajaren arte-ra? Izan zan mutil neskatillen arteko batzakuntza, ta olgantzetan? Zek zeruazan alango lekubetara jakinik zer irago oi dan? Eta nun nai zala, egin zeuntsee barre ta algaraz gozua berba zantarrak? Erakusten zeuntseen arpegi astun, bekoki illun, itzaltsu ta aserratuba, ta aldegiten zenduban tentadorien ondoti? Ori ez jauna; barre egin neban, olgeetan nintzan, baña esaten neutseen, egoteko geldi. Ederto. Zelan dinozu bada zeure borondatiaren kontra izan ziriala? Gura ez dituzun gauzeetan egoten zara barrez, ta algaraz? Zerbait esaten badeutsube zeure onriaren kaltian, ta zerbait ostu, egongo zinaate makal makal ta algaraz? Sugeran bat bada-kutsu urrian, egoten zara alde egin baga, eta ikutuko baleutsu erropa edo oñian, esango zeunskijo, sugia, zagoz geldi? Zein gitxi? Artuko zenduke igesa, gurako zenduke akabau, ta zapaldu bertan; larrituko ziñate ikusita beste baga. Enzun bada zer dirautsun Espiritu Santubak, *iges egizu pekatu-ti sugiaren arpegiti legez*. Zelan dinozu bada ez zendubala gura eskuka loirik ta berba desonesto edo ezañik, barrez bazagoz egin ta esaten deustube-zanen artian? Nundi dator au? Dago gura izatian, ta pekatu mortalak gorrotorik ez emotian. Alan konfesetan dira asko jente gazte txito dongaro, ondo agertu baga pekatubak, ta utsera jo eragiñaz gauza astunai.

Badira bai gorputzeko pekatu astunetan jausita bere esan daruakena konfesorriari izan zala gura baga, edo borondatiaren kontra. O konfesino ederrak! zer egin eutsun tentadore gaisuak? Lotu oñak eta eskubak? Eta ori mendi bakar baten? Alan izan balitz bere, egin biar zenduban dia-



dar zerura; dei egin Ama Birjiniari, ta zeure aingeru guardakuari. Egin zenduban alan? Munduko bildur guztiak gaiti, ezpata bat bularraren aurrian imini, ta il ez zaijezan bildurraz bere, itxiten bazeuntsa gorputza pekatubari, egingo zenduke pekatu mortala, emon biar dalako bizitzia leenago pekatu egin baño. Erri barruban balitz indar egin guria pekatu-rako, egin biar dozu diadar Susanak legez, lagunak batu, ta gordeteko buruba. Zer egingo zenduke bizitzia kendu gura baleutsube? Zelango didar, garra-si, ta buruba librau guria? Bada maitiengo dabenak gorputzeko bizitzia arimakua baño, ez da Kristoren eskolakua. Baña ai! Erregu, sari eskintza, ta utskerija batzuk gaiti egiten da pekatu, ta esaten dabe konfesetan, jauna, gura ez neban, neure goguaren kontra izan zan. Guzurra, ta konfesino dongia. Zein pekatuba guztiz ezkutau, zein estalgarriren bategaz arindu mortal izateti benialera, bardin legez da konfesino dongia egiteko.

Ona beste jazoera sarri ikusten dana. Ume denporan egiten dira bein baño geijagotan loitasunak, edo mutiltxubak neskatillatxubakaz, edo aek, ta oneek alkarregaz. Iragoten dira urtiak, gogora jatorkez azitxu eginda, edo biar bada zaartuta, zertzuk egin zituben. Jatorke lotsa andi bat konfesetako. Asi oi dira kontubak ateraten, pekatu mortalak ete zirian; ete eukeen edo ez ezauera osorik pekatu mortal izateko; sartuten dira ez da baida, edo duedeetan; geratuten dira erabagi ezinda, ta ez konfesetarren lotsa dirialako, dinue, biar bada ez zirian pekatu mortalak izango. Alan irago daruez sermoietan, zelan lotsaz konfesau ezinik kondenau zirian batzuk; larrituten dira, baño aurrera batzuk len legez arantza a atera бага. O zeinbat kristinau galdu dirian umetako pekatubak, edo pekatubak zirudijenak lotsaz agertu ez ditubezalako! Geijago kostetan jakee batzubei ume denporetako pekatubak konfesetia, azi ta malizija geijagogaz egin ditubezanak baño.

Gitxi dira ume denporan Jangoikuaren bildur dirianak; ez dira palta gaisto, malizija goiseti izan daruenak bestiai gauza okerrak irakasteko; naturalezia barriz txikarretati makurtuba dago gatxerako; ikusten ditubez edo gurasuetan, edo jente nasajetan gauza txarrak, enzuten ditubez berba desonestuak; tximino batzuk legez, egin gura dabee dakusena, ta alan egin daruez donga nagusijen kontubak; lotsatuten dira azita, ainbeste gauza loi ain txikarretati egiña, ta gero egin daruez konfesino donga asko, ezagututa konfesau, edo agertuten ez ditubelako. Ze bildur nasan asko artuko dituzala dotrina onek! Konfesau bada laster, agertu konfesoriari zuzen bakotxari irago jakona; ekarriko deusa burubari bakia, ta arimiari salbeetako bidia. Alan izan dedilla.

IRAKASTE XII

Zelan konfesinuak izan biar daben osuak, ta egijazkuak.

I. Zelanguak izan biar dau bada aozko konfesinuak?

E. Izan biar dau egijazko, ta osuak. Emendi dator, guzurren bat esatia, edo enagañetia konfesoría ezagueraz ta gauza astunian, dala sakrilejio ikaragarria, ta ez dabela parkazinorik izango alango konfesinoeti. Kontu daigun, daguala bat pekatuko okasino gaistuan bere etxeko personaren bategaz. Dino beregango konfesetan daguanak, agertuten badeutsat konfesoriarri, zelan neure etxian daukadan pekatu laguna, obligauko nau edo urtetera, edo etxeti botatera, ta absolbiduko ez nau bestelan. Bildur onegaz estalduten deusa zirkunstanziya esan biar au. Au da konfesoría engañetia gauza astunian. Badira beste batzuk, ekandu, edo usadijo dongeetan sarturik dagozanak egiteko eskuka pekatuzkuak, edo euren burubakaz, edo inogaz. Bein ta geijagotan estutu ditu konfesoría onelango bizijo dongiaren gañian. Zer egin darue? Iges beste konfesore erraz bategana, ta agertu бага lengo ekandu gaistuak, ta pekatubaren sustraija, bakarrik konfesetan deusaz konfesino atako pekatubak, ta konfesoría itanduten ezpadeusa noskua daben ekandu a, leenagoko konfesinuetan izan daben alango bizijo dongarik, artuten dabee absoluzinua, ta duaz pozik konfesoriarri tranpa andi bat sartuta. Au egin darue askok. Zer aterako dabee baño onelango tranposuak alango konfesinuetati? Zer balijoko deutsee absoluzinuak? Euren kondenazino geijagorako. Jakin biar dau konfesoría noskua dan gatxa, zaarra, edo barrija; gatx zaarrak beste osakarri edo erremedijuak biar dituzalako. Alan konfesinuetan alango pekatu-rik egin eban, dauka obligazinua agertuteko.

Ona beste tranpa, edo ezkuteta larregik egin daruena. Emoten deutsee berbia konfesoriarri egingo dabeela gauza osturen baten biurrera edo errestituzinua. Gero nagituten dira, ta ez dabee aitatuten urrengo konfesinuetan euren nagitasun, ta biurtuteko atzerapena, ta lengo konfesoría kargurik artu ez dagijuen, duaz bere barri ez dakijan konfesoríagana. Alan irago daruez urte osuak konfesino dongaak egiten, osoz konfesetan ez dirialako.

Konfesetan bere dira dongaro, egija ez agertubaz, tratulari asko, irabazi bide-bagiak egin, konzienziyak kezkatu, ta itandu gura ez duetseenak gogo onaz konfesore jakitun bati, dan edo ez garbi, ta zuzena euren irabazia. Enzuten badabe zerbait prediketari tratu okerren ganian, itoten



ditubez bijotzeko golpiak, ta konfesetan dira ezer aitatu baga, obligau ez dagizan konfessore jakintsubak biurtutera bide gaistoko irabaztiak. Onelan konfesetan dira dirubak prestau daruezanak, obligetan ditubezala artzallak biurtutera zerbait geijago; edo diruba aurreratutiarren, lotuten ditubezala nekazale gaixuak emotera merke gari edo artua, ta bardin ikatzak prezijo laburrian. Oneek dira eurenz logrerija txarrak; bada diruba pres-tetiarrren ezin obligau leikee biurtutera emona baño geijago; ez da bere aurreratutiarren diruba, obligau inor emotera merkiago gari, artu, ikatz, ez beste gauzarik.

Baña pekatu au gitxik sinistu edo ezagutu gura debee, ta gitxiagok zuzen ta osoz konfesau, ta lapur onrau, ta kastigu bagako oneek duaz euren dirubak emen largata, Judas diruzalia legez, infernura. Erraz ezagututen dira eskuz egiten dirian lapurretak; oneen kontra diadar egin darue predikadoriak baño geijago, lapur andi baño ixillaguak dirianak, ta ez dago onelanguentzat lurrian kastigurik.

Konfesetan bere dira dongaro, dirudun, ta aberats limosna txito gitxi egiten dabeanak, edo pobriak biar litukezanak alperrik gastaurik, edo gorde guriaz ta zekentasunez. Esatia, ez daguala obligazinorik limosnak egiteko, daukeenak zegaz, da Ebanjelijuaren kontrako dotrinia. Aberatsen salbazinua da txito gatxa. Eta zeinbateg konfesau daruez gastu alper larregiak, edo diru batu gura kodizija, ta zekentasuneti datozanak?

Esan dogu, egijazkuak ez eze, izan bere biar dabela osuak konfesino onak. Ona emendi datorren zuzengarri, jakinbide, ta fedeko dotrina Trentoko konzilijo santuban irakatsi, ta erabagija.

Lenengua: Ixildu, edo gordeten dabena konfesinuan pekatu mortal, edo bere zirkunstanzija esan biarrekoren bat, konfesetan da dongaro, ta gero komulgetan bada, egiten ditu sakrilejijo bi. Au adietan da, malizijaz, ezagueraz, edo lotsaz gordeten bada, ez aztuz, ez gomutaezaz, ta erru baga itxiten badau.

Bigarrena. Gitxituten ditubanak pekatubak, edo egin dituzanak baño gitxiago esan ezagueraz, lotsaz, ta bildurrez, egiten dau konfesino gaistua.

Irugarrena. Edertu, edo apainduten dabena pekatu mortalen bat kenduten deusala bere mortaltasuna arintzat legez konfesauta, egiten dau konfesino sakrilegua, ta alan jarraitu badau ezaueraz dongaro konfesau ta komulgetan, egin ditu konfesino ta komunino beste sakrilejijo, ta pazkua-egiteko alan konfesau, ta komulgau danak, ez dau kunplidu pazkua-ko obligazinua, ta bai egin beste pekatu bi geijago. Zelango pekatu pillu batutun dau bere arimara!

Dakuskun bada zelan diabrubak engañetan dituzan kristinau ikarakor ta bildurti batzuk. Badira bai txikarretan, edo geruago ganadu, edo giberriren bategaz egin ditubezanak pekatu ezañak, dala eskuka loijakaz, dala obraz, edo begiakaz, dagozanak urte osuetan estalduten bildurrez, edo lotsaz. Badira onelango pekatubak eginda, edo gitxitu ditubezanak konfesinuan, edo pekatu oso oso edo obrazkuak eginda, esan daruenak edertubaz izan ziriala tokamentu edo eskuka utsak. O lujuriya ezeri partketan ez deusazuna! Au da pekatu aspertu, ta geldituten ez dana, dino san Pedro apostolubak. *Incessabilis, delicti*. Pekatu au zabalduen da sentidu guztietara, ta egiten dira gauza ain ezañak, zein da lotsatuten dabena, pasinua igarota, egin dabena bera. Nok sinistu ganadubai bere parkatuko ez jakela? Nok sinistu kristinau bat eldu leitiala gauza ain ezañ ta zantarrera? Pekatu andi ta ikaragarrija; baño edo konfesau, edo kondenau, ez dago beste biderik. Ona emen jazoera negargarri, edo ejenplu enzuna, alango pekatu lotsaz konfesautzaka eukeezanak.

EXENPLUBA

Pelaio eritxon gizon gazte, edo mutil batek egin eban bein ardi bategaz onelango pekatu ezain bat. Bere konzienzijak, bakerik emoten ez eutsan; laster damutu jakon egiña, baño lotsatu zan konfesetako. Sinistu eragin gura eutsan Gaiskiñak, penitenzija gogorrek eginda, salbauko zala konfesau baga. Sartu zan bakartade baten eguan konbentuban; artu eban an abituba. Bere orazino luze, erretiro, ta penitenzija andijak gaiti, eukeen birtute andikotzat. Baña sugia barruban, ta diadarrez konzienzija zirautsala: Pelaio, alperrak dira zure penitenzija guztijak konfesetan ez badozu dakizun pekatuba. Agaz guztiaz, geruago ta gatxago egiten jakon konfessorari agertutia, eukeelako santutzat. Ill zan guenian agertu baga. Egin zan bere enterruba, ta uste eben beste fraile bere lagunak, milagro andiren batzuk egingo zituzala ill onduan. Urrengo gabian topau eban sakristaubak bere gorputz enterrauba sepultura ganian, ta sartu eban osteria lur barruban. Bijaramonian bardin topau eban sepulturati kanpora, ta ikaraturik, emon eutsan kontu konbentuko buru, edo nagusijari. Jatsi zan au beste frailiakaz gorputz illa eguan tokira, errekeridu, kontu artu edo itandu eutsan onelan: Pelaio, izan zariana zeure bizitzan ain humilde, ta esanekua, esan egidazu, zer gura dozun? Zer esan gura dau sepulturapeti urten, ta kanpouan egotiak? Biar ete deusugu emon sepultura onra andi-



jagokoren bat? Eranzun eutsan difuntubak: Ay ene galduba! Kondenauta nago betiko. Ez dau leku santurik biar nire gorputz madarikatubak. Infernuban nago, ta egongo nas betiko. Egin neban ganadu bategaz pekatu habituba artu baño leenago; ez deuste ezer balijo izan neure penitenzija guztijak. Jangoikuaren borondatia da, enterretia ni leza baten animalija zantar bat legez.

O Pelaio zori gaistokua! Zeinbat errazago izango zenduban lotsia kendurik konfesau bazendu zuzen zeure pekatuba, ta egin gero egin zenduzan penitenzijak? O zelan egongo zinian gaur zeruban Jangoikuaren miserikordijak kantetan beste pekatari penitente askogaz batera! Ai, kristinau konfesau baga zagozana onelango, edo bestelango pekatu zantar bat edo asko! Gura dozu Juan infernura Pelaiori lagun egitera? Bada biti bat, edo zuzen konfesau, edo artez kondenau.

Diabrubak atrapau daruaz beste batzuk ezkutetan ditubenian esan biar zirian pekatubaren lagungarri, edo zirkunstanziya agertu biarrak. Senideren bategaz dongaro egin dabenak, dala eskuz, dala obraz, agertu biar dau daukan senitasun, alan odolekua, zelan eraatsi, edo koñatutasuneti jatorkona; ez laugarren graduban iragota badago. Eta ixilduten dabena zirkunstanziya esan doguna, ezagueraz, ta bildurrez, egiten dau konfesino dongia.

Bardin persona konsagradu, edo kastidateko botua daukanagaz konsentidu, edo egin badau pekatu loirik, biar dau agertu zirkunstanziya daukan ta esan doguna; ez da baño inos izentau biar konfesinuan pekatu laguna. O lujurija! Eta noraño irago zarian! Eta zelan lurreko aingeru, ta garbitasuna irakatsi biar ebeenak bere, egin dituzan demonio donga, ta tentadore! Eleixako sarian arrain modu guztiak batuten dira, sazerdote onak, ta dongaak, ta alan estadu guztietan. Jangoikuak gero alderatu, edo apartauko ditu onak dongeetati. San Pedro batera, Judas bestera. Gaistuui jarraitu eutseenak konseju, eta gauza gaistuetan, izango dabee infernu txito andija. Zeruko aingeruba dirudijanak bere, irakasten badau dotrina dongarik, esan arimiaren kalteko berbarik, edo emon Kristoren kontrako tentazinorik, esan bildur baga, madarikatuba izan dedilla. Au da san Pablok emoten daben konsejuba. Madarikatuba alango dotrina dongia, alango berba, ta tentazinua, ta iges gero laster aingeru donga alanguaganik.

Luzifer aingeru andijen artekua zan; jausi zan bere santidadeti, ta jausi eragin eutseen ainbeste aingeruti. Ez eutseen parkatu Jangoikuak, ta dagoz infernuko subetan. Alan jazoko jakee aingerubak baño ofizijoz andijaguak dirianen tentazinuai leku emoten deutseenai, edo iges egiten ez dabeenai.

Guazan aurrera. Konfesino garbi ta osuak eskatuten dau ez naaste-tia pekatubak; biar dira agertu pensamentuzkuak pensamentuzkuak legez; berbazuak, deseozkuak, tokamentu, ta obrazkuak, bakotxa okertu baga. Onetan, zeinbat guzur sartu oi da konfesinuan? Berba gitxitan, estaldu, edertu, edo eskusa txarrakaz konfesetan bada pekatu mortal, edo bere zirkunstanziya esan biarrekoen bat, egiten da sakrilejio bat, ta komulgetan bada alan, beste bat, ta urte osuetan, edo bizitza guztijan egon danak ezaueraz ta lotsaz agertu baga, egin biar dau denpora guzti atako konfesino jenerala. Eta zelango damuba eruan biar ez dau ainbeste sakrilejioz egin dituban kristinaubak? Zelango eskerrak emon biar deustaz Jangoikuari gorde deustalako bizitzia, ill baga beinguan Ananias, ta Safira guzurtijak legez? Oneek, ta Judas dira ejenplu eder Eskritura San-teetati artubak bildurtuteko pekatari lotsoor, ta konfesino osuak egiten ez ditubenentzat. Dakuskuzan.

Eleixako lenengo urteetan ez euen kristinaubak bijotz bat baño. Ondasunak eukeezanak, euraten zitubezan apostolubaren eskubetara, ta oneek emoten eutseen pobriai biar ebena. Ananias ta Safira eritxuen senar ta emazte batzuk, saldu eben solo bat ta alkar aitu edo itundurik, ezkutau eben diru zati bat eruateko beste enparauba apostolu san Pedrori, onek zabalduko premiña eukenen artian. Juan zan lenengo Ananias san Pedrogana bere dirubakaz, ta esan eutsan; ona emen saldu dogun solua-ren balijo guztija. Eranzun eutsan san Pedrok: zegaiti emon deustazu leku Satanasi guzurra esateko Espiritu Santubari, gorde dozun ezkeru etxian lur salduaren diru zati bat? Ez deustazu esan guzurra gizonari, ta bai Espiritu Santubari.

Berba oneek enzunda, jausi zan bertan illik Ananias, ta enterrau eben bere gorputza. Ezeren barririk ez ekijala, etorri jakon santubari arik geruago difuntubaren emazte Safira. Itandu eutsan san Pedrok: Niri ekarri jatan diruba da lur salduaren balijo guztija? Bai, eranzun eutsan andra onek. Biurtu jakon san Pedro esatera: Zegaiti alkar artu dozube guzurra esateko Espiritu Santubari? Enzuten dot zure senarra enterretati datozanen oin otsa. Au esanda, jausi zan bertan illik bere senarra legez. Kastigu latz onegaz sartu zan bildurra kristinau guztietan, ta ikasi eben, zelan egija estaldu biar ez zan sazerdotiaren oñetan. San Pedrori guzurra esanaz esan eutsen Espiritu Santubari.

Orain bada, norako dira urte osuetan duazanak sarri konfesorien oñetara guzur andijaguak esatera, ta arik gero bijotz guzurti sakrilego baten artutera Jesu Kristo? Zelango damuba artu biar ez dabee onelango kristinau lotsarik gordeten ez deutseenak Jesu Kristo berari? Zer itxaran



daikete konfesino oso, jeneral, ta damu andiko bategaz garbituten ezpada-be arimia, ta eruan aurrera bizitza txito on bat? Ixillik egon jakee orain artian Ananias, ta Safirak baño pekatu geijago ta andijaguak eginda aek legez kastigau baga? Baña zori gaistokuak Jeusen itxarate onegaz balijetan ez dirianak, ta aurrera duazanak konfesino ta komunino dongaak egiten. Zer jazo jakon Judas traidoriari? Ukatu eutsan Kristori barruban eukan asmo dongia; ta komulgau zan gero. Komunino ostian sartu jakon Sata-nas bere barruban; ernegau eragin eutsan onek, ta guenian jo eban infer-nuba. Alan bada izango dabee azken dongia, ta infernu guztiz gogorra besteen aldian, konfesino ta komunino dongaak eginda, penitenzija egi-jazko baga erijotziak artuten ditubanak. Pensau ondo. Biti bat, edo ondo konfesau, edo betiko kondenau.

IRAKASTE XIII

Gauza beraren gañian, ta zelan kendu biar da lotsia, osoz, garbi-ro, ta zuzen agertuteko pekatubak.

I. Egin dogu berba dotrina bitan konfesino aozko ta osuaren ganian; baña asko dago zer irakatsi onetan esan danaz ostian.

E. Zer egon leite geijago zer esan? Pekatubak ondo ez agertuteko egiten dirian tranpa, ta emoten dirian atxakija, esesino, ta eskusa bide bagiak, esan biarrian osoz, garbiro, ta edergarri baga.

I. Gura neuke enzun ejenplu edo jazoera argigarri bat?

E. Ona emen Eskritura santeetati ateria. Josue Israelgo soldaduben buru zala, galdu eben onek batalla bat askoren triskantza ta erijotziaz. Itandu eutsan Jangoikuari Josuek: Zegaiti izan eben kastigu ain latza? Adierazo eutsan, agertuko zala norgaiti izan zan, soldaduben artian subertiak botata. Alan egin zan, ta jausi jakon subertia Akan eritxon soldadu bati. Artu eban au Josuek, ta dirautsa, emon egijozu gloria Jangoikuari, ta esan egizu zer egin dozun. Beekijan soldauak, egija esan, ta pekatuba agertuten beeban izango ebalu kastigu gogorra. Alan bere gurago izan eban bizitza galdu, pekatu ixilik egiñ, ta inok ez ekijona, bere agintarijari ukatu baño. Agertu eban bada osoz, ta ze ze onelan. Gerran ondo urte gendubanian, artu nituban granazko kapa bat, amabi diru zidarrezko, ta urrezko kana berrogei siklo balijo zitubana. Neure diru gosiak gorde eragin eustazan, ta estaldu neban zidarra lurraren barruban. Konfesino, edo deklarazio ain oso ta zuzena eginda, ez eban izan lurrerako parkazinoerik, ta beriala ill eben arrika. Ona zelan konfesau biar dan pekatuba edergarri baga, ta zelan konfesino zuzen, humilde, ta egijazkuak emoten deutsan Jangoikuari juizijoko egunian soldau ak urten ta esaten dabengan: nik agertu neban neure pekatuba egin neban malizija edo gaistotasun guztiaz, ta jakinik munduban parkatuko ez jatala kastiguba, edo galdu biarko nebalu nerue bizitzia. Eta zubeke, kristinau izan zinianok, ukatu zeuntseen, edo ez esan biar legez lotsa apur bate-gaiti sazerdote bati ixillik, ta Jangoikuak parkazinua eskinita? Zer eranzun errazoe, ta kargu oni?

Pekatu bat dago, diño san Agustinek, Jangoikuak berak parkatuko ezin dabena; pekatu au da pekatubaren estalketa, ta buruba dongaro garbitu guria. Akusetan darian bat ezarri dituzala maldizino dongaak lagunaren gorrotoz, zetara dator edertutia esanaz; *ernegau eragin eusten seme alabak, bizitzarik ezin egin lei* inok nire senarragaz; *santa bati bere galdu eragingo*



leuskio pazienzija, ordi ondatzalla bat da? Zetarako buruba garbitu gura izatia esanagaz; egin deustez kalte andajak neure anzokuak, ezin ikusi nabee, begitan artuta nauke, ta gorroto badentset, da motibuak dankadazalako? Bakian itxiko baleuste, bakian egongo nintzate, ez deustet nik gatsik egin. Au da konfesino zuzen ta humildia? Zeure dongaro egiñen erruba ezarri bestiai konfesinuan? Eta agertu oneen pekatubak zeuriak baño argitasun andijaguaz? O konfesino damu бага, ta mutilduba!

Neskatilla batek leku emon deutsee gizakumeren baten eskuka zantar, edo akzino txaarra, ta garbitu gurako dau buruba esanaz, *Jauna, ni bakian nenguan, ez neutsan biderik emon.* Erdu ona. Eta tentazinuari leku emonaz ez dozu pekatuik egin? Zegaiti urratu ez zeuntsan arpegiko narruba, edo iges egin beriala aserriaz? Zegaiti dongaro esan ez zeuntsan arima lapurrari? Artuten ditu beste batek atsegin zantarrak, edo pensamentu loijetan borondatez geratubaz, edo akzino txaarra leku emonaz, ta akusetan ditu; baño ez esan, au datorrela juaten dalako olgantza donga, ta piesta lekubetara, nun ikusten dituban gauza zantar asko, agertuten dituzala pekatuben etorbide, iturri, ta okasino ezagutubak? Bai barriz; gorde biarren dana, ta ez esan konfesoriar zirkunstanziya, ondo osatuko badau gatxa, jakin biar ditubanak.

Ukatu, edo luzatuko deusta konfesore on ta begiratu batek norbaiti absolutuzina larga artian pekatuzko okasinuak, emon artian obaasun, edo emiendiaren señaliak, egin artian errestituzinuak. Zetako alde egitia alango konfesore asko gura deustanaren oñetati puzka, ta erneguz, dongaro esaten; ta biurtu biarran humilderik beragana, juatia gero beste konfesore bategana, esateko gura dana, estalduten deustala leenagoko konfesoriaz jazo jakon guztija? Zetarako tranpa, edo asmo donga oneek? Zegaiti ezkutau pekatubak?

Ai jauna! dinue batzuk bildurto nintzan zuzen konfesetako, zerren uste neban, biarko zala Erromara juan, herejiako pekatutzat neukalako. Diabrubaren guzurra. Ez da herejiako pekatuba, askok uste dabeen legez, ganadubakaz egiten dana. Eta dan legez dala, herejiako pekatuba egingo balitz bere, konfesoriar berak artuko ditu bidiak zure buruba agertu бага, izan daizun absolutuzina. Ai balegoz arima pekatubari gorroto artu deusteenak, ondu gura dabeenak benetan, ta humiltasunaz osoz konfesetan dirianak!

Bigarren engañuba: Jauna, bildurto nintzan konfesoriar norbaiti esango eutsala, edo aurrerakuan begiratuko eustala arpegi astunagaz, ta nenkusan lekubetan, gomutauko jakozala nire pekatubak. O zoraasuna! Konfesoriar iñori esan? Ez da erreko balebe bere. Konfesore izan diria-

nak eldu dira Judas baño dongaguak izatera; herejiak irakatsi, ta herejen buru egitera. Alan bere ez da Jangoikuak laketu, edo permitidu alanguak ateratia, konfesore zirianian, enzun zitubezan pekatubak. Konfesore izan dirian batzubei galdu jakee buruba, biurtu dira zoro; baño ez dau onelango inos agertu konfesinoeko pekatuik. O Jangoikuaren probidenziya miragarrija! Zetaraño zainduten dau konfesinoeko ixilltasuna! Amesetan bere ez jakee inos konfesoriar, enzuniko pekatuik burura etorten. Barriz uste dozu, egongo dala konfesoriar zure pekatubak goguan ditubala, edo egingo deustala begirune illun edo astunen bat? Ona ejenplu edo jazoera eder bat.

San Luis Beltran ebillela misinuak egiten, eldu jakon bein konfesetara gizon bat ikaraz, ta izerdi otza erijola gorputzeta, egualako bera lango pekatari atsituba santu andi baten oñetan. Igarri eutsan santubak gizon ak eukan ikaria, ta asi jakon berba samur, ta bigunakaz itanduten pekatubak. Esaten eutsanian pekatu ezain bat, eranzuten eutsan santubak arpegi amorezko bategaz; aurrera, ederto espliketan zara. Gizon gaisuak, bijotza zabaldurik, esaten eutsan pekatu guztiak ziatz ziatz, ta esanago ta alegriago san Luisen arpegija, pozezko malko gozuak erijozala. Emon eutsan penitenzija uste eban baño azkoz laburragua, zirautsala, neure semia, zure pekatuben penitenzija enparauba, geratuten da neure kontura, nik egingo dot zure orde. Ito biar eban negarrez gizon ak bere pekatuben damuz, ta esan eutsan santubari; aita, beste pekatu guztijak bere enzun deustaz biguntasunaz; enzun begit ementxe bertan etorri jatan jui-zijo dongia. Ikusi dodanian berorren erruki ta biguntasuna, etorri jat burura, ez dala izango berori dinuen baisen santuba; berorrek bere nos edo nos egin izango ditubala niriak legezko pekatoren batzuk; bestelan, zelan artuko nenduban ainbeste amore, erruki, ta biguntasunez? Zelan agiraka itoko ez nenduban? Ai nire seme bijotzekua! zirautsan santubak gitxi gorabeerako berba oneekaz: Jangoikuari eskerrak; ez dot orrelango gauzarik; egin munduba ezagutu baño leenago deitu nenduban erreljionera, ta gorde nau Jaunak pekatu zantarretati. Baña zer deritxazu? Zeruko aingeru, ta ni baño garbijaguak, poztuten badira, Jesu Kristok dinuakaz, pekatari baten biurreera, edo konbersinuan, zelan ni poztuko ez nas ikusi ezkeru damu ain ederraz konfesino jeneral, oso, ta estalgarri bagia egin dozula? Zelan batuko ez ditut zure negar malkuak eskinitako Jangoikuari, zeñek atera dituzan zure bijotzeta? Arimako mediku egin banau Jesu Kristok, zelan olgauko ez nas zu osaturik ikusita? Nun euki nei bazkari gozuagorik? O neure semia! Iraun egizu emen artu dituzun gogo santubetan. Salbetan bagara zu ta ni, bijok kantauko deustaguz zeruban Jan-



goikuari alabanza ta eskerrak; zuk, itxaran deutsalako penitenzija egin artian, ta nik bialdu zaitubalako nigana Kristoren pasinoeko frutua zure ariman iraatste.

Kristinau ikaraz ta bildurrez iragorik zagozana agertuteko zeure urte askotako pekatubak, zegaiti ez zuaz askatutera bijotza konfesore arima zale, ta birtutetsu bategana? Kendu bildurrok; baña egin betiko agurra pekatu, ta bere okasino ezagun guztiai. Zer aterako dozu guenian atsegin ustel zantar, ta atsitubetati, ezpada arimako aranza ta kezka txaarrek? Jangoikuaren kontra zabilzala, zelan gura dozu benetako bakia? Zelango poza izango da ariman artuko dozuna, pekatuben karga astuna botata, bazuaz Jesusen oñetara Madalena bat eginik?

I. Ah Jauna! Esan darue batzuk; ori erraz esaten da; baña ez dau inõk enzun nire pekatubak baño ezañagorik. Ai esanda baneukaz! Eta zelan egingo neukian emendi aurrera bizitzia txito on bat! bestiak esango nituke; baña bi edo iru daukadaz txito barregarri ta ezañak?

E. Kristinau diabrubak katigu zaukazana; zer uste dozu? Deritxazu salbalko zariala agertu baga? Edo geruago errazago esango dituzula? Eta erijotzaren bat bialduten badeutsu Jangoikuak? Dozu lurrian egun seguru bat? Eta Jangoikua bigunduteko da bide ona konfesino ta komunino dongaak egiten denporak iragotia? Uste dozu, gero konfesore ez ezagun, edo misionistaren bati erraz esango deutzazula? Ez zaitubala ikara barri batek artuko ito eragingo deutsuna pekatubaren bat agertu ezinda? Enzun egizu ejenplu ikaragarri au, zeinek irakurri, edo enzunda, eragin dituban konfesino jeneral asko.

Andrakume bat arkituten zan erri baten urte osuetan bere pekatubak konfesinuan agertu ezinda, konfesore ezagun ez eban bati gero agertuteko ustiaz, Bitartian eroian bizitza larri ta estuba, jaten ebanak bere, onik egiten ez eutsala. Ai esanda baneukaz! Ai baletor ona ez dazaudan ta eznazauban konfesore jakintsu bat! Orra nun elduten dirian erri atara igarobidez san Franziskuko misionista bi. Poztu jakon bijotza andrakume gaisuari, ta juan zan bijaramon goisian eleisara itxarateko erreljioso bi aen arteko batari. Juan zirian oneek meza emotera, ta urreratu jakon batari, ta esan eutsan Jauna, mesede egin begit konfesetiaz. Bai pozik, eranzun eutsan, ta sartu zan konfesonarijuan. Asi eban konfesinua, ta konfesetan zan artian, eguan beste misionista laguna eleixako bazter baten orazinuan, ta ikusten eban onek, zelan zapozko prozesino edo erreskada batek urtetan eban eleisati kanpora. Au zer da zinuan. Nundi datoz zapo zantar onek? Ukusi eban bada, zelan urtetan eban andrakume konfesetan eguanaren aoti, ta zelan andra triste aren eztarrijan ebillen zapo eskerga zan-

tarrago bat, urten gura ta urten ezinik. Baña bere bijotzeko penarik andijenagaz, ikusi eban zelan piztija zantartzar a, sartu zan guztia barrura, ta gero zelan eleisati urten eban zapozko prozesinua, biurtuten zan atzera, ta dirianak irago zirian andrakume errukarri aren barru, edo lengo tokira. Konfesia, konfesinua amaitutzat emonda, jagi zan meza esatera, ta bere ostian esan eutsan beste misionistak, ze ikusi eban, ta bere ustian andra triste ak gorde eutsala pekatubaren bat. Urten eban konfesiari andra aren billa; baña juan zan au eleisati orduko. Jangoikuari eskerrak emonda meza ostian, esan eutseen alkarri, guazan bere etxera galdu ez dedin bere arimia. Igon eben gora, ta arkitu eben illda. Ikaratu zirian len igaruaz, ta orduban ekusenaz. Jarri zirian orazinuan eskatuteko Jangoikuari jazo zanaren argija; ta orra nun biztu, edo agertu jakeen bere arimia infernuti itxura txito ikaragarrijan suge ezain batek bere eztenagaz zaurituten eutsala bijotza, ta beste guztija subaz ingiraturik. Misionistak geratu zirian ikariaz konorte ta zenzun baga legez, ta berba egin eutseen arima kondenda ak; Jangoikuaren ministrak, anima zaiteze enzutera nik esango deutsubedana; jakin egizube, zelan ni egon nintzan urte osuetan konfesino zuzenik egin baga gordeten nituzala lotsaz pekatu batzuk, ta oneen artian bat txito ezaintzat neukana.

Diabrubak engañetan nenduban sinistu eraginik, etorriko zala nos edo nos kanpoko konfesore ez ezagunen bat, ta alango bati esatia, zala txito erraza. Jangoikuak ekarri zenduzan zubek erri onetara, eskusarik izan ez negijan. Asi nintzan konfesetan, esan nituban bat ez, ta beste guztiak; ta bera esateko abijau nintzan; baña ikara andi bat sarturik, itxi neban esan baga. Pekatu atxek berak zaurituten nau orain sugetzar onen itxuran. Galduba nas betiko; ez ni gaiti orazinoerik egin; predikau egizube erririk erri nire azken dongia ta zer egin daben nigaz Jangoikuaren justizijak.

O kristinau zoratu, diabrubak andrakume esan doguna legez enganauba! Zeren zain zagoz? Ezin agertu dozula, dinozu, orain, ta gero bai? Gero errazago izango dala pekatubak pekatubari geituita? Konfesino, ta komunino dongaak gogortuko jatzu bijotza, geitu lotsia, diabrubak artuko dau indar geijago, beteko dozu pekatuben neurrija, largako deuta Jangoikuak len legez deitutiari, ta juango zara konfesino oso bat egitera, dirautsu san Vizente Ferrerek, Luzifer infernuko kuriaren oñetara, ta emongo deutsu inos amaitu edo akabauko ez dan penitenzija.

Pekatu ikaragarrijak dira, dinozu, ta ezin auan artu neiz. Zer egin dozu bada? Esan maldizino erneguzkuak Jangoikuaren kontra? Madarikatu dozu bere izen santuba? Artu deutzazu gorroto andi bat Jesu Kristori? Poztu zara Judegubak ill ebelako? Ill dozu zeure arerijua, ta sein



batiatu bagia? Zer egin dozu bada. Erabili dituzu ostikopian forma kon-sagraubak? Ostu dituzu eleixako kalizak? Saldu deutzazu arimia diabrubarri zeure firmiaren beian? Ez orrenbeste bere, jauna, esango deustazu. Izango dira biar bada edo zeure burubagaz eginiko loikerijak, edo ganau-ren bategaz eginiko pekatubak; beintzat konfesorik leenago enzun, edo irakurri dituzanak.

I. Zeinda baña urratuteko modurik onena?

E. Ona emen. Zuaz konfessore topau aldozun onenagana, ta esan egijozu: Lotsa andija emoten deusten pekatubak, edo inos konfesau bagaak daukadaz, jauna. Lagundu biar deust berorrek guztiak esan dagian. Au enzunda, animauko zaitu konfesorik berba bigunakaz. Pekatu andijaguak egiten dituzu komuninoe, ta konfesinoe txarrakaz, zuri lotsa emoten deustuben pekatubak baño, bada darabilzu zelanbait modu dongaguan judegu gogorak pasinoeko denporan tratau, edo erabili eben baño. Zelan euki zinai egun on bat lurrian Jesu Kristo eruanik zeure bijotz zantar, ta infernukuen etxe eginda daganera? Zelan barre ta lo gozorik egin konzienzija ain dongiaz? Enzuzu jazoera, edo ejenplu eder au.

Zaldun aberats batek egin eban bein pekatu txito ezain bat. Damutu jakon laster. Beekijan salbauko bazan, konfesau biar ebal. Baña goguan artubaz bakarrik, urtetan eutsan izerdi larri batek. Ernegau eban bere burubaz bakerik topau ezinda. Enzun eban nosbait, parkatuten ziriala konfesinuan aztuten zirian pekatubak, ta begitandu jakon, mundurik mundu urtenda, olgau ta olgau eginda, aztuko jakola. Alan egin eban, ukaten ez eutsala burubari dibersino ta joko modurik erririk erri ebillela. Baña aztuten jakon pekatuba? Bai biar bere. Beti eukan begijen aurrian, ta bijotza aranzaz josirik.

Ikusirik ezin ebal aztu asmo aekaz, jarri jakon buruban limosna asko eginda, pobriai lagunduta, eleisetan denpora luziak iragota, edo aztuko jakola, edo konfesau baga parkatuko eutsala Jangoikuak. Alperrik guztija. Geruago ta estubago egiten zan, ta guenian ernegaurik, erabagi eban burubari bakia emotia Judasek legez bera urkatuta. Orretara joiala, topau eban zorionez Jesuen Konpañiako sazerdote bat. Erregutu eutsan zaldun errukarri ak, sartu zedilla bere kotxian. Atsegin emoterren, sartu zan; jagi bere bai laster trumoe ikaragarri bat. Asi zan esaten sazerdote on a. Ai ze gauza estimagarrija dan konzienzija garbi bat eukitia! ezin ekarri lei pekatubak bakerik; oñaztari bat edo edozein gauza asko da gure bizitzia eruateko; konfesino zuzen ta on batek ekarri lei bijotzeko bake osua. Aita, esan eutsan zaldunak, nundi daki berorrek nire barri iños alkar ikusi baga? Nun irakurri dau nire konzienzijako liburuba. Nik ez dazaut berori, eran-

zun eutsan errelijosuak, baña zelan neure aita san Ignazio Loiolakok enkargetan deuskun esateko beti berba onak, alan urten deuste esateko beti dituzanak. Alan bada sazerdote ta konfesorik nas, ta ezetako gura banau, prest nago arimako salbazinuan lagunduteko. Dirautsa zaldunak, konfesau baga balitz, egingo neuke edozer gauza; baña ez dago niri zer aitatu gordetik daukadazan pekatubak nik agertutia.

Izan dedilla alan, zirautsan jesuita asko jakinak; bada artu begi liburutxu au, egin begi esaminia emendi, konfesauko ezpada bere. Baña zelan ez dan berori orren jakituna, emen basora urtenda gabiltzala, esango deustadaz zelango pekatubak egin daruezan gizonak. Ziaztu eutsazan banaan legez mandamentuben kontrakuak, ta orra nun jo eutsan zaldunak egin ebana. Ai enel esan eutsan onek; orise da nire pekatuba. Orrek narabil zoratuta. Orise da nire arimako borrreru gogorra; ta ori ezin esanak konfesorik, nenkarren mendi onetara neure buruba urkatutera, bakia billatuteko asmuaz. Etzun jakon oñetan sazerdote ari negarrakaz. Egin eban konfesino jeneral oso ta damuzko bat, ta pozez beterik, biurtu zan bere etxera, ta arik aurrera egin eban bizitza txito onaa.

Ah kristinau errukarri lotsiaren lotsaz pekatubak ezin esanda zagozana! Zeren zain zagoz? Alperrik zabilz. Konzienzijako sitsa bizi da, biziko bere bai beti infernuban, biotza askatuten ezpadozu, ta alan emon eriotzia ar orri konfesinoeko sakramentuban. O pekatuba! *Laburra da zure kontentuba, ta betikua tormentuba.*

I. Ai jauna! dinozu, nok euki leikian zaldun ak euki eban legezko konfessore on ta bijotz biguneko bat. Berba gogor bat badanzut, dan au ikaratuko nas?

E. Ondo dinozu alde bateti. Konfessore guztiak ez dira bardinak. Itanduten ezpadira ziaz gauzak; Ikututen ezpajako herida, edo zaurijari; itoka badabil, ta artuten ezpadira konfesetara duazanak berba bigunakaz, lagunduten jakeela aterateko ezkutuban dagozan suge okertubak, barrurago sartuko dira. Biar dira bada billatu konfessore arima zale, jakitun ta birtutetsubenak. Zegaiti kondenu zan Ingalaterrako errege baten alabia? Enzun jazoera edo ejenplu on andijak egin ditubana predikau dan bakotxian.

Ingalaterran fedia osua eguan egunetan izan eban errege batek alaba bat guztia Jangoikuari emona. Bere edertasun, ta beste prendak gaiti, billatuten eben errege kanpokuen semiak ezkontzarako. Baña ez eutsan iñori enzuterik emoten, ta egin eutsan Kristori bere kastidade guztijaren eskinza, edo boto osua. Egun guztia igaro eruan, edo irakurten liburu onak, edo gaisuak lagunduten ospitalean; ta ez eguan Ingalaterra guztijaren beste zer esanik, ezpada dama aren limosna, humiltasun, ta birtutiak.



Eukan paje gaztetxu bat irakurteko berari liburu santubak, ta onek mun egiten eutsan eskuban irakurri orduan ta aldegitoko denporan. Diabrubak emendi artu eban dama santatxu au galduteko bidia. eskuban mun egiten eutsala, etorri jakon egun baten aragijaren tentazino gogaitkarri bat, ta egun askotan ez eutsan lekuri emon; baña okasinua guztiz kendu ez ebalako, emon eutsan infernuko arerijuak gerra aian estua, zein da eldu zan lotsia botata, eskuka edo tokamentu loi bat egitera zalduntxu pajetzat eukanagaz. Laster igaro zan atsegina, ez baña konzienzijako arra. Damutu jakon egin ebana, apurten eban buruba negarrez; estututen eban arerijuak gerra beste bategaz. Zer egin dozu? zirautsan konzienzijan. Errege andi baten alabiak egingo eban gauza ain ezaña bere serbitzari bategaz? Nora dira zure limosnak, zure penitenzija, zure orazino, ta ainbeste obra on? Ah traidoria! Egin zeuntsan Jesusi kastidadeko promes betikua. Galdu dituzu ainbeste ezkontza eder gordetearren ta orain jausi zara pekatu zantarrian.

Onelan erabillen erdi zoraturik, desesperau eragin gurarik. Guztiaz bere atera eban kontu au, obe dot mundu onetan lotsa apur bat igaro konfesoriar zuzen esanda, ta ez jo infernuban. Juan zan negar andijakaz bere konfesoriarren oñetara ta esan eutsan, jauna, jausi naz tokamentu ezain, ta loi baten neure serbizijuan neukan mutiltxu gazte bategaz. Konfessore zenzun gitxikuak dirautsa: Zer, berori jausi pekatu ain ezañian? Errege baten alabia izan, ta ainbeste urtian santa bat legez bizi ezker? Zer diraut? Egija da? Alango moduz ikaratu zan damia agiraka bidebagako agaz, eze esan eutsan edertubaz, ta gitxitubaz lenenguan zuzen esan ebana.

Jauna, ez neban gauza loirik egin eskuz; bakarrik izan zan pensamentu loi konsentidu, edo neuk leku emona. Eta zer? Esan eutsan konfessore agirakari gogorrak? Ez da asko ta laarregi pensamentu loi bati leku emotia erregeren alaba, ta alango birtutian bizi izan danarentzat? Nora dira berorren limosna, penitenzija, ta ainbeste obra on? Bildurrago egin zan dama gaisua, eta eranzun eutsan: Jauna, ezin esan nei konsentidu edo leku emon neutsala neure guraz. Orra konfesino guztija galduta, lenenguan ondo egiña; bigarrenian dongatuba, gitxitubaz; ta irugarrenian guztija ukatuta; lengo pekatubaz ostian, geitu zituzan sakrilejio andi bi. Geitu jakon lotsia, ta ill zan konfesau baga bere oker egiñak.

Pobre guztijak negarrez zinarduben bere erijotzan; Ingalterra guztijan ez zan enzuten beste soñurik, ezpada, *ill da gure Erregeren alaba santatxuba*. Dama onek eukan beste dama ezagun ta maite bat; ta orra nun agertu jakon oni infernuti guztija suz ingiraturik, ta esan eutsan oni zegai-

ti kondenu zan. O konfessore zenzun baga, ta erruki bagia! Zelango kontuba emongo ez zeuntsan Jangoikuari berba astun, ta garratzakaz galdutera eragin zeuntsalako konfesino ondo egingo ebana? Billatu bada beti alegiaz kristinau lotsatija, ez konfessore nasai, mundu zale, ta zelan alanguak; ta bai arima zale, Jangoiko zale ta urrekuak. Onelanguak gaiti uste oi dabee kristinau nasai bizi gura dabeenak, estubak diriala, gogor ta gogaitkarriak, baña oneek dira bigunenak ta arimak geijen erruki edo maite ditubezanak.

Zetan dago biguntasuna? Emotian beriala absolutinoa, kristinau donga baten arimia ondo prestau baga? Berba egitian pekatuba zer dan ezagutuko ez daben moduban? Itxitian okasino dongeetan ardura baga? Enplastu arin, ta azalekuakaz osatu gura izatian barru barruko gatxa, gaisuari atsegin emoterren? Ori litzate gogortasunik andijena. Bazakusaz konfessore Jangoiko zale batek zuakozala pekatuben damu benetakuaren señaialakaz, on izateko gogo senduaz; zelango poza artuko ez dau zuri erasoteko pekatuak ezañenak? Zeinbat atsegin artuko ez dau arima baten salbazinoerako bitarteko, edo instrumentutzat artu dabelako Jangoikuak? Ez deustu onelanguak esango fariseo arruak legez, *ken niganiik. Recede a me; ez urreratu nigana; zuzaz ordu gaistuan*; ta bai Jesu Kristogaz, erdu nigana pekatuben karga andijagaz makurturik zagozana, ta karga ori bota gura dozuna, nik arindu, konsolau, ta lagunduko deusut.

Badakizu zek mindu daruan konfessore jakitun, ta arima zale bat? Ikustiak pekatuben ardura ta damu baga juakozala asko konfesetara, larga gura ez ditubezala okasino donga, ezagun, ta urrekuak; onduteko gogorik ez darakusela, biurtu gura eza ostubak, edo kalte eginak, artu nai ez izatia osagarri, edo erremedio biarrak arimia osatuteko. Onekaz bere pelietan dira amorezko berbaakaz ezagutu eragiteko euren arimetako arrisku andija; ta luzatuten badeutse nos edo nos absolutinua, izan oi da amorez, osatu guraz, ta prestau ditezan pekatuben damuba Jangoikuari eskatutera. Baña juakezarian bijotz bigundubak, ondu gura dabeenak okasino txarrak largata, prest dagozanak osagarri edo erremedijuak artuteko, negar egin darue pozaren pozaz; begiratuten deutsee amore garbi ta santubagaz euren arimako umiai legez, ta egin darue orazino berua euren salbazinua gaiti. Ez dira paltako nun edo nun, errijan, edo auzokuan onelango sazerdote zelo andikuak, ta billatu onelango bat, askatu beragaz bijotza ezer gorde baga, ta kendu lotsa ainbeste arima infernura daruana. Bai arren bai.



IRAKASTE XIV

Pekatu ixilduben ganian laugarren dotrinia.

- I. Zeren ganian izango da gaurko dotrinia?
- E. Gauza beraren, edo pekatuben agertute txarraren ganian.
- I. Nortzuk geijago uts egin darue onetan?
- E. Esan daruenak pekatuba aztutzat, lotsaz gordeta euki ezker.

Jauna dirautse konfesoriar, txikartxuba nintzala egin nituzan zikinkerija, edo pekatu zantar batzuk; gomutau jat konfesau ez ditudala, aztuta euki ditut.

Aztuta euki dituzunak, aztutzat konfesau biar dituzu; baña lotsaz ezin esanda, pekatutzat, ta konfesakizun preminazkotzat euki ditubanak, esan biar ditu zuzen, irago jakona legez. Guzurrea dinue askok. Ez jakeezan aztu; sarri gogora etorri jakeez sermoe, ta beste ordu askotan. Euki ditubez ezin esanda lotsaz, ta bildurrez, ta gero lotsatuten dira esaten lotsaz gorde ditubezala. Zer balijoko deutse agertutia lengo pekatu konfesau bagiak, agertuten ezpaditubez, zeinbat konfesino ta komunino gaisito egin ditubezan konfesau ezinaz bildurrez? Orra len esan gendubana, geruago ta gatxago egiten dala pekatubak agertutia, gero esan biar dirialako konfesino, ta komunino dongaro eginak bere.

Orain lotsa andijaz arkituten nas, dino beste batek; baña konfesau eragingo deustaz erijotzako orduban kondenatako bildurrak. Uste dot emongo deustala Jangoikuak asti, epe, ta lekuba; deituko deustat konfesore on bati, ta ordu atan konfesino jeneral bategaz garbituko dot arimia.

O diabrubaren asmo dongia! Nundi dakizu emongo deustala Jangoikuak epe, asti, edo denporia? Ilten ez dira asko beingo baten ezertako astirik ez daukeela? Onelan ilten ez dirianai bere, zeinbaiti buruba galduten jakee? Ez dot ori gura. Daigun ezauera osuaz zagozala zeure gaisotasun peligruskuan. Baña nun eukiko dozu buruba edo billatu edo esaminia egiteko urte askotako bizitzaren ganian? Gatx gogorrek, buruko astuntasunak, kalentura erragarriak, bildurra actan dabilzan jentia, larrago deustube ondo konfesetan, ta matasa guztijak baña nastaubagua eukiko dozun konzienzija arildu edo garbituten? Erraz izango da arpegiz arpegi, esatia konfesoriar ainbeste pekatu len mantillapian, ta sareta bate-ti esan ezinda egon bazinian? O itsutasuna! Bildurrak esan eragingo deustaz, dinozu. Eta bildur utseko konfesinua, zelangua da? Ai egija esan gura balebe erijotzako peligruban konfesau gero ta osatu dirianen batzuk, ta

zelango leukian batek baño geijagok, orduban bere lotsaz gorde zitubezala pekatubak, ta infernura biar ebeela Jangoikuak osatu ezpalitu. Enzun san Antonino Florenzijakok dakarren jazoera, edo ejenplu bildurgarri au.

Dama ondo jaijo batek egin eban bere burubagaz, ta bakarran esku-ka loi edo zantar bat aragijari atsegin dongia emoterren. Egin onduan, sartu jakon egin ebalako damu ta pena gogorra; zerren ez zan beste asko legezkoa, bein, birritan, ta askotan eginda bere, bizi dirianak damu baga. Txikituten eban negarrez bere buruba. Ai ene! Zirautsan konzienzajak isiltzaka; pekatu mortalian zagoz; ilten bazara, kondenauko zara. Zuaz konfesore bategana, ta agertu egijozu egin dozuna ezer estari baga; bada edo konfesau, edo kondenau. Diabrubak esesten eutsan besteti; zelan len ain garbi ta honestatxuba izanik, esango deustazu konfesoriar, gauza ain ezaña? Zer esango deustu? Itxi egijozu beste era obiago baterako. Alan bada, konfesau ta komulgetan zan ezer aitatu baga, geruago ta larrijago egiten zala. Erabagi eban monja sartutia. Ez eguan konbentu guztijan bat bera baño penitente ta orazino zaliagorik, ta zan guztijen ejenpluba. Baña sugia ill baga, munduban eginiko pekatuba agertutzaka. Jangoikuak orazinoeko egon aldijetan emoten eutsazan inspirazino ta argi andijak. Ai gaisua! Zer balijo deustube ainbeste penitenzajak zeure humiltasunaren paltaz agertuten ez badozu pekatuba? Marasma baten biarra, neke alperra, arbola igartubari simaur, ongarr, edo satsa ezartia. Konfesau egizuz. Baña bildurrak lotuten eban ez agertuteko, ta aurrera eruazan komunino dongaak eta penitenzajak. Alango baten egin eben monja guztijen buru, edo abadesa. Orduban gatxago eritxon konfesetia birtute andikotzat eukeelako. Bete eban pekatuben neurrija, eldu jakon atzeneko gatxa, edo erijotzako denporia. Orduban bere konzienzajak, edo aingerubak ez eutsan largetan bakian, konfesau egizan. Deitu eutsan konfesoriar, ta bildurraren indarrez, atera eban berba au, Jauna eskrupulu bat daukat.

Baña zelan konfesoriar eukan santatzat, esan eutsan, orek dira diabrubaren tentazinuak, ta kendu begiz eskrupulubak. Alan geijago esan baga komulgau zan, artu eban oliazino santuba, ta ill zan monjaz ingiraturik, negarrez egozala alango abadesa santa bat galdu biar ebelako.

Ill zan gau atan, eguan bakarrak koruban birtute andiko monja bat enkomentetan bere abadesa difuntiar arimia. Eta orra nun lanparako argijan dakusan keriza balz ikaragarri bat. Irago zan dana buruti biatzetara; baña Jangoikuaren grazijak sendotuta, itandu eutsan. Zer biar dozu? Ai ene! eranzun eutsan itxura baltzak; ni nas zuben abadesa gaur ill, ta infernuban naguana; ez nigaiti orazinatorik egin; Jangoikuaren justizijak errazoe andijagaz kondenau nau, sarri, bizi ninzianian, abisau eustalako



konfesau negijala, gaztetzuba nintzala munduban, edo monja sartu baño leenago neure burubagaz egin neban eskuka zantar, edo tokamentu pekatuzko loi bat.

Inos ez neban konfesau; alperrak izan dira nire penitenzija, ta orazi-no luziak; izan neindekian santa andi bat pekatuba egin nebanian. Konfesau baneu, gero egin nituzan obra on guztijakaz. Baña galduba nas, galduba betiko, neure onria geijaguan euki nebalako neure arimia baño.

O ejenplu arrijak bigundutekua! Pekatu bakar batek galerazo biarra ainbeste penitenzija! O onra gaistua, eta zeinbat eruan dituzun infernura! Konfesau ezin zitubana munduban ixildurik, dakar beste munduti Jangoikuaren justizijak agertutera pekatu guztijak ta bere kondenazinua beste monja bati, onen bidez bestiai, ta arik ona publikau edo zabaldu da pulpitudetati sarri besteen bildurgarrirako. Zeinbat errazago izango eban konfesore bati zuzen agertutia!

Kristinaubak, badago inor zuben artian onelan diabrubak enganaurik? Erdu ona esatera erijotzako orduban agertuko dituzula, ez pekatu bakar bat monja ak egin eukian legez berba gitxitan, baita bere pekatu ezain asko. Gura dozu arimia galdu betiko onra apur bategaiti? Zer dinot? Onria galduko dozula? Konfesiariagazkua galduko dozula? Galdu beeban onrarik Madaleniak jua jakonian Kristori bere oñetara? Alabau eban Jesus onak; atera eban arpegija bera gaiti dongaro esaten ebenen artian; emon eutsazan oñak negarrakaz busti egijozan, ta biurtu zan etxera onraz beterik Jesusen aldeti. Eta zelango onriaz zabalduen da bere penitenzija, ta konfesino humildia? Samarijako andra txarra izan zanari, ze desonra etorri jako penitenzija egin ezker? Ah kristinaubak! Konfesino egijazko, garbi ta oso bati lagunduten deusanian pekatuben damu, ta ondu gura benetakuak, onretan dau arimia konfesiariaren begijetan bere. Eta zeinbat geijago aingeruben begijetan, ta Jangoikuaren aurrian? Ez dino Kristok, aingerubak jai andija zelebretan dabeela zeruban pekatari baten egijazko konbersino, edo biurreran? Orra zelan zeruban bertan onretan dabeen ondo konfesetan dana.

Orreek alan dira, dino nok edo nok; baña ez da erraz agertuten uste askotako pekatu ixildu, ta egin dirian konfesino ta komunino dongaak. Eta errazago izango da emen lurrian eruatia bizitza larri, atsakabez ta kezka betia, lo gozorik bere ezin dala? Zeinbategi amesetan bertan irago daruez bildur gogorak? Jauna, ez dot nik orrelango ames bildurgarririk egiten; ez atsakabarik eukiten konfesino ta komunino donga asko egin baditut bere. Barre egiten dot, olgetan nas galanto kezka baga. Bai? Baña zer esan zure biziera orregaiti. Usteldu, ill, edo kangrenauta daguala zure

bijotza minik artuten ez dabenian; betiko erijotzia urrian dozula, ta Jangoikuak larga legez zaituzala. Etorriko jatzu orduba, nos iratzarriko zarian lo zorro gogor orretarik. Zuk estalduten deusazuz konfesoriarri dakizuzan pekatubak; ta nik, dino Jangoikuak, agertuko deusudaz, ta arpegijan emon; nik erakutsiko deuseet jentiai zure billostasuna, ta desonrauko zaitudaz erreinuben artian. Bai dino san Gregoriok, pekatubak berba egingo dabee; agertuko dira juizijoko egunian pekatuak ezkutuben, gordeen, ta lotsagarrijeenak, ta esango dabee, zuk egiñak gara.

Erijotzako esturan, ilteko unian, ikusiko ditubez itxura balzak, ta esango deusee zelanbait Saul dongiari legez, Amalezitarra nas; zuk ill biar nenduzun. Ikusiko ditubez pekatu laguntzat artu zituben txakur, ardi, bei, edo beste ganaduben itxurak. Ikusiko ditubez beste batzuk, ume txikar pekatuak billatu zitubezanak; sein jaijo baga sabelian galdu zitubenak estalduteren pekatuba. Eta zelango ernegazino ta amorruba ikustian argiro erijotzako kandelan pekatu ondo konfesau bagaak? Illgo zara guenian pekatari lotsorra, ta jua biarko dozu Jesu Kristoren tribunalerri aingeruba, diabruba, ta zeure konzienzija dongia lagun dituzula, egitera konfesino jenerala. Zelan urtengo dozu diabrubak, eta konzienzija akusetan zaitubezanian, zelan onelango, edo alango pekatuba larga zenduban lotsaz, ta bildurrez? Norako zara Kristoren oñetati? Nora? O salto ikaragarrija! Infernuko Luziferren oñetara. Zer egingo dozu an? Ukatu, ta estaldu pekatubak? Edertu, gitxitu, ta eskusau? Ez, ez; esango dituzu damu gorri, ta gura ta ez desesperazinoko amorrubagaz; emongo deusube komunino orde dragoien biazituna, ta guenian beti beti iraungo deusun penitenzija gogorra. Bada biti bat, edo ondo konfesau, edo kondenu. Zer aututen dozu?

Ez nau ni esan dan gauzak ezertan artuten, esango dau nok edo nok beregango. Nik ez dot konfesau baga ezer larga lotsaz, ta dakidala. Zoro garbi batzuk dira probetxu bagako, eta kalte andiko konfesinuak egiten ditubezanak. Ez nas ni konfesetara juaten guzurak esatera.

Ezetz dinozu? Erdu ona bizijo, ekandu gaisto ta jarraitubetan sarturik egon zariana, konfesinoeti pekatuak, pekatuti konfesinoera zabilzana, ez deusazu esan konfesoriarri sarri bere, daruazula gogo edo propositu benetakua ez ostera pekatuak egiteko? Ori bai jauna. Bada zer guzur andijagorik? Biurtuten zara erraz pekatubetara, zure proposituba guzurrezkua da, zure konfesinuak dongaak, ta ezer konfesau ezpazendu legez. Bizi zara bada guztiz estalduten ditubezan asko baño, kondenazinoko arrisku andijaguan, ez dazauzulako zeure itsutasuna, ta konfianza palso bategaz zagozalako.



Ai kristinaubak! Egunen baten agertuko dira bijotz asko, pekatubagaz irratsirik auaz ziñuenak *damu dot guzurrezkoa*. Eta zeinbat aldetati atrapetan dituzan deabrubak kristinaubak konfesino dongaak eragiteko! Munduba beti bat; aurrera lujurijak, aurrera irabazte bide bagiak, aurrera korrontez pekatu modu guztijak, ta aurrera konfesino obaasun bagiak. Konfesauko ezpadituzu zuzen, ta biar legez, itxi gura ez badeutsezu pekatuko okasino ezagunai, parkatu egijozu edolan bere Jesu Kristori, dirautsu eleisako irakasla santu batek. *Parce in te Christo*. Zek zaruaz altarara emotera Kristori Judasek legez, laztan palso bat? Zetarako jan gura dozu Jangoikuaren juizijua komuninoe gaistuetan? Zetarako eldu sillatutera legez zeure kondenazinua Kristoren odolagaz? Ez dira asko ta larregi bere beste pekatubak? Etorriko zara persigietara Jesu Kristo ber bera sakrilejio latzak eginda? Bada biti bat; ez aaztu, edo ondo konfesau, edo betiko kondenau. Zer gura dozu? Pensau ondo.

IRAKASTE XV

Zelan konfesinuari lagundu biar deitsun satisfazino, edo ordia biurtutiak.

Facite fructus dignos paenitentiae. (Luc. 3)

Ikusi dogu irago dirian dotrineetan, zelan konfesino onak eskatuten dituban, bijotzeko kontrizino edo damuba, ta aozko agertute, edo deklarazinua. Onezaz ostian biar jako Jangoikuaren justizijari ordia, edo satisfazinua emon penitenzijaren bidez; au da, espirituko penitenzijari lagundu biar deitsala azaleko penitenzijak.

I. Zer penitenzija modu da sakramentu konfesinoekuari lagundu biar deitsana?

E. Da konfesorik, arimako jueza dan aldeti, emoten deitsana konfestan danari.

I. Izan leite ona konfesinua satisfazino baga, edo konfesorik emoniko penitenzija egin eza gaiti?

E. Ezin izango da ona bijotzeko satisfazino baga, edo borondaterik ez badau konfesetan danak, kunplietako penitenzija errazoez emona; baña izan leite ona, eta baliotsuba obraz egin ezarren. Jazo leite konfesorik aztutia emotiaz penitenzija. Onelanguan, konfesetan danak, gomutau eragin biar deitsa; baña jazo bere leite erru baga, au bere aztutia. Alan-guan ona da konfesinua, beste utsegite, edo paltarik ez badau: alan bere urrengo konfesetara doianian, agertu biar dau zer jazo zan. Bardin erijotzako aldi gaistoren baten kunplidu ezin danian penitenzija absoluzinua artuta, balijo dau konfesinuak.

I. Beraz al dala penitentiak dauka obligazinua artu ta kunplietako emoten jakon penitenzija.

E. Bai, ta artu gura ez badau errazoez emona, ez dago prestatuik absoluzinua artuteko. Ez dago zer bildur izan gaurko egunian konfesorik ezarriko ditubezala, penitenzija astunegi ta larregijak. Eta alan askok emon daruezan kejaak, dira guzurrezko, ta errazoez bagaak. Eta nosbait jazoko balitz bestera, ezin inok bere buruz larga leiz kunplidu baga. Alan, jazo leite konfessore jakitun ta birtutetsu bat gana agertuteko oni jazoten jakona. Baña zer irago oi da? Iges egitia konfessore zuzen, arima zale, ta begiratubetati, ta billatutia beste zelan alango bat bere era, edo gustora berba egingo deitsana. Ona ejenplutxu bat.



Konfessore on batek dakus, konfesetara etorri jakon gazte bat, dala danza ta piesta zalia; topetan dau, alango lekubetan, bideetako juan etorrietan, igaro jakozala berba txaar, esku egozte loi, laztanga, ta onelango zantarkerijak bere guraz, edo erruz. Igarten deutsa, aldegiten ez badau alango leku edo okasinuetati, ezin iraungo dabela gogo edo propositu santubetan. Emoten deutsa penitenzijatzat, edo beintzat, emon eragin deutsa berbia, ez juateko alango danza nastu, nasai, ta lotsabagetara. Au da penitenzija osagarri, ta inok kendu ezin leikiona. Zer egiten dau gero? Dua beste konfessore ardura gitxiko, ta biar bada danza zale bategana, ta dirautsa oni: Jauna, konfessore batek agindu deust penitenzijaren beian ez juateko danza naastubetara. Emon begit berorrek beste penitenzija bat, ta kendu begit bestiak emona. Bai, esaten deutsa, zuaz, ta ibilli zaite modu onian. O konfessore ta penitente bata bestia galduten dozubenak! Sinistu beinguan, errazoe baga emon eutsala alango penitenzija leenagoko konfesoriak? Idigi bidia ibilli dedin pekatuko peligru ezagutubetan? Ori da arimako borrero izatia, ta ez osatzalle, edo medikuba. Zelan izango da mediku ona itxiten badeutsa gaixuari jan, edo edaten kalte egingo deutsana? Eta arima jauskor, argal, ta gaisotubai emon lizenzija ibilteko galduko dituzan lekubetan? Eta ze damu darue konfessore on ta begiratubetati iges egin, eta duzanak penitenzija arinak emongo deutseezanetara? Ez daukee alanguak damu geijago diabrubak berak baño, dino san Bernardino Senakok. *Non plus habent contritionis, quam diabolus.*

I. Zetarako da baño konfesoriaren penitenzija, konfesino onagaz parkatuten badira pekatubak?

E. Jangoikuaren justizijari biurtuteko pekatubagaz kendu jakon onria; dongaro egiña kastigetako atsakabagarrijakaz, kontu geijago euki dedin ostera pekatu ez biurtuteko; eta alan konfesinoeko penitenzijak, ez dira bakarrik len eginiko pekatuben kastigurako, baita bere osteraz egiteko. Zegaiti guraso onak kastigetako dau seme dongaro egin dabena? Zegaiti maisubak bere eskolakua? Ondu ditezan; osteraz alangorik ez dagijen. Zelango eskandalu, ta gaistakerijak ikusiko liritez errietan justizijak inor kastigauko ez baleu? Zer bada! Jangoikuaren kontra jagi danak pekatu mortalen bategaz, ez deutsa emon biar satisfazinua? Ete dakije pekatu mortala zer dan penitenzijarik, egin gura ez dabeenak, edo pekatu asko ta ezañak egin ezkeru, gauza neke gitxikuak baño egin gura ez ditubezanak? Jangoikua izanik berez ain ona, aserraturten da pekatu mortal baten kontra, atzenik izango ez daben infernubaz kastigetaraño. Eta bere errukitasunian emon deuskulako epe ta denporia, izango gara nagijak egiteko

penitenzija? Barriz, zelango tormentubak daukaz purgatorijuan pekatu mortal parkatu, ta txikarrak gaiti?

Asko deritxuenak penitenzijai, artu begi goguan zelan kastigetako dituzan lurreko justizijak lapurreta andiren batzubetan artu ditubezanak. Darueez karzelara; ezarten deutseez kateiak; daukeez toki atsituban; ez dabee oetzat, laster ustelduten jakeen lasto zatiren bat baño; jaana laburra, deklarazinoe artuen deutseezanak, estubak; ta guenian darueez gaztelu batera zortzi edo amar urterako, iragotera katiak, biargintza gogor ta jan laburrekuak. Alan bere ez dogu esaten, justizija gogorragija dala. Zer barriz eriotzaren bat egin dabenen bat jausten bada justizijaren eskubetan! Urte osuetan milla pena ta naigabe, ta gero darueez urkamendi batera bizitzia galdutera jente askoren aurrian. Eta biarrak ez dira kastigu oneek? Orain bada, lurreko agintarijak begiratu daruake lapurreta, ta erijotza egindako pekatubei, gizonen kontrakuak dirian aldeti; ta eskatuarren parkazinua negar andijakaz, autortu edo deklarauarren dongaro egiña umiltasunik onenagaz, ez darueez librau kastiguti. Esango bazeuntsa urkamendirako karzelan daguanari, parkatuten jakola urkatuba izatia, gura badau sartu konbentu estu baten iragoteko an amar urte, egunian egunian baru egiten dabela, jagiten dala gaberdi guztietan kartujo bat legeez, artuko leuke trukada au? Bai ta besuak zabalik, ta esker andijakaz. O kristinaubak! Nun da gure fede, ta errazoa? Zer dau zer ikusi pekatubak gizonen kontra dan aldeti, bardinian iminten bada Jangoikuaren kontra dan partez? Pekatu asko ta ezañak egin ditubenai, infernuba sarri merezi izan dabeenai, zua-kez esatera, egin dagijela urte guztijan egunoro ordu bete orazino, erabili aragijaren kontra zilizijo batzuk, kristinau on askok legeez; esango leuskezube, ill gura dituzun, zoratu ete jatzun. Asko diriala eurentzat errosarijuak egun batzubetan esatia, edo beste debozino laburtzubak etxian egitia. O penitente ederrak! Inos pekatu mortalik egin ezpalebe bere, ezin penitenzija gitxiago eskatu leikee. Alan ez dazaube zer dan Jangoikua ofendietia pekatu mortal bategaz. O itsumena! O fedieren illtasuna!

Enzun San Karlos Borromeok dirautsena. Zelan, dino, lujuriotsu batek eziko dau bere aragi gaxera makurtuba, mankau baga modu onian zilizijo, barau, ta disziplinaakaz; edo zelan edo alan sakrifizio ezigarriren batzuk egintzaka? Zelan, iñoren ondasunak bide dongaz beretu dituzanak, emongo deutsa Jangoikuari satisfazinua, ta ebagi aurrerako inklinazino edo natu gaistua, ostubak biurtubaz ostian, emoten ez badau zerbait limosnaz? Zelan, kristinau arro, sutsu, ta aserrakor batek ezi edo bezau daike bere jenijo edo griña dongia, zeñek daruan eziezaz, birauak laguna-



ri egoztera, murmurazino astunetara, orazinoera emoten ez bada, zein dan bitarteko ta osagarririk onena kenduteko arimako gatzak?

Zelan, Jangoikuaren gauzeetarako nagi ta atzeria izan danak, artuko dau bizitza barri iraungarri bat, ta baketu Jangoikuaren justizija, ez badua sarri sermoiak enzutera, meza nagusi bere eleisakora, bespera, errosarijo ta beste gauza onetara, ta urtian sarritxu konfesau ta komulgetan ezpada? Eta zer egin biar ez dabee errijetan ejenplu dongaak emon ditubezanak, ta arima askori emon deutsenak infernurako bidia? Zelan onelanguak desegin eskandalu, ta arimetan egin ditubezan kaltiak, bizitza santu ta ejenplu onakaz birtuteko usainak zabaldu baga? Guztijaz bere esango deutsube, asko dala konfesetia pekatu guztijak, ta egitia ezkutuban erre-zu, edo penitenzija erraz batzuk. Gura dabee konfesorioa juan ez dakijen ezertan eskubetara. Gura ditubez irago egunak len legez; munduko olganza zoro edo gaistuetan len legez jan edanak; len legez gorputzak palagau, ta ondo artu. Zer geijago? Artu gura ez ditubez askok kenfesorerik errukitsubenak eskusau ezin leikezan, edo gura ta ez emon biar dituzan penitenzijak.

Ona ejenplo batzuk. Izango da gizon ardaora emona, sarri katutu edo ordituten dana; ardanetxe edo tabernak gogo obiaz bisitau daruazana elexia baño. Dazau konfesorioak, pekatubaren iturrija daguala sartutian tabernan bera legezko lagunakaz; an belutu, ta doiala bideetan zabuka, albo alboka; ta errosarijo orde daruazala etxera biaro eskergak, diadarrak, emazte, ta umiai bizitza gogaitkarri bat emoten deutseela, etxian biar dabee arduari emonaz. Dirautsa konfesorioak, adiskidia, zuk salbau gura badozu, egin biar dozu konfesino jeneral ondo prestauba, a aginduten deutsut, oñik ez iminteko edateko tabernan, ta onez ostian, edan aldi bakotxian, edo gois edo arratsalde baten, ez iragoteko kuartillu bat ardaoti, ta geijen, kuartillu ta erditi, ta ori ez orditu oi dirian lagunakaz, ta tabernan. Ez dau artu gura onelango penitenzija bene benetan kunplietako goguz. Ezin eruan lei absoluzinoerik; bada aginduten ez deutsa beste aldeti egin biar dabena baño, zein dan alde egitia pekatubaren jausgarri edo okasino urrekoti.

Arkituten dau beste bat, etxian daukana pekatu zantarraren galbide edo okasino jakina, edo bai daukala sartu urtena beste etxe baten, nun egin edo konsentidu daruazan pekatu ezañak. Dirautsa konfesorioak, bota etxeti okasino donga orren laguna, edo urten beste leku batera; ez zelan bere oñik imini pekatu laguna daguan lekuban. Ez dau onelango penitenzija osakarririk artu gura? Ezin absolbidu lei konfesorioak; bada, agindu baga bere, egin biar leuke aguintu jakona?

Egongo da beste bat lagunagaz gorrotuan, berba ta agur onik bere egin gura ez deutsala arerijotzat daukanari, alkar bisitetan ez dabee auzo onak legez gaiso dirianetan. Dirautsa konfesorioak, zuaz ta egizuz bakiak, kendu egizu zer esana, umildau zakijoz; zuk uste dozu, ak ofendiduta zaukazala; ak usteko dau, zuk emon zeuntsala atsakabia; ta nik dirautsut, bitzibok daukazubela erruba. Ez dau artu gura penitenzija au, zein egin baga ez daguan bake iraunkorrik? Bada ez dago prestauba absoluzinua artuteko. Onelan, emon biar dituz konfesorioak arimia osatuteko biarrak dirian erremediojo edo bitartekuak, alderagiteko pekatuben okasino urrekuetati, ta penitentiak artu biar dituz borondate onez.

I. Ah jauna! Penitenzija gogorra, barau, ta gorputzaren nekagarriak, egin zirian konbentu barrubetan sartuten dirianentzat, ez munduban bizi gura debentzat.

E. Ederto. Baña penitenzija geijago biar ez dau pekatu geijago egin dabena, edo peligru andijaguen artian bizi danak? Ai itsutasuna! Ikusiko dira kristinau bizitza dongia eruan dabee, belu jagi, galanto jan, egun guztian edo jokuetan, edo barriketa alperretan; meza bat aringa enzun, errosarijo arinago bat esan, ta beste gauza onik egiten ez dabee. Zer egingo dabee onelanguen aragi erregalau edo gozatabak penitenzijakaz ezi baga gorputz uzu, ta gatzera obenduba?

I. Baña zer penitenzija egin leike nekezalerik geijenak?

E. Atxurlari, ikazgin, olagizon, ta beste askok daukee bizitza gogorra, gorputzen mankarrija. Alan da, ta onelanguak kunplidu ezkeron konfesorioak emon deutseezan penitenzija, astunak izan ez oi dirianak, artu biar ditubez penitenzija orde, ta borondate onaz, Jangoikuaren amorez, daruezan atsakaba, ta gorputzeko pena mankarriak. Onelanguak euren biarretan daruez zilizijo ta disziplina ederrak. Ai baleruez, bizitza onak lagunduten deutseela, inori ezer kendu baga! Zelan kaputxino batek beste satisfazino emongo leuskijuen Jangoikuaren justizijari! Badagoz bai onelango nekezale zuzen, garbi, ta Jangoikuaren bildurrekuak. Baña, o negar egiteko gauzia! Esan daiegeu beste asko gaiti profeta batek zinua; *erein zenduben asko, ta batu gitxi*. Nekatuten dira marasma txarrak legez ezertarako ez dan euna eijoten. *Telas aranae texerunt*. Zegaiti alan? Zerren daruezan neke, pobreza, ta atsakaba guztiak, ez penitenzijako espiritubaz, ez pazienzijaz, ta bai geijenak, edo erneguz, edo biaroz, edo bizitza dongaan sarturik dagozala; batzuk emonak dira ardaora larregiaz; beste batzuben egin daruez lapurreta zitalak, edo engañubak ofizijuetan; ta txito asko egon oi dira lujurijako bizijo zantarran. Onek darue kurutze gogorra; baña lapur dongiarena legezkoa, ta onek legez, joko dabee kurutzeti



infernura, bizitza barri bat artuten ezpadabe. Grazijan ez daguanak, ez dau zerurako ezer irabaziko eruana gaiti pena ta atsakaberik andijenak. O nekiaren azpijan bizi zarianak! Ezagutu egizube egija oneek; egizube konfesino guztiz oso ta on bat desegiteko lengo dongaro egiñak; jarri zaitez alan Jangoikuaren grazijan; eruan egizubez gero pekatuben orderako, daruazubezan pena gogorak, ta ikusiko dozube, zein poz izango zarian erijotzako orduban.

I. Zelan erraz egingo jakuz penitenzijak?

E. Gomutaubaz zelan kastigetan zirian pekatubak Moisesen legian, ta zelan Jesu Kristo etorri ezker lenengo urteetan. Ona Moisesen legian zer aginduten eban Jangoikuak. Esaten dabena blasfemija, edo berba gaistoren bat Jangoikuaren, edo bere izen santubaren kontra, izan dagijala erijotzia, ilten dabeela arrika errikuak. Gurasuari biaro dongaren bat ezarri, edo eskuba luzatuten deusana, lotsarik gordeten ez deusana, ta bizijo gaistuetara emona, izan dedilla arrika illa, ta arri artian ezkutauba. Andrakume ezkondu gizasemeren bategaz pekatu loija egiten dabena, izan dedilla illa, baita bere pekatu laguna. Ganadu, edo abereren bategaz pekatu egiten dabena, illa izan dedilla, kendu dekiola bizitzia. Alan egozan Jangoikuak emoniko erijotzako sentenzijak senideren batzuben arteko pekatu loijak gaiti, ta izentetan dira, ze senidetzuk, legeko liburuban. Aginduten bere zan, ilteko arrika aaztu, edo igarla bidebagakuak. Zuaze zuaze orain itandutera onelangotzat daukazubezanai, nun galdu dan, nok ostu dabena onelango gauzia. Zelango kastiguba izango ez dabee gero?

I. Ah Jauna! esango dozu, antxinako legia gogorra zan; baña Jesu Kristoren legia bigunago da; au da amore ta bakezkua.

E. Bai; ez dago Kristoren legia alango odol botaterik. Baña len erijotziaz kastigetan zirian pekatubak txikarraguak ete dira orain? Txikarraguak? Askozaz andijago, ta ezañaguak kristinau diriantzat, ta infernuban geijago kastigubak izango dira kristinau alango pekatubak eginda penitenzija бага kondenetan dirianak, Moisesen lege santuban dongaro egin ta kondenau zirianak baño.

Enzun bada zelango penitenzijak emoten zirian Jesu Kristo etorri ezker, ta konfesinoeko sakramentuba eguan egunetan.

Garizumako baru bat errazoe zuzen бага austen ebanak, egin biar eban ogei eguneko ur ta ogi utseko baruba; ta berrogei egunekua, lau edo kuarta denporetako baruba austen ebanak.

Gurasuari bidebagako injurija edo atsakabia emoten eutsan umiak, egin biar eban iru urteko penitenzija, ta zazpi urtekua, despezijio andiren bat egiten eutsanak.

Eleisan opizijo santubetan barriketan egon zirianak, egin biar eban amar egunian ur ta ogiazko baruba.

Guzur ezagutubaren ganian juramentu egiten ebanak, berrogei eguneko baruba ur ta ogi, ta onezaz ostian, zazpi urteko penitenzija.

Seigarren mandamentubaren kontra pekatu egiten eban neska, edo mutillak, iru urteko penitenzija.

Andrakume ezkonduba jausten bazan onelango pekatuban, amar urteko penitenzija, komunioerik emoten ez jakola denpora guzti atan.

Donzellaren bat jausten bazan aragijazko pekatuban, amar urteko penitenzija, ta bardin andrakume alargunarentzat.

Koñata, edo beste senideren bategaz jausten zanak, amabost urteko penitenzija.

Amarrenak pagau ez zitubanak, eukan ogei eguneko baruba ur ta ogi utsakaz, ta pageetia eleixiari lau bider geijago.

Gauza astunera elduten zanak lapurretan, zazpi urteko penitenzija, ta bardin guzur astunen bat erasten eutsanak lagunari.

Onelan egozan beste pekatubak gaiti penitenzija latzgarrijak.

I. Baña zer egin biar eban penitenzijako urte aetan?

E. Enzun. Garizumako lenengo egunian agertu bair eban elexa ataijan soñoko pobre, ta zerbait etenakaz; onelanguak zirian orduko lutu-janzijak. Eleixan sartu eraginik, iminten eutsan obispuak autsa buruban, ta emoten eutseezan zilizijuak penitenzijako señaletzat. Etzuten zirian gero auspaz, ta alan obispo jaunak, zelan beste sazerdote ta batuten zirian kristinaubak, egiten eban orazinua eskatuteko Jangoikuari parkazinua penitenzijara sartuten zirianak gaiti. Obispo jaunak esaten eutseen, bota biar zituzala denporan zati bateko eleisati, zelan atera zituban Jangoikuak Adan ta Eba paradisuti euren pekatuben kastiguban. Alan, ateraten zitubezan eleisati, ta itxiten eutseezan atiak.

Baña zelan bizi biar eban euren etxeetan? Lo egiten eban lur gogorren ganian. Zeinbat baru ur ta ogi utsekuak? Ez eban inos urtetan dibersinoe garbijetara bere; ta egozan bakartuta deskomulgau batzuk legez. Nok ikusi eikezan penitente ferboroso aek eleisa ataijan auspazturik negarrakaz erregututen eleisara juazan kristinaubai, eskatu egijuela Jangoikuari miserikordija euren pekatubak gaiti!

Urte osuetan eukeezan alan eleisan sartu бага, ta ekusanian obispo jaunak egin ebela negar asko euren pekatuba gaiti, emon ebela ejenplu ona, largaten eutseen eleisan sartuten; ez baña meza guztija enzuten, ta bai egiten zan sermoia, ta mezako lenengo zati bat opertorijoraño. Onetan sartuten zanian mezaemolia, urtetan eban meza laguntzalle eleisgizo-



nak, ta esaten eutseen penitentiai: *zuaze zubeke* kanpora: *asi da mezia*. Zelango negarrakaz urten eruen, meza enzuteko prest ez egozalako! Ah bai! zinuen; galdu dogu geure pekatubagaz Adanek galdu eban baño leku obia.

Gero, irugarrenez, emoten eutseen meza enzuteko lizenzija; baño eragozten jakeen beste kristinaubakaz komulgetia. Eta zeinbat denpora, ta negar kostetan jakeen eldu orduko komunino santuko maira! O denporak! O egun ederrak! Nora zaree? Zer dakusku gaur? Pekatuba korrontez, ta penitenzija itxura bategaz palagau gura Jangoikua, ta baketu konzienzija. Negarren artian irago biar liratian denporak Jangoikuagandi miserikordija eresteko, irago gura ditubez askok danza ta olganzetan; gorputza bigun arturik, galanto jan ta edanda; ta burubak agertuten ditubezala, ez zilizijoz ta lutuz, ta bai apaindurik aldaben bestian, azturik ze pekatutzuk egin ditubezan. Eta onelango bizi modubaz salbau uste dabee penitenzija geijago baga? Oraingo pekatubak txikarraguak ete dira lengo kristinaubenak baño, pekatugillak geitu dirialako? Aek bere egiten zitubezan euren konfesinuak oraingo kristinaurik geijenak baño damu andijaguagaz.

Ordu onian, ez gaitezala gu agertu eleisa ataijan soñoko eten ta lutuzkauakaz; enzun daiguzala sermoiak, ta meza santuba. Baña ez egin geure borondatez penitenzija geijago; ez artu bizitza Jangoiko bildurreko bat; urten bulla, ta olganza zoruetara, ta bizi, inos pekatu egin ez dabeenak bizi ez dirian legez, pekatu asko egin ezkerok? Nun ikasi da dotrina au? Ez da inos desegindo San Juan Bautistaren esan au: *Egizubez penitenzijako frutu biar besteknuak. Facite fructus dignos penitentiae.*

IRAKASTE XVI

Konfesino jeneralaren ganian.

I. Zeren ganian izango da gaur dotrina?

E. Konfesino jeneralaren ganian, zein dan askok uste dabeen baño biarragua; bada ondo egiterik, dago askoren salbazinua; ta ez egiterik, edo dongaro egiterik beste askoren kondenazinua.

I. Zer da konfesino jenerala?

E. Da len banaan egin zirian konfesinuen osteria egite, edo barrizte-ta aldabaterakua, esaten diriala konfesino baten len konfesauta dagozan, ta ez dagozan pekatubak. Konfesino jeneral au izan leite, edo bizitza guztikua edo denpora zatiren baten egin dirian konfesinuena, bakotxari zelan ondo dagokan, edo zelango premiña dabean, gero irakatsiko dogun legez.

I. Zetarako da baño konfesinoe jenerala, len egin badira konfesinuak?

E. Da bada, edo seguruago juateko Jangoikuaren bidian, edo lengo konfesinuak dongaro egin badira, aurkituteko salbazinoeko bide berez bakarra, zeña dan konfesino ona batiatu ezkerok pekatu mortalen bat egin dabeenentzat. Konfesino dongaro eginak ez da parkatuten pekatuba, ta bai geitu beste ainbeste, zeinbat konfesino ta komunino donga egin dirian, ta pazkuako obligazinua kunplietarik bazirian konfesino, ta komunino dongaro eginak, geituten ditu beste pekatu mortal bi. Urte askotan dongaro konfesau, ta komulgau dirianak, zeinbat pekatu pillo batuten ditubez?

I. Baña biar biarra ete da konfesino jenerala?

E. Bai txito askorentzat, ez guztientzat. Alan bada, batzubentzat da alperra, ta kaltegarrija, beste batzubentzat guztiz ona, ta biar bada, geijentzat txito biarra, edo preminazkua.

I. Zeintzubentzat da alper, eta kaltegarrija?

E. Benetako eskrupuloso, edo arima bildurtiegijentzat, zeintzuk egin eben len bein edo geijagotan jenerala, prestau ziriala ainbat onduen, eza-gueraz larga baga gauza astun eso esan biarrekorik, ta bizitza geroko on bategaz emon zitubezala damu ta propositu egijazkuaren ezaugarri edo seña-liak. Jazoten jakee onelango batzubei, gerora arimako bakia galdutia. Sartuten dira larritasun, ikara, ta bildur gogaitkarrietan. Nosian bein juakoz konfesoriari esatera bata ta bestia aspertu ezinik esatez. Aztuten jakee zertzuk konfesau zitubezan; gauza bat esaten dabee sarri, beti legez dabilz tristuraz beterik. Diabrubak lagunduten deutsee konzienzija nastetan;



kendu daruake gozo ta poz guztija Jangoikuaren gauzeetarako; ekarten deutseez gogorazino, edo pensamentu estugarri asko. Ai enel! dino onelanguak. Zer izango da nizaz! Konfessore jakintsubak esan arren ez eragiteko lengo gauzai, esanda daukazala biar bestian, dinue eurek gango; ez daki konfensoriak nire barruko barri; uste dau konfesautu daukazala. Zer balijoko deust engañetan bada? Zelan salbadu konfesau baga osoz? Konfensoriaren oñetati urten orduko, osteru gomutetan jakee zer edo zer; artuten ditu barritasun ta bildurrak; dabilz komulgetara jua ezinik; edo isten deutsee komulgetiari, edo duaz osteru konfensoriaren oñetara; pintetan jakeez pekatu anditzat gauza begitandubak; konfesaubak, konfesau eztat; ondo esanak, oker esantzat; ta alan etorri dira bat baño geijago ernegetara, ta euren burubak iltera bakerik topadu ezinda. O zainbat asmo daukazan infernuko arerijuak! Dongaai, zabalduen deutsee larregi zeruko bidia, ta artu ezin dituzanak bide onetati, edo ondo bizi dirianak, artu daruaz desesperazinoko bideti.

O arima errukarri ta tormentu onetan zagozana! Esan egizu. Konfesino jenerala egin zendubanian, larga zenduban esan baga, lotsaz edo ezagueraz pekatu mortal edo bere zirkunstanziya agertu biarrekoren bat? Ori ez jauna; esan nituzan goguan neukazan guztiak, ta ez neban ezer itxi lotsaz. Eta absolutzino santuba artuta geratu zinian bijotzeko bakiaz, ta kezka baga? Bai jauna, ta neritxan, arinduta eguala neure arimia, karga astun bat bota baneu lagaz, ta pozak negar eragiten eustan. Eta arimako bakia galdu baño leenago, esan zeuntsazan konfensoriari gogora etorri jatzuzan pekatu edo zirkunstanziya azturen batzuk? Bai jauna. Ez deutsu esan arrezkero konfensoriak, ez eragiteko lengo gauzai, ta largateko bere kontura? Bai jauna sarri bere. Eta konfesino jenerala eginda, artu zenduban bizitza barri, edo on bat? Alde egiten zenduban pekatuko okasino ezagunetati? Bai jauna, ta gurago neuke ill bere, pekatu mortal bat egin baño. Bada txorua! Zetako zabilz buru auste orrelanguetan, baldin zuk egin zenduban konfesino jeneralak badaukaz señaile ezin obiak? Zegaiti obediu ez zeure konfensoriari, zeñen berba dan zuretzat Jesu Kristorena? Laño artian zagoz ta biar dozu nok zuzenduba. Itsuba zara, ta biar dozu itxu mutil edo argi emola bat. Alan bada, egizu itsuban konfensoriak dirautsuna, ez eragin lenguai. Obeto dazau zuk baño zer biar dan konfesau, ta zer ez. Eranzun bildurrari, nik egin biar dot konfensoriaren aginduba, ta itxi atiak diabru naasliari obedienez jakoko birtutiaz. Au egiten badozu, etorriko jatzu bakia, bestelan ez zara ondo ibilliko. Ez iges egin beste konfessore ez zazauzanagana konfesino jeneral barri bat egitera. Galduko dozu buruba, ta ez dozu bake iraunkorrik topauko. Onelanguentzat da kalte-

tsuba konfesino jenerala; bada amar eginda bere, biurtuko dira lengo bildurretara, ta kenduko ditubalako ustian, geituko jakoz.

Esan dot, doktrina au aituten dala konfesino jeneral onaren señailekaz konfesau diriantzat. Baña badira kristinau eskrupulosuak dirudijekak, sarri kofesetan dirianak, egin ditubenak konfesino jeneralak, ta inos bake onik izan baga. Esan darue len aitatu ditugunak legez, bildur diriala ondo konfesetan ete dirian. Zelan ez dirian ondo espliketari, dirautse konfensoriak, zagoz bakian, itxi lengo gauza zaarrai. Konzienziyak dirautsa, itxi zenduban konfesau baga lotsaz onelango edo alango pekatuba; ezin gero baketu dira esan guztiakaz; darue bizitza estuba; aingeru onak minduten ditu bijotzian. O arima gaiso ta errukarrija! Zetarako dira estalketa orreek? Ez dira eskrupulubak, ta bai Jangoikuaren argialdi edo ispirazinuak zuri konfesau eragiteko antxina lotsaz konfesau baga larga zendubana. Atera artian arantzari, ez dozu bakerik izango, eruango dozu bizitza larri bat bizi zarian artian, ta atrapetan bazaitu erijotziak konzienziya zuzen agertu baga, joko dozu infernuban: Zuaz ainbat lasterren konfessore on baten billa, ta esan egijozu irago jatzuna; egizu konfesino jeneral barri bat; bada lotsaz konfesau baga itxi dabeenak pekatu mortalen bat, ta ezauera onegaz egin ditubezan konfesino ta komuninuak, dira sakrilejiyo andijak. *Begira badago garbija ta geun baga, zure gorputz guztia bere, argituba egongo da; baña zure begija gaiso ta gaiso badago, zure gorputz guztia bere, illumian egongo da;* alan dino Kristok. Esan gura dau; bagabilz zuzen, garbiro, ta tranpa baga agertuten deusagula konfensoriari irago jakuna, lotsaz gorde baga konfesau biar dana, egin gero bere esana, obeidu itsu itsuban; baña bagabilz eztatgiz, ezkutuka, ixillka, jira biraka, ta zinkotasun baga, ez dau konfensoriak errurik izango konseju txarra emoten badeusku, zelan mediku batek eukiko ez daben osagarri okerra emotiaz gaixo danari, estalduten bajako gatxa. Gorroto deutsee, ta madarikatuten ditu Jangoikuak bijotz tolestubak, auan bat, bijotzian beste bat darabilenak.

I. Baña norentzat izango da mesedegarri, ta ona konfesino jenerala?

E. Lenen, leenago inos egin ez dabenentzat, baita neure ustian eskrupulosuentzat bere, oneek len egin ez badabe, ta izan leite bildur guztietati urteteko bidia, konfessore jakitunen baten oñetara baduaz. Ez dago iñor zuzen jakin leikianik, ume egunetako, edo zortzi urteti amabost urteraño konfesinetan utsik egin ez dabela. Zelan prestetan da esaminia egiñaz, damu ta proposituba eruanaz denpora zoro aetan, zerbait jakin arren buruz doktrina santuba? Zelan enzuten dira mezaak jaijgunetan? Batera ta bestera begira, alkar joka, barrez. Egin daruez birauak dei eginik. Diabrubai, Aneñai... ta demoniaren izena nosbait artuten badabe,



uste dabee, pekatu ikaragarri bat egin dabeela. Barriz alkarren artian oi dabilz burruka, ukabilka, ta arrika; esango dabee, mortalak dirialala pekatu arinak; arinak, mortalak. Zeinbat erremuskada, ta mandaturik egin nai ezak gurasuai! Nor baketuko da denpora aetako konfesinuakaz? Beraz ondo esan dot, txito mesedegarri ta ona izango dala konfesino jenerala, inos egin ez dabenentzat.

Da bere txito mesedegarri, ta ona, estaduba artu gura dabeenentzat. Zelan sartuko da bat ondo eleis gizon izatera bere arimia garbitu baga? Ez da arkituko fraile, ez monjarik, edo habituba artuteko denporan, edo profesau biar dabenian, konfesino jeneral kontuzko bat egin baga, len egin da bere. Bada zer? Ezkonduko dirianak, sakramentu santu andi bat artu biar dabeenak, ez dabee garbitu biar euren arimia milla arriskutan sartutera baduaz?

Baña zer aitatu dot? Zeinbat ete dira premina oso osua daukeenak? O gazte mundukuak! Zelangua da askoren bizitzia? Iragoten ditube urtiak nasaitasunik andijenetan, libre ta askatu pensamentu zantarrak. Umetati ikasten dabee eskola dongia; berba lotsagarrijetati iragoten dira eskuka ezañetara; aitatu bere biar ez dira egin daruezan geistakerijak. Botaten da lotsia, dabilz piestarik piesta, apaindu ta dongaro olgetia baño beste asmorik ez darabilela. Mutil gaistuak tenta ta tenta bidian topetan dituben neskatillak. Oneek modestija guztija galdurik, mutillen moduko egin da. Buruko uliak baño pekatu geijago eginik, sartuten dira ezkontza asmuetan, geijago begiratuten deutseela euren pasino dongiari, ezkongeiaren birtute, ta bizitza onari baño. Askok artu darue ezkonduben libertade guztijak ezkondu baño leenago, ta sartuten dira ezkontzako sakramentuban Asmodeo infernukua serbiduta. Eta zer itxaran daik ee onelango ezkontzetati? Badira esan daruen traidoriak, eleis deijak egiten abijau ezker, ezkonduta dagozala Jangoikuaren aurrerako, ta herejijako doktrina onegaz egin darue aitatu ezin ginaizanak. Onelan pretaurik duaz konfesetara ezkontzako egunian, edo egun aurrian, au da egitera sakrilejijo andi bi gero komulgaubaz, ta irugarrena ezkontzako sakramentuba artubaz pekatu mortalian. Au da askoren ezkontzako sarrerria .Oneek, ze konfesino jeneral egingo dabee ezkonduteko, bizi badira dongaro ezkontzako egunetaraño? Zelan zuritu beinguan mauru baten narru baltza?

Alan bada, ezkonduteko gogua artu ezker, asi biar da konfesino jenerala egiteko prestetan. Ebagi biar dira okasino donga ta ezagunak, ez tratau ezelan bere ezkongejiaz, dalako peligru andiko gauzia; ta asmo onaz, garbiro, ta arimia konfesino jeneral on bategaz garbituta daruanak ezkontzara, izango dau Jangoikuaren bedeinkazinua.

I. Eta nortzuk egin biar dabee konfesino jenerala preminiñaz?

E. Txito askok. Ona emen argigarri, edo igarteko zuzenbidia. Konfesino jenerala da obligazino estu, ta preminiña gogorreku, leenagoko konfesinuak dongaro egin ditubezan guztijentzat.

Barriz konfesinuak izan leitez dongaro egiñak, edo esaminiaren ardurabagatasunaz, edo damu ta propositu senduaren paltaz, edo pekatu mortalen bat lotsaz, borondatez, edo ezagueraz ez agertubaz, edo penitentzija errazoez emonak artu gura ezaz.

Esaminiaren paltaz egiten dira konfesino dongaak, bakotxaren nagitasun, alpertasun, ta ardurarik ezaz gogora ekarten ez dirianian, ta gero konfesau bere ez konfesau biar zirianak. Irago darue mandamentubak beingo baten, ta bakarrik geratuten dira pekatu andi andi, lodi lodi, ta edozeini gatx deritxuenetan; largaten ditubez esaminau baga pensamentuz, ta berbaz egiñak; edo beintzat ez badabe gogorik gauza gaisto, ta agirikoen bat egiteko, ez dira geldituten bestelango atsegin zantar, berba loi, ta kaltegarrijetan;. ez aztertu bere iñori emon ete deutseen ejenplu gaisorik. Zeinbat obligazinoe kunplidu biarrak, esaminetan ez ditube guraso, alkate, errejidore, ta ofizijuak daukeezanak? Eta ezagututen ez baditube pekatubak euren esaminiaren faltaz, ez dira parkatuak izango. Argi berezko bat biar da, Jangoikuak emona, pekatu ezkutukuak ezagututeko, ta orazinoe on baga izango ez da argi au. Alan bada esaminiari lagundu biar deuta, batez bere, kargubak daukezenen artian, argi eskatute gogozko batek, ta artu, biar dan beste denpora, esaminiaren doktrinan esan gen duban legez, gogoratuteko pekatubak.

Baña konfesinoe gaisto geijago egiten dira egijazko damu, ta propositubaren faltaz, esaminiarenaz baño; zerran damu, ta propositu egijazkuak berez dakar konzienzija aztertuteko, ta pekatubak ezagututeko gogo ona.

Damu au gitxitan arkituten da, pekatuba izan daniel zori onekua mundurako. Ikusiko dira pekatuko bidetik izan dabeenak ezkontza euren gustoko bat, igon dabeenak fortunan; Otsein izatetik irago dirianak etxe ko andra izatera, pobrezatik diru, edo ondasunak. Oneek, zelan esan egijaz, ta biotz biotzerik damu dabeela Jangoikua ofendiduba, gurago dabeela alango fortuna, edo zorijon mundukuak euki baño, gelditutia leengo meetasun, ta pobrezan? Bada mundu onetako edozein gauza geijago estimetan dabenak Jangoikuren grazija baño, ez dauka pekatubaren damurik. Pekatuba, kaltiak mundurako ekarten ditubanian, gorrotetan da zelanbait, ta ez da gauza ain gatxa Jangoikuaren ofensia dalako bere, gorrotetia, nola dan munduko fortuna, zori on, edo mesediak dakarzanian. Lapurrerija



baten justizijak artuten badau bat, sartuten badabe karzelan, gosia iragoten badau, atsakaba onetatik jaso leike biotza Jangoikuagana, ta damu artu Manases batek legez katia artian, ofendidu dabelako Jangoiko ona; emengo penetati irago daikez fedeko begijak infernuko karzelara, zeru galdu dabena gana, ta bai ametara bere Jaungoiko maitegarri, emen kastigau nai zain dabena. Baña lapurrerijari, irabazi gaistuetati aberastu danak, nekez gorrotauko dau pekatuba, nekez biurtu irabazi gaistuak. Neskatilla, anima, honra, ta estimazinoe guztia mundurako galdu dituzanak pekatu eginda, bere maitetzailiaren falsokeria ezagututa, ikusten da negarrez, uletiraka, ta ernegazinoe gogorrian. Damu dau pekatu egiña, ez egijaz beingoan biar legez; baña Jaungoikuaren grazijak arkituten dau onelanguen biotzian prestaera obia gorrotetako pekatuba Jaungoikuaren ofensia dan aldeti, bestelango neska pekatubetik sari andijak, estimazinuak, ta fortuna lurrekuak atera ditubenak baño. Konfesoriak bere, ez dauka ainbeste neke ezagutu eragiteko pekatuba, mundukuen pagu gaistotik gogoratu eragiten deutsanian, zeinbat maitatzalle obia dan Jaungoikua, zenbat obiak dirian bere sebitzariantzat daukazan sarijak, zenbat bake geijago arkituten dabeen garbiro bizi dirianak. O kristinaubak! Eta zetara joko dabee azkenian pekatutik datozen zorion edo fortunaak? Zer aterako dabee emen egun on batzuk irago, ta gero betiko infernuko pena, ta atsakabetan egoten badira? O zelan esango dabeen probetxu baga; zori gaistoko fortunak! Oba neban Jangoikuari jarraitu baneutsa, bizi izan banintz konfianza guztia beragan ipinirik; irago pobrezta apur bat; zenbat aberastasun obiak izango nituban gaur zeruban! Alan bada, estimetan ez dabena geiago Jaungoikuaren grazija lurreko honra, ondasun, ta bizitza bera baño, ez dau damurik, ez konfesinoe onik onelan konfesau dan artian, ta biar dau egin konfesinoe jenerala.

Damurik ez darue konfesinoetara prest dagozanak irabazi bide bagaak egiteko. Onelanguak dira merkatari, dendera, eskribau, ta beste tratulari, atera al dabeen guztia ateraten dabeenak, begiratu baga legiak emoten dituban zuzen bidiai. Errijetan kargubak ditubenak, egiten bere ditube, ez dinot guztiak, bai batzuk, tranpa asko isiltzurik, ta kontubak emoteko tranpa barriak, igarri ez deijuen beste justizijako, ta bezinuak; *Au biar dot, neke asko artu dot, bestiak bere egiten dabee;* au da euren betiko lelo, edo doñuba. Itanduten deutsee ziur, ta garbiro konfesore jakitunai utsik ez egiteko gogoz? Zein gitxi! Egin da gero, konzientzijako kezkiak obligetan dituz zerbait esatera konfesinuan, baña milla edergarri, apaindurija, ta estalgiz kofesoria bere aldetik eukiteko. Oneen konfesinuak dira gaiki eginak, izango bere bai, biurtu artian, ezelan aldabeela, bide bagako ira-

bazijak. Oneen artian sartuten dira logrerija zaliak, diruba prestetia gaiti, eskatuten dabeenak zerbait geijago, ta gero osoro, emon zana; asko tratu dira gaiki egiñak, ezteuse itandu gura gizon jakitunai, ta beintzat ez garbiro, ta egija billatuteko gogoz. Onelan kofesau dirianak, egin biar dabee konfesinoe jenerala asmo sendo bategaz biurtuteko irabazi txarrak; bestelan ez dago konfesinoe onik, ez parkazinoerik.

Egin biar dabee konfesino jenerala damu egiazkuaren faltaz, len egin dirian konfesinoiak gaitik, okasinoe borondatezko gaisto, ta ezagunetan egon dirianak, aldetik egin baga konfesinoe onduan. Pekatubaren okasinoe andi, ta urrekuan daguana, dago pekatu jarraitu, ta betikuan; konfesetan nintzan jauna, absolbitan ninduben. Bai; baña zeure arimako kaltian, zerren edo engañadu zenduban konfesorria okasinoe gaistuak agertu baga, edo arkitu dozu konfesore kontu gitxikoren bat, zure arimiaren salbazinua gaiti neke gitxi artu dabena, ta emon deutsuna, bijoen kaltian izan dan, absolutuzinua. Zetako da konfesetia, konfesinoe onduan biurtuten bazara leenagoko olgantza, fiesta, joko, etxe, edo lagunetara, nundi jaijo zirian lengo pekatubak? Ezpadozu gogo, ta animorik largateko arimako galbidiak, edo okasinuak, zure damuba begitanduba, ta guzurrezku da, pekatubak oñen gañian dagoz, okasinoe ezagunak oñian badagoz. O zelan gorputzeko gatxetan eukiten dan kontu geijago! Zelan iges egiten dabeen osasuna galtzeko pelliburubetik, osasuna benetan nai dabena!

Emendi dator zuzen bide duda bagako au: konfesetako bitarteetan billatu ta ipinten ez ditubeenak bitarteko biar bestekuak urteteko pekatubaren ekandu, edo usadijo gaistoti; edo pelietan ez dirianak goituteko etzigiera, edo pasinoe txaar, gauza gaistuetara arrastaka legez daruazanak, konfesetan diriala gaiki, ta egin biar dabeeela konfesinoe oso, guztien, edo jenerala. Ondu baga, ta indarrak baga arimako arerijak goituteko, nun da damu, ta egijazko proposituba?

Orain bada egin biar dabee konfesinoe jenerala bizijo jarraitubetan irau dabeenak, bitarteetan konfesetan ziriala. Onelanguak dira maldizinuak ezarteko ekandu luziak euki ditubenak; batzubetan egijazko gorrotz, bestetan intenzinoe, edo gogo baga, ta gitxitan eskandalu emon baga. Konfesau bai, baña aurrera lengo ekandu gaistuan. Zeinbat onelango! Badira guraso, euren seme alabakaz konturik euki ez dabeenak urte askotan, zelan nai bizi izaten larga deutseenak; jakiña gaiti, edo jakin biarrian, bizi diriala pausu gaistuetan, ateraten ez ditubenak. Badira euren ejenplu gaistuakaz lagunduten deutsanak gaisto izaten. Badira bere, seme, ta alaba lotsa gaistua gordetzen deutsanak gurasuai, konseju onak artu nai ez ditubenak, emotern dautseela atsakaba asko, eranzuera gogorras, ta bizi



modu txarrakaz. Irauten dabee urteetan onelan; konfesau dira, baña gaiski, zerren leengo bizimoduba beti euken oñian.

Badira gorrotuan, tratau nai ezta, ta areriotasunian luzaro egon dirianak, edo auziren bat darabilelako, edo euren eretxijan injuriya andiren bat artu dabeelako. Oneen konfesinuak izan dira gaiski eginak, edo ondo espliketan ez dirialako konfesinoian, edo emendetan ez dirialako.

Badira ardaora emonak, ordituten dirianak, euren arima, onra, ta ondasunen kaltian, erri guztiak ezagututen dabela euren bizio gaistua, ta eurak gixi. Oneen konfesinuak izan oi dira guzurrezkuak, edo propositu egijazko baga eginak.

Badira seigarren mandamentubaren kontra modu axkotara uts egiten dabeenak urtiak iragoten ditubenak pensamentu txaar askori leku emoten, berba zantar, ta ezain asko esaten, ta pozik enzuten; eskuka deshonesta, ta loijak egiten, edo konsentietan, euren burubakaz bere atsegin gaistuak artuten. Nok esan mandamentu onen kotra askok egiten ditube loikerijak? Au da pekatu aspertuten, ta geldituten ez dana bein artu ezkerro, dino san Pedro apostolubak *inacesabilis delicti*: begijakaz, belarrijakaz, miñaz, eskubakaz, memoriaja, entendimentu, ta borondatiaz gorputzaz zkinduten dabeela arimia. Nok esan barriz zenbaterano zabalduten dan? Ezkondubak bere galduten dabee euren leialtade lagunari zor deutseena; senidiak aaztuten dabee odolari zor deutseen lotsia; personarik begiratu-benak bere arrapetan ditubala batzubenak diabrubak, ganadu, edo aberiakaz bere, bat egiten diriala; gaztetxu inozentiai irakasten jakeela pekatu egiten. O bizijo lotsagarrija, baña ainbeste erro, ta sustrai botaten ditubana! Zenbat egur ezarten ez jako lujurijako su, berez biziari, iraun daijan? Olganza, edo fiesta ixioten dabeenak, konbersazinoe amoretik sortubak, janedan larregijak, ta zer ez? Alan irauten dabee urte osuetan. Konfesetan dira, baña edo guzurrez, edo obetasun baga. Egunen batzubenak bildur apurren bategaiti, edo gogait eginda, atseren badabe jauxi baga, sartuten dira barriro gogo barirjaz; bidazti nekatubak arnasa artu, ta jarraituten deusnan legez artu eban bidiari. Dira abere baltz zikintzati jagi, ta garbitu baño leenago, osteraz zikintzan etziten dirianen modukuak. Nok sinistu lei ume ezkonzakoz beteta dagozanak bere, ez largatia gaztetan artu eben bizijo gaistua? Nok sinsitu ezpagenkus aguratu, buru murrutu, ta oin batzaz sepultura dagozanak, besterik ezin dabeenian esango ditubela berba berdiak, ta emon gaztiai konseju gaisto nasaigarrijak? Zelanguak dira onelanguen konfesinuak? Zenbat sakrilejio ikaragarri! Zenbat bide baga, edo injuriya Jesu kristori altarako sakramentura urreratuten dirianian arima, ta sentidu zikiñakaz! Oneek biurttutia osoro Jaungoikuagana, ta gorrotetia

pekatu ain maite, ta eraatsija, zein gauza gatxa! Eta zenbat gatxago ez biurttutia leengo ebillera, konbersazinoe, lagun, ta okasinoetara? zenbat labanarri arkituten ez dabee pausu guztietan? Zelango sustrai senduak ipiñi ez dituz euren biotzetan bizijo gaisto onek? Zelango indarrak, zelango orazinoe, ta dilijenziak, egin biar ez dira eziteko aragi dongara ekanduba? Zelango kontuba, begi ain nasai ibilli dirianakaz? zenbat tentazinoek esetsiko ez deutsee? Zelango gerrak irago ez infernuko arerijuen aldeti? Gauzarik gitxijena, ta nekerik ariñena da, aozko konfesino jeneral oso oso bat egitia anditzat badauke bere. Zenbat gatxagua da onelango biotzak ondo prestetia damu andi bat alkanzetako Jaungoikua gandi, ta artutia iraugarri egoki, ta biar languak? O kristinau gaiso lujurijako katee gogorrekaz lotuta luzaro egon zarianak! Zer esango deutsubet? Ezin salbauko zaria-la? Ez. Gauza gatxa dala zubez Jaungoikuagana egiaz biurttutia, ta irautia bizitza garbian? Bai bai. Zer egin bada? Egin dilijenzia guztiak, konsiderau astiro, zer dan, ta zelangua itxaraten deusnan kastigu betikua infernuko karzelan; zelan dan ain arina, ta iraun laburrekua pekatubaren kontentuba, ta betikyua bere tormentuba, egijazko penit4enzijaz konfesinoeko iturrijan garbituten ezpada. Zelan ezer baklioko ez deusnan egun batzubenak pekatu egin baga egotiak, irauten ez badozu bizitza garbijan. Pensau astiro, zelango zeru ederra galduten dozun atsegin ezaiñ, zantar, ta iraute laburrekua gaiti! Zein baltza, ta ikaragarrija larga dozun arima, Jaungoikuaren irudi, edo imajinara egiña! Goguan artu, zein ona, ta maitegarrija dan zuk ofendidu dozun Jaungoikua! Ta zelan pazienzija andijaz egon dan zuri begira gau, ta egun askotan, zu kastigau baga, beste asko legez! Zelan orain bere zu billatuten zaituban, zuk bera billatu biarrian! Zelan emongo deusnazun atsegin andija biurttuten bazara beragana, largarik pekatuko lagun, ta okasinuak! Zelan poz geijago arkituko dozun konfesinoe eder, ta negarrezko bategaz animako karga astuna botata, iraunda baño leenagoko bide zantar gaistueta! Oneek bada biar dabee egin konfesinoe jenerala ondo pretauta, salbau gura badabe.

Izan oi dira konfesinoe gaiski eginak propositu egijazkuaren faltaz, puskaka, ta apurka legez denpora luzeetan gauzaak ostuten dirianian, konfesauba gaiti onduten ez dirianak, leenguan diraubenak, biurttu baga kendubak, berba emonarren konfesorari. O zenbat onelako errijetan! Orijo, ardao, ta jan edan bestelanguak salduten ditubezala legeko neurrija baño laburragan, edo naastuta, obeto irabazteko; apurka apurka igoten dabee gauza astunera. Euri tantak txikinak dira, baña askogaz egiten dira pozu andijak, azi ibaijak, ta ujolak jagi. Alan dendera saldu erosijetan, edo irabazte geiegijak, edo neurri laburragaz gauzaak emoten ditubenak.



Onelanguak beti dagoz pekatu mortalak, ta asko egiten; zerren beti dagozan prest txikijetati andira igoteko irabazte txaarretan. Egin biar dabee nai, ta nai ez denpora guzti atako konfesinoe jenerala, edo gaiski espliketan ziriialako konfesinoe banakuetan, edo obatur ez ziriialako; baña ez dau balijo konfesinuak, lagunduten ez badeutsa kendubaren biurreta, edo errestituzinuak, ezelan bere aldala, ta aldan bestian. Nok esan alde onetatik egiten dirian konfesinoe, egiazko propositu bagiak? Zenbat dagoz urte osuetan zor egijazkuak pagau бага nagitasunez, luzatuten ditubela errazoe on бага, ta jaubiaren borondatiaren kontra, arkituten dabeela gastu alperretako, ta jarten diriala, ez gitxitan, iños ez pagetakoa pelligruban, edo eriotziak uste bagian artu lejalako, edo gerora zegaz pagau eukiko ez dabeelako? Zenbat bizi dira kontubetan uts egin dabela-ko tratuko lagunak, igarririk uts egin, lagunaren kaltian dagozaala txito pozik, agertu бага? Zenbat, erriko dirubak kobernetan ditubenen artian, kontu okerrak emon, aloger biar ez dirianak artu, ta bizi dirianak urte osuetan bake galantian konzienzijako kezka jaramon бага? Zenbat maiordomu, edo elisetako kofradietakuak, edo iñoren ondasunetakuak, ezkutuban jan, ta kontubetan gero milla tranpa sartuten ditubenak? Zenbat testamentarijo nagi, zenbat herederu diru zaliaguak, anima zaliaguak baño, bizi dira urte osuetan meza agindubak atera бага, luzatuten ditubela purgatorijoko anima gaisuen kaltian, ta egin biar zirian beste zor pageetiak, egin бага? O konfesinoe ederrak! Jaungoikua engañauko ezin bada-be bere euren zekentasun, edo inoren gauzeen gozature bide gaistokua. Onelanguak konfesau dira dongaro, edo agertuten ez ditubelako zuzen euren tranpak, geijenez jazoten dan legez, edo obatur ez dirialako, edo biurturen ez deuselako bakotxari beria zekentasunez. Baña errez da onelakuak konfesinoe jeneral ona egitia? Ez, zerren aragitu, edo etxekotuta daukeezan iñoren gauzaak; ta min andija artu biar dabee ebagi, atera, ta biurtureko bakotxari beria. Emongo ditube milla eskusa, ta atxakija; *ezin dot orañ, ikusiko dot zer egin aldaikedan, mantenu biar dot, ta janzi neure buruba, ta etxeokak; etorriko da denpora obaago bat, ta ez nas illo biurtu бага*. Alan ezin egin begitandubabaz, engañetan ditube askok konfesoriak, ta ikusten dira ostuteko modu asko, ta konfesinua konfesinuaren ondoren, ta biurture, edo restituzinoe gitxi. Ez dago konfesinoe jeneral ondo eginik, ezpadago restituzinoerik, ezelan aldedilla, edo aldan bestian. Alan bada, ez alperrik nekatu esaminia egiten, ta konfesetan; bada zer egin? Aurraz egin dilijen-zija osua biurtureko bakotxari beria, ta ez esan guzurrez, *ez dankat zezga*; Agertu egija konfesore jakintsu bati; ta Kristok badino, begija atera, ta oña ebagi biar dala eskandaluba emoten badabe, nik bere esango deusut,

obe dala gitxi jan, pobretsu janzi, ta nekez irago, iñoren gauziaz jan ta janzi, ta gero infernura jausi baño.

Alan bada esana esan, egon dirianak luzaro bizijo gaistoren baten sartuta, edo obligazinoe astunen batzuk kunplidu бага euren erruz, egin biar dabee denpora guzti atako konfesinuen barriztute garbi bat, zeña dan konfesinoe jenerala, ta au egin бага jarraituten badabee konfesetan, konfesinoe gaistuak egingo dira.

I. Kontu gogorra, esango dozu. Nik esaten nituban pekatu guztiak, ez neban ezer ezkutetan; uste bere baneban, neroiala damu, ta proposituba, esaminetan neban konzienzija kontu andijaz; baña gero pasinoe txarrak katigetan ninduban. Zetako bada ausiko dot buruba, ta emon zer egin konfesoriarri esaten leen konfesautako pekatu mortal guztiak?

E. O diatribaren asmo anima asko galdu ditubana atzeratubaz konfesinoe jenerala egiterik! Zer atera dozu pekatu guztiak agertubaz leengo konfesinuetan, ta konfesoriarri askotan luzatu biar eutsun absolutinua dongaro emonaz, baldin ezpazeroian biar legezko egijazko damu, ta proposituba? Zure eretxi, edo uste izate txarrak ekarriko deus parkazinua? Ez ez. Abade batek batiatuten badau sein bat ardao zurijaz uste izanik uraz batiatuten dabela, ondo batiatuko da seña? Eta parkatuko jako pekatu amaren sabeleti dakarrena? Ezetz esango deustazu. Eta zer gaiti? Zerren biar dan ur egijazkua, ta ez begitanduba, batiua ona izango bada. Bada nik bere esaten deusut, ain biarrak diriala, konfesinua ona izateko, damu, ta propositu egijazkua, zelan ur egijazkua batiua ona izateko. Alan zure uste izatiak ez dau egingo konfesinoe ona, ta jakin bere biar zenduban obetasun, ta enmienda bagako konfesinuak ziriiala egiazko damu, ta propositu бага egiñak. Zer eranzuten dozu? Ona zer esaten deusut Espiritu Santubak: *bere pekatuba gaiti baru egiten daben gizonari, biurturen bada leengo pekatubetara, zer balijoko deusa bere humildetiak; edo nok enzungo dan bere errege, edo orazinnua?* Nok ikara andi bat artuko ez dau Jaungoikuaren berba au enzunda? Zer esan konfesinoeko humilleta, orazinoe, edo parka eskatutiak gaiti, laster, ta sarri biurturen bada leengo pekatubetara? Gaur negar itxuriaz, bularra kolpetu, ta esaten *damu dot, Jauna*, ta andi laster pekatu biurturen; ta onelan pekatu, ta konfesinoe, konfesinoe, ta pekatu. Nok esan benetan damututen dala, ta artuten zitubala onduteko bide onak? Nok irago naiko dau alango konfesinuakaz Kristoren aurrera? Beraz egin biar dabee konfesinoe jenerala ondo ta ondo pretauta.

Baña ezta ezetan igarten obeto ta argirua konfesinoe jeneralaren premia, zelan leenagoko konfesinuetan largatiaz pekatu mortalen bat ezagueraz, ta lotsaz agertu бага; ta askok uste daben baño utsegin geija-



go dago gauza onetan. Ona bada guztirako ona izango dan zuzenbidia. Larga dabenak ezagueraz, ta bildurrez konfesau baga pekatu mortal eza-gun, edo duda osokoren bat, edo pekatu mortaltzat eukana konfesetako orduban, edo pekatu mortalaren zerkelidade, edo zirkunstantzia pekatu barrija egiten dabena, ta bardin apainduten dabenak, edo gitxitu, mortal izatetik benialera joaregiten deutsalara, egiten dau konfesinoe gaistua, ta zenbat konfesinoe, edo komunioe egin ditudan agertu bada pekatu, edo pekatubak ezagueraz, egiten ditu beste ainbeste ssakrilejijo, ta egin biar dau denpora gutzi atako konfesinoe jenerala: ta konfesinoe jeneral onetan agertu biar dira, ez bakarrik lotsaz gorde zirian pekatubak, baita bere ale-giñez, bitarte atan egin, ta konfesatu zirianak bere; zerrren konfesinoe gaiski eginian konfesaubak, dira ez konfesaubak legez.

Au egija izanik, aztertu bakotzak bere konzienzija, ezagututeko zelanguak izan dirian konfesinuak, iños ezer itxi eta daben lotsaz konfesakizuna, ta astuna eritxonian. Arkituko dira uste dan baño geijago, edo guztiz ixildu, edo edertu, edo gitxitu ditubenak, ta onelan igaro dirianak konfesetan urte osuetan. Begira zer dinuan bakotxaren konzienzijk.

Ori orrelan izanik, dino batek, nik nai, ta ez egin biar dot konfesinoe jenerala, zerren txikitxuba nizanian egin, edo konsentidu nituban zikinke-rija, ta nagus dongen kontubak neure lagun aide bategaz, eskolako lagunakaz, edo auzuetako neskatilla mutiltxubak alkarregaz genbiltzanian, ta ez ditut iños konfesau; zerren emoten eusten lotsa andija txikitian alango gauza zantarrak egitiak, ta egiten irakastiak, ta sarritan gogora etorri, ta kezkatu banabe bere, pensetan neban batzubetan, ez ziriala pekatu astunak izango, ez nekijala nik orduban zer egiten neban, ez nebala ezagututen zer zan pekatu mortala; baña egija esateko, guztija izanda lotsiaren lotsaz ez konfesetia gaiti; ez nintzan iños baketuten: enzuten nitubanian pulpituetai, zelan bata, ta bestia kondenau zirian pekatuba bildurrez ez agertutia gaiti, ikaratuten nintzan, etorten jatazan gogora txikitako pekatu loi, edo ezañak; batzubetan pensetan neban konfesetia; beste batzubetan atzeratuten nintzan, ta alan ez da baida onelanguetan irago ditut txikitati onako urte guztiak.

Ori orrelan da? Bada egin biar dozu txikitati onako konfesinoe jenerala, ta au egin artian ez dozu beste konfesinoerik egin biar. Duda pisu andikuak ez agertutia konfesoriarik ezagueraz, ta lotsaz, pekatu da. Txikitako loikerijak egin oi dira malizija moduren bategaz, billatuten dira leku ezkutuko, ta bakarrak, ta argiro ez pensaubak gaiti urte aetan pekatu mortalak zirianik, beintzat geijenez egoten da ezaguera moduren bat errazoiari gaiski deritxona obra txar a. Onezaz ostian konfesau ez dituzu,

gaiski zerintxola ez konfesetia, egon zara kezka andijetan, konzienzija baketuten eztzan inos osoz, ta noisian bein kezka emoten eutsun. Onelan egin dirian konfesinuak dira fede txarrekuak, ta alan obligauta zagoz konfesinoe jeneral bat egitera.

Niri jazo jat, dino beste batek, egitia orain amar, edo ogei urte ganadu bategaz pekatu ezain bat, edo geijago, ta alangua izan da neure lotsia, eze ez nas azartu, edo atrebidu konfesetara. Bai? Bada egin denpora gutzi orretako konfesinoe guztien barrizteta bat, edo konfesinoe jenerala, edo kondenau.

Ni bere atrapetan nau gaurko doktriniak, dino beste batek, zerren larga ditut konfesau baga fedieren kontrako pensamentu gaistuak, uste nebala konfesoriarik eukiko nindubala herejetzat, ez eguala Erromara baga parkazinoerik, ta eruan dot bizitza triste, ta arantzaz, beteriko bat. O kristinau diabrubak engañau! Biar bada lekuri emon ez zeuntsan pensamentu orrelangori, ta Jaungoikuaren kontrako pensamenturik ezañenak bere, pekatu ez dira, borondatiak lagunduten ez deutseenian. Baña zelan egon zarian lotsaz gordetan konfesetako obligazinua zeunkalakoa ustiaz, egin dituzu konfesinoe gaistuak, ta egin biar dozu guztien konfesinoe jenerala.

Nik egin neban beste tranpa modubat, dino nok, edo nok. Euki nituban lotsaz agertu baga denpora zati baten pekatu batzuk, ta zelan lotsa nintzan esatia konfesoriarik, lotsaz larga nitubala, esan neutsan, aaztu jatazala, ta lotsaz konfesau bagaak, esan nituban aaztubak legez. Bada egin dituzu konfesinoe gaistuak, zerren ezkutau dituzun pekatu andiak; onek dira konfesinoe, ta komunioe sakrileguak, ta daukazu obligazino estu estuba, egiteko, lotsaz konfesau baga asi zinianeti onañoko konfesinoe jenerala. Alan da. Geijago kostetan jakete batzubei esatia argiro, pekatubak lotsaz konfesau baga larga ditubela, pekatubak eurak esatia baño; baña esan biar dira, zelan egin dirian konfesinoe, ta komunioe gaistuak, zelan orretarako lotsaz konfesau ezaz bidia emon dabean pekatubak.

Nik geijago egin dot, esango deuste beste kristinau batzuk; txikitati asi nintzan pensamentu zikinai leku osua emoten, berba zantarrak esan, ta enzuten, egin ditut eskuka loi asko, edo neure aragijaz bakarrian, edo lagun gaistuakaz; onelan irago ditut urte osuak dibersinoe gaistuetan, buruko uliak beste pekatu egiten modu guztietara; konfesetan nintzan sarri, baña esaten ez nituban erdijak, ta gitxiago bere; esaten nituban ari-nenak, ta astunenak gorde; neure begi, oiñ, esku, edo sentidubai emoten neutsen atsegin gaisto asko; ez neban egiten gero, ez esamina onik, ez artu damu egijazkorik, ez konfesau laurenik, ta onelangua izanda neure bizitza



guztia, gaxari borondatia zabaldua, mandamenturik geijenak austen nitubala zetan, edo atan. Nik dazaut orain argiruago, egin biar dodala konfesino jenerala. Baña zelan garbitu neure konzienzija? Zelan neure aoti atera ainbeste pekatu ezain?

Kristinau zorua, gura dozu emendi aurrera ondu, ta bizitza barri artu? Gura dituzu itxi pekatuko okasino donga ta ezagun guztiak? Gura dozu artu damu andi bat zeure bizitza txar, ta egin dituzun ainbeste sakri-lejijo ezañ gaiti? Ondu gura ez badozu; itxi gura ezpadeutseezu lagun, adiskide, leku, etxe, ta olgantza len galdu zaitubezanai, alperra izango da konfesiño jenerala. Baña penitenzija egin gura badozu benetan lengo dongaro egiñak gaiti, ta artu aurrerunzian bizitza garbi, zuzen, ta ona, ez dago gauza gaxik konfesiño jenerala egitian. Billatu egizu konfessore jakintsu, ta arima zale bat; esan egijozu beriala, zelangua izan zarian, zelan konfesino onik egin ez dozun urte askotan, ta alan bada, bizitza guztian, ta errregutu egijozu itandu dagizuzala banaan mandamentubetati. Bai, kristinauba, bai; zaarra bazara bere, borondate ona badozu ez ezer ixildu, ta edertuteko, dana dan legez esateko, aterako deusuz konfessoriak bere itauniakaz pekatuak ezañenak, ta banaan atera ezin dirianak, aterako dira ekanduz, edo usarijoz.

Eta zelango bakia geratuko da zure ariman konzienzija garbitu ezkerro! Zelan pozaren pozak negar gozuak aterako deusuzan! Zelan geruago ta geijago ezagutuko dozun Jangoikuaren ontasuna, ainbeste pazienzija-kaz itxaron deusulako kastigau baga! Ze atsegiña erijotzako orduban kontu guztiak ondo egiñak eukitiaz konfesino jeneral zuzen ta damu andiko bategaz! Barriz, zer egingo dau arima, dongaro konfesauriko pekatubakaz bere buruba dakusanak une, edo tranze estu atan? Zelango larritasun ta ernegazinuak ingirauko ez dabee? Zelan garbitu konzienzija ain matasadu, ta naastuba? Badazau konfesino jeneral, zuzen, ta garbi baten premiña, ta gomutauko jako, zelan izan eban asti, ta era ona osasun, ta entendimendu argiz ondo guztiak esateko, ta bizitza garbi bat eruateko. Topetan dau konfessoriak estu, ta larri, ta urte askotako konfesiño dongaro eginakaz. Konfessoria ezipada arima zalia, pazienzija andikua, largako dau konfesiño iski, edo arin bategaz len baño bere estubago. Konfessore on bat bajuako bere, zelan arima pekatuz jozi bat zuzendu, esamina onik egin ezinda daguana, bildur ta ikariak erdi illik daukeena, gaxak buru guztia astundu deusana, ta berbak bere, ebagi ezin dituzana gitxika, ta nekez baño? O kristinau, diabrubak orain ainbeste atzerapen emoten deusuna konfesino jeneral on bat astiro egiteko! Erraztuko deusurdu estu atan? Zek itsututen zaituz? Zer ateraten dozu pekatuak zabiltzala? Zein-

bat negar malko mingotx, ta larri bota biarko dituzu egunen baten oraingo atsegin ustel ta zantarrak gaiti? Zeinbat iraungo deusube bide gaistoko irabazijak, egin daruazuzan tranpak, ta lagunari egin deusazuzan kaltiak ondasunetan? Bai, dino Espiritu Santubak, *errebesau*, edo aterako ditubez *jan* edo batu *zītubezan aberastusunak*. Zer aterako dozu egiten dituzun konfesino ta komunino dongeetarik, edo egija estaldu dozulako, edo damu baga urreratuten zarialako konfesiño sakramentura? Zelango kastigu gogorak itxaroten deusube infernuban Jesu Kristo berari emon zeuntsalako sarri pekatu toki ezaña?

Ai jauna! dinue batzubez, gura geunkez garbitu geure konzienzija; artuen dogu gogua egiteko konfesiño jenerala; badakigu arkituko geunkiala atsegin ta bake geijago geure arimetako kargatza astuna kenduta bageunka. Baña beriala larrituten gara, goguan artuta beste baga, esan biar dituguzala ainbeste pekatu ezañ, ainbeste konfesiño ta komuniño dongaro egin dituguzanak. Ez dakigu ez nundi asi, ez zelan jarraitu.

Gura dozube artu, kristinau errukarri estadu orretan zagozanak, ondo urtengo deusuben neure conseju bat, ta ez orren gatxa? Zuaze bada, zuaze ama Birjiniaren imajiña baten aurrera, etzun zaitze an bertan; eskatu egijozube gogoz bere laguntasuna, goitu, edo benziatiko infernuko gaiskiñak emoten deusuben bildurra. Egizube an negar zeuben pekatubak gaiti, ta neure kontura lagunduko deusubeela konfesino jeneral eder bat egiteko, ta arkituko dozube alan, bestelan ezin izan zeinken, arimako bakia. Alan egin dagizubela. Bai arren bai.



IRAKASTE XVII

Zelan konfesino jenerala egin onduan irauñ biar dan bizitzan onian, ta zelan irauñ dan.

Ez da gauza, sarrijago dakuskunik, zelan dirian konfesino jeneralak, alan misioneko egunetan, zelan beste denpora batzubetan. Badirudi, errajak artu daruela beste itxura bat, dongati onera aldatuta. Baña gitxik irauñ darue gogo santubetan; lau edo bost ill irago baño leenago, liortuten dira negarrak, ta jentia biurtuten da antxinako bizitza donga ta nasaira. Atseren apur bat artu darue pasinuak; baña gero biurtuten dira ibiltera. Alkar ikusi baga egon zirian adiskide dongarakuak konfesorien aginduz, ta sermoien bidez, geldika egin daruez bisitatxubak. Ikusijak dakar barria, berba amorezkua, ta egun gitxiren barruban, askatuten da pasinua, galdu bildur ta lotsa guztija, ta dira gerora eguneti egunera gaistuaguak.

Beste batzuk egin ebeenian konfesino jenerala, artu ebeen goguz, emon bere bai berbia, biurtuteko ostubak, kalte eginak, edo irabazi bide dongakuak. Baña gero miñ emon daruake etxeti ezer ateratia, ta dabilz aurrerakuan konfesetan kunplidu baga obligazino ain biarra.

Beste batzuben emon ebeen berbia konfesauko ziriala illian bein, largako eutseela olgantz, ta piesta len galdu zitubezanai, eruango ebeela bizitza txito on bat, baña denpora gitxiren barruban, isten deutsee konfetiari, penitenzijak kunpletari, ez tanboril soñubari. Berba gitxitan, asi zirian ondo, jarraituten deutsee dongaro, ta amaitu darue bizitzia eriotza gaisto bategaz; zeren pekatuta biurtubaz, egiten jako Kristori injurija, edo bide-baga baltz bat, sendotuten dira diabrubaren indarrak, ta argaldu ari-miarenak. Iraun gura ezpazan onian, zetarako asi? Ah jente zoro, ta gatz bagia, zirautsen san Pablok Galatakuai, nok lausotu ditu zuben begijak ez ikusteko egija, ta jarraituteko guzurrari? Asi zineen ondo, egin bere bai bide zati bat egijaren ezagueran. Zegaiti onik onenian larga deutseezu bide zuzenai? Nor izan da onelan zoraerazo deutsubena? *Quic vos fascinavit?*

Iru gauzak dakar serbitzari, edo otsein bat itxiteko bere ugazaba. I. Mudanza, edo aldatzeren bat dakusian ugazabagan. II. Serbizijua lengua ez danián. III. Laburtuten bajako aloger, edo biarsarija. Ugazaba, len bigun errukitsuba zana, biurtuten bada gogor, astun, ta gogaitkarrija izatera, aldatuten da beste bat egin balitz legez. Serbitzarija beeguan len konfianza osuan, giltzen kontubaz, ta beinguan erasten badau ugazabak opizijo beeragokora, ez deuta ondojakiten serbitzariari, ta duako etxeti.

Guenian, amar eskuduko soldatati erasten badau bostekora, dongaro deritxo, ta iges egiten deuta. Baña ze errazoe euki lei Jangoikuaren serbizijuan sartu danak iges egiteko, ta largateko jaun egunian baño egunian mesede geijago egin deutzazana? O eskerbaatasun ezaña! Konfesino jenerala ondo ta damu osuaz egin zanian, zelango poza artu eban bijotzak, zelango arintasun ta bakia zor andijak pagatu, ta zor baga geratuten danak legez. Zeinbat errazoe daukagu bada irauteko bizitza onian, izan daigun eriotza on bat birtuterik birtute gabiltzala? Esanda dago, *irauten dabenak* onian *azkeneraño, salbauko da*; ez baña asi, ta largaten deutzanak on izatiari. Obe izango zan zelanbait, ez ezagutua egija, ez sartua Jangoikuaren serbizijuan, largako bajakon berari, edo aldegiteko bere legeti. Etxe eder ta andi bat asi dabenari barre egingo deutsee neke andijak artu ta isten badau erdi eginik guztia amaitu baga.

Nundi dator baña ez irautia bide on artu zanian? Ona zer dinuan Kristok. Etxiaren zimenduba egin da ondarraren ganian; darter eguraldi donga bat, jagiten dira aise gogorak, euri andijak, ta onen ondoren ujoia, ta ezarten dabee lurrera etxe guztija zimendu argala eukalako. Alan bada, birtutiari ezarten ezpajakoz zimendu onak, bere sendagarrijak, jausiko da laster tentazinuen aise gogor ta ujolagaz. Nabasajari eskuba ezarten deutzanak, soluan biarra egiteko, ez dau begiratu biar atzera, ta bai ekin bere lanari. Au egin biar da birtuteko biarran, bestelan ez da niretzat gauza, dino Jesu Kristok. Dakuskun bada zeintzuk dirian zimendu onak jausi ez dedin arimako biar guztija. Guztiak datoz gauza bi oneetara, aldegitara, onian irauteko galerazoten deuskuben guztietati, ta egitera, onian irauteko lagunduko deuskubenak. *Declina a malo, et fac bonum.*

Lenen lenen alde egin biar doguna da, pekatuta garuazan edozein okasino ezagun. Dongaro len bizi izan dirianak dagoz gaisotasun andi bateti urten dabeenak legez, argal, aginte gitxiko, ta jausi errazak. Edozein jatekok, kontuz ez badabilz, gatxa biurtuko deutsee. Beraz konberti-barrajak ardura geijagaz alde egin biar dabee pekatubaren labanarri ta okasi-nuetati, birtutian aurreratubaguak dagozanak baño. Zelan lotu biar ez ditu begi, oitu, edo ekandu zituzanak ikuste amoregarrietara? Zelango kontuba euki biar ez dau bere sentidu guztiakaz? Nun nai topauko ditu, gura ezaz bere, lengo lagun oker ta ezagun gaistuak. Bada artuten ez badeutsee onelanguai gorroto santu bat; iges egiten ez badau eurak ganik, txakur amurratu bateganik legez, arpegi astun bat erakutsirik, laster da galduba. Eta zer, juaten bada lagun donga aen artera bere guraz? Zer, buruba badarua korru, edo plazara, eskiniten legez eruan dagijen danza naastubetara? Zelan irauñ propositu onetan? Zelan bizkortuko ez jako oneretxi, edo



kariño aragikorra? Zelan barre zoro, berbeeta alegre, ta esku estututiakaz likatuko ez da bere bijotz samurerraza? Zelan diabrubaren soñuban ixilduko ez ditu Jangoikuak, bakarzalai emoten deutseezan dei ta deseo santubak? Galduba da arima gaixua, iges dau Kristoren eskolati, irago da diabrubaren bando, ta eskolara. Sartu zan beretzat peligru ezagun ta dongaan, ta beste baga galduko da. Arimarik onenak, ta birtutian senduenak bere, ez leukee luzaro iraungo galdu baga. Zer egingo dau arima argal, jaukor, ta pekatubetati urten barrijak? Zelan irauñ leikee mundubaren erdira urtetan dabeenak, ta gaistuakaz pozik dabilzanak? Beraz larga biar dira dibersino edo olgantzta nasaikor, ta peligrusuak, ta iges egin lagun txarretati sugiaren arpegiti legez.

Bardin, edanian len jausten zirianak, aldegin biar dabee ardanetxe, edo tabernetati, nun sartu ezker, len irago jakeeneti, ezagutu biar dabee, iragoko diriala edanian lagun dongeen tentazinoz. Adiskidetasun kaltegarriren bat euki dabenak auzuan, ta urrin bada bere, ez dau eurretan oñik imini biar, ta kendu bair dira alegiñez gogoti, alango adiskide txarrak. Itxiten bada amore txingarren bat ill, edo amatau baga, jagiko da suba, ta geituten bajakoz egur, edo erregarrijak, urtengo dabee gar andijak.

Bigarren arerijo iges egin biar dana, da munduba; esan gura dot, ez deutsegula begiratu biar bere ondo eretxi, ta esamesanei. Neure ustian, kalte geijago egin darua Jaungoikuagana biurtu dirian arimetan mundu donga onek, infernuko arerijo gaisto guztiak baño. Munduzaliak badakuse, euren lagun len izan zana, Jaungoikuaren bidera birauta, asiko dira milla barre ta siñu egiten. *Ona emen, esan darue, egin gitxiko santu edo santa altaretan imini biar doguna. Guk kondenau biarke dogu; onek barriř izango dau zeruban koroe andi bat. Zu legezko zoruak galduko dira. Laster buru ta osasuna galduko jatxuz. Zegaiti urten ez piestetara? Ze gauza txar egiten dogu? Guk bere salbau uste dogu.* Alan milla barriketakaz bildurturik, atzeratuten dira argal asko Jaunaren bideti; lotsatuten dira Jesu Kristoren eskolakuak izatiaz, ta sartuten dira lurrekuen olgantzta nasajetan. Baña ixilduko dira onenbestegaz barritxubak? Zein gitxi! Largaten badeutsee bide onari, apaindura urtetan badabee ostera mundura, esango dabee. *Orra zetara etorri dan onen santidadia. Agiri da, zelan engañau dituzan konfesoriak.* Egizu gura ala; ez dozu orregaitiño ixilduko munduba. Beraz bere arimiaren kaltekua, ta zoro garbi bat da, isten deusana Jaungoikuaren bidia mundukuen esamesen bildurrez.

Irugarren eragozpena irauteko artu dan Jaungoikuaren bidian, dira irago biar ditugun tentazino, edo esetsi gogorak. Asko da arima bat sartutia Jaungoikua serbietan, beriala, urteteko eragoztera infernuko gais-

kiñak. Esango deutsee, nor dan iragarri baga, ezin jarraituko deutseela artu dituban bide ta bizitza onari. Alperrik dabilzala egun batzubetan; gero bere jausiko diriala. Zer barriř sartuten bada orazinoeko lanian! Zer, gorputza ezi gura badau penitenzijakaz! Ez da infernubak artu ez daruan asmorik, dino santa Teresak, eragozteko orazino ixil, ta bijotzekua. Asko da orazino lekuban jartia, izateko tentazino zantarrak, lua, ikarak, gorpuzteko minak, ta zer ez? O arima gaixuak! Ez bildurtu; ez jausitu; ekin ekin lan santu orri; goitu edo beniziduko dituzu arerijuaren asmo guztiak irauten badozu atzerarik egin baga. Zagoz orazinuan lior, gogor, konkortu, ta pensamentuba ezi baga? Ez da ardura, zuaz aurrera; zure iraupenak bidunguko dau zeruba; jo atia, egin oles ostera ta ostera, ta edegiko jatzu. Zelan uste dozu garbitu lengo pekatuben loitasun, ta ugar guztietarik tentazino, edo estutasun gogorak irago baga? Pelietan badozu tentazinuen kontra, onek izan arren ezañ ta zikiñenak, eurakaz garbituko zara, zelan bogada, edo lixibako auts loijak garbitu daruzan zapi loijak. Jagiko dira zure kontra senide, ta adiskidiak. Aragi len dongara ekandubak eskatuko ditu atsegin zantarrak. O Kristoren soldaduba! Ez ikaratu; emon arpegija arerijo guztiak; zeure pazienzijagaz goitu, ta desegingo dituzu persekuzino ta irauñ emon daruezanak. Aragija eziko dozu orazino ta penitenzijakaz, ta ukatubaz eskaari txarrak; ta guenian, biar legez pelietan dabeenak, izango dabee inos, ez igartu, ez zimeldu leitian koroia zeruban.

I. Gauza gogorra dinozu; beti burruka legez ibilli biarra arimako arerijuakaz.

E. Erdu ona. Zelango atsakabiak ez daruez lurreko soldadubak gerrako denporetan? Otz gogorak, edo bero erregarrijak, jaateko laburra, lo gitxija, ta bizitzia galduteko ainbeste arrisku; eta guenian bizitziaz urten beeben, zelango sarija itxaroten deutsee? Nun da gure zenzun ta fedia? Ez dau zeruko bertiko sarijak merezi, iragotia edozein atsakaba?

Eta zeintzuk dira gure egin bidiak irauteko artu dogun bide onian, ta egunoro aurrerapenak egiteko? Itsasuan aise ederragaz doian onzija, geratu oi da nosbait aisiak uts emonda kalma, edo baratasun kaltegarrijan; dago ez aurrera ez atzera leku baten. Zelan elduko da biar eban errira? Beste batzubetan jagiten jakoz kontrako aisiak, botaten dabee atzerunz, ta galdu daruaz aise ederregaz aurreratu zituzan bidiak. Itsasuan duazanak ez daukee onegaz biarrik; gura ta ez jazoten jakeez, edo aise kontrakuak, edo itxaskalmak. Baña Espiritu Santubaren aise eder, ta aurreragarrija beti dago berez prest; aise oni lagunduten badeutsagu, beti juango gara aurrera. Nagituten bagara, geuria izango da erruba.



Baña nundi izango dogu aise ederra? Orazino gogokoti. Bai; orazina da nun Espiritu Santubak argitu daruazan gure entendimentubak, ta berotu bijotzak ezagututeko pekatubaren kaltiak, gorroto artuteko bijotz guztiaz, ta maite izateko Jangoiko ain on ta alde guztietarik amagarrija. Zetan dago penitenzija ez egitia; edo egiten asi bada, ez irautia? Dago, Jeremias profeta santubaren esanez, bijotzagaz aztertuten ez dituguzalako etorkizun, ta gure fedeko gauza miragarriak. *Gomutau zaitte z eure azkenkijakaz*, artu egizuz goguan etorkizunak, zeintzuk dirian erijotzia, juizijua, infernuba, ta zeruko glorija, *ta ez dozu inos pekatu rik egingo*, dirautsu Espiritu Santubak. Barriz, zeinbat gauza miragarri ziatuko ez liritez Jesu Kristoren bizitza, pasino, ta erijotziaren ganian, egunoro artuko bagendu asi puska bat?

Jauna, astirik ez daukat orazinuan denporia iragoteko. Guzur garbija. Zeinbat kristinau egoten dira oian eguzkijak urtenarren, jira ta bira dabilzala, edo lo gogorrian dagozala gogait egin artian? Gero, darue eguna barriketa alper, pasio luze, joko, ta gura dabeen guztian, ta denporia iragoteko, eurak esan daruen legez. Ze bizitza ederra zerurako! Eta zeinbat onelango erri batubetan, alperreriari emonak, meza arin bat enzun, errosarijo bat itoka esan, ta deritxuenak gauza andijak egin ditubela! Gazetak irakurtia bai, baña ez liburu arimarako onak dirianak. Gorputzagaz kontu andija; zer jan dan, zer jango dan, okela, ta ardaia onak edo txarrak dagozan, ta arimako salbazinua ezer ez bat balitz legez; itxi gerorako, datorrena datorrela. Onelango bizitziaz, zelan irauon bizitza onian? Zelan aragija jagiko ez da ezi biarrian gozatu ta gizenduten bada? Ordu erditxu bat orazinuan iragoteko, aztertubaz, zer dan erijotzia, zelan-gua Jangoikuak artuko deuskun kontuba berba alperrik bere itxi baga, Kristok dinuanaz; zein bildurgarrija dan betiko infernuba, eztago denporarik, ta bai lo, joko, ta jan edan asko egiteko. O arima gaixua! Eta, zein gitxi maite zaitubezan kristinaurik geijenak!

Baña zelan egingo dogu orazinua, batez bere irakurten ez dakigunok? Artu egizu konfessore aitu ta birtutetsu bat; onek irakatsi ta lagunduko deustu. Ona emen beste lagungarri bat irauteko Jaungoikuaren bidian, au da konfessore on baten aukera edo elekinua.

Jauna, konfessore guztiak onak dira geu ondo baguaz. Au da askoren soñuba, ez santa Teresarena. Gaisotuten bagara osagilla edo medikubak aukeran dagozanean ez da billatuten edozein, ezpada onduen osatuko gaituzana. Auzi arduria emoten dabeenetan, billatuten da letradurik onena. Eta arimako gatzetan, ta tentazino andijen auzijetan ez da billatuko konfessorerik onena, birtutetsubena, ta Jangoikuaren urren dabiliena? Konfe-

sore alik onena billatu ezkeru, irauon gura dabenak bizitza onian, biar dau sarritxu konfesau, ta komulgau aginduten deustanian.

I. Beraz sarri konfesau, ta komulgetia izango da bitarteko adjutu ta ona irauteko bizitza onian, ta gordeetako konfesino jeneralaren frutuba.

E. Zelan bere dan. Sarri eskubak garbituten dituzanak, garbijak euki-ko ditu. Sarri aldatuten dan erropa zurija, garbijagua egongo da, bakan ta belurik belura aldatuten dana baño. Sarri konfesetan dirianak, artu daruez konfessoriarene konseju asko, sarri esaminuu edo aztertu konzienzia, sarri barriztau on izateko goguak. Eta zelan lagunduko ez deutsee gauza sarri egin oneek ondo bizi izatera? Barriz gitxitan baño konfesetan ez dirianak, ez daukee arimiagaz ardura, edo konturik, ez Kristogana elduteko goserik; ezin bestez legez, indarrez, ta oniritxiz duaz konfesinora, gogo baga. Zelan irauon bizitza onian?

I. Baña, nosik nosa ondo izango da konfesetia?

E. Ez da, edo ozta bat edo beste izango da, geixoren bat ezpada, konfesau ezin leitianik illian bein. Orazino ta bizitza espiritukori emonak, sarrijago egin oi dira, ta bakotxak artu biar dau bere konfessoriarene eretxija, ta ez urten mundukuen irauon, ta irauon emote guztijak gaiti. Eleisako lenengo urteetan, apostolubene dotrinan azi zirianak, komulgau oi zirian egunoro; agaiti zirian ain onak orduko kristinaubak. San Agustinek geruagoko denporetan, gura eban komulgau zitezala domeka guztietan. Au berau san Franzisko Saleskok, pekatu benialetarako itsaspenik ez daukeen arimak, ta bai Jesu Kristoren mai santura elduteko gosia. Sarrijago egiteko ikusi biar da zelango irabazi, edo frutubak ateraten dirian komunino sarrijetati, ta au ezagutu biar dau konfessoriak.

I. Zegaiti da gauza ain ona domeketan komulgetia?

E. Zerren dan biderik onena jai egunak ondo iragoteko, ta alan irauteko bizitzia onian. Alan da bai, alan da; baña ez da alan egiten kristinau geijenetan. Jaiegunak dira askorentzat pekatu egunak, Jangoikuaren egunak, diabrubaren egunak. Onetan dira joko larregijak, ordikerijak, danza naastu ta okerrak. Onetan egiten da infernuko perijia, egiten dituzala diabrubak irabazte andijak. O gauza negargarrija! Asteko biar egunak eskatuten dira ogija billatuteko, ta gorputzeko bizitziari irauon eragiteko. Gorde eban Jaungoikuak egun bat astian bera onreetako, gure arimetako bizitzia gordeetako; ta goijak beetu dira; egun santubak biarauta dakuskuz egun pekatuzkuak izatera. Mezatxu bat enzun debozino baga, ta egun guztija irago gero olganza luze ta txaar, joko kaltegarri, ta ezin aitatuko dirian zantarkerijetan. Eta onelan irauon bizitza onian? Eta onelan salbau?



Zerubetako erreinubak eskatuten ditu neke ta indarrak, ta bakarrik atrapauko dabee nekatuten dirianak, ta indar egiten dabeenak; alan dino Jesu Kristok. Gure arimako salbazinua ete da zer egin ardura gitxikua, nun da biar ez daben eguneko denpora zatiren bat? Ez aaztu Kristoren berba oneekaz. *Zer aterako dogu mundu guztija geuretubaz, arimia galduten bado-gu? Eta zer emon daikegu bere ordian?* Iragoten dira itsasuak bizitzia galduteko arrisku andijakaz diru apur batzuk gaiti. Gaixo dirianak edan daruez edaaririk mingotx, garratz, ta iguingarrijenak. Eta arimia aberastutia gaiti, ta gaixotu bada osatuteko, zer egiten da? O itsumena!

Baña orren neke gogorra da ordu erdi bat goisago jagitia, ordu erdi orazinuan iragoteko? Neke andija, inolan bere aldania, meza bat enzutia debozino ta gogo osuaz! Neke astuna Ama Birjiniari goisian jagita beriala, ta gabaz oera guazanian debozinoz iru Abe Marija errezetia gorde gagizan pekatuban jausteti? Neke gogaitkarri bat da egunian bein errosar-rijo santuba esatia, ta erlojuba danzugunian Abe Marija bat Ama Birjiniari errezetia, lagundu daigun ondo iragoten ordu bakotxa? Neke gogorra da gabaz, oera etzun baño leenago, egitia konzienzijako esamina apur bat, jakiteko zelan irago dogun eguna? Neke andija da atsakabaren bat norbaitek emon deuskunian, edo bekautan etorri jaukunian, jasotia biotza Jaungoikuari, ta bere amorez ixiltxurik iragotia? Neke astuna da tentazino zantarrak esesten deuskubienian dei egitia Ama Birjiniari, egitia kurutze bat bekokijan bakarrian bagagoz, ta nun nai bijotzaren parian, iges eragiteko tentadoriari, ta gorde gagizan Jaungoikuak pekatuban jausteti? Neke gogaitkarri bat da, sarri eldulia Jesusen maira, bizitza kontuzko bat daruagula? Nun topau giniai atsegin ta bake ederragorik? Ah kristinau esker dongakua! Ori zor deutzazu Jaun maitagarri, infernura bota бага zaukazanari ainbeste pekatu len eginda? Orreek dira eskerrak, zure biar balitz legez zeure ondoren urten daben arimen pastore, edo arzain ezin obiarrentzat? Zetarako dira zure lengo negarrak, zure konfesino jenerala, zure berba emonak, iges egiten badeutzazu Kristori, iragoten bazara diabrubaren bandora, zeñek ezarriko deutzuzan grillu astunaguak iges egin ez dagizun istera? Zeri ta zetara asi ondo, irauñ gura ezpadozu? Iraatsi egizuz bada bijotzaren erdijan Jesu Kristoren berba oneek. *Irauten dabenak* bizitza onian *azkeneraño*, izango dau zeruba, edo *salbanko* da.

ATZENA

Adigarri bat. Euskaldun guzti guztiak, zar gazte, agure ta umiak, daukee aita Palaziosen enzutia. Gure zori txarrez, zaartu da gaixua; jausi jakoz gorputzeko indarrak, ta bakarrik dauka zoli zolija, Jaungoikuak emon eutsan min garbi ta berba eder asko atera dituzana. Uste dot, oraindino ikusiko dabeela, ez oñez, ez zaldiz ibilli danian, gizonen batzuben besuetan daruela eleixara san Juan Ebanjelista eruaten ebeen legez, arnasiak dirautsan artian irakasteko zeruko bidia. Ez dot bildurrik, arrotuko dala nik emon aldaijodazan alabanzakaz, elduten bada bere eskubetara nire liburu au. Jaungoikuaren glorijan iminita daukeenak bijotza, bazaube, ez daukala gizonak berez gauza onik; egiñ alak eginda bere, esan biar ebeela apostolubak eurak, ta ori Kristoren aginduz, *serbitzari gauza ezak gara*. Dakart bada agirira, adierazoteko askok dakijena, zelan atera eban argitara, eta erderaz, liburu txikar, baño balijo andikua, nik onsubengo artu dodan dotrina geijaren ganian, irakasten dabela astiro, zelan irauñ biar dan, ta zelan irauñ dan bizitza on ta barri baten. Bein baño geijagotan adiskidetasunian esateko legez egon natxako: Aita Palazios! Au zer da? Izan berori euskaldun garbija; Naparrua, Araba, Giputzkoa, ta Bizkai guztiko bazter guztietan ibilli nekatuten buruba, erdal-errietan baño geijago, irakasten zeruko bidia; besteti ain ederto jakin euskeria, ta agertu erdaldun arrotzentzat alango liburuxuba, ta itxi euskaldun etxeuak utsik? Nortzuk daukee liburuben premiña geijago? Zer eranzungo eustan? Ez eukala astirik arnasia artuteko; izango zala nor edo nor biurtu gurako ebana euskerara, berak erdera ekijenentzat atera eban liburuxuba. Alan jazo da. Aita frai Pedro Antonio Añibarrok birau dau Bizkaiko euskerara, izen au emonda: *Lora sorta espiritual, ta propositu santuak bizitza barri bat egiteko: Aita Palazios misionariak misino ondoan emon zitudanak*. Deritxat, nor edo nor dendatuko dala giputz euskeran imintera. Zeinbat on ekarri daikian liburutxu oneek, ez da erraz esatia. Badazau aita Palaziosek; bazaube bere lagun Zarauzko kolejioko misionarijak, zelan euren biar asko galdu daruazan diabrubak. Damu emoten deutsee kalte onek, damu emon eruakon legez S. Pablori. Alan bere, nok ez daki zeinbat arima zuzendu daruezan Zarauzko misionari neure bijotzian daukadazanak? Zeinbat kristinau, lotsa dongaro aitu batek konfesino donga asko egiten darabilzanak, agertu daruez, euren sermoiakaz bigundurik, konfesino jeneralak eginda, bestelan jo biar ebeenak infernuba? Dakuskuz birauta



erriajak misinoe ostian. Zar askok iraun darue bizitza barrijan; gazteren batzun bere bai; ta okertuten dirianai bere, sarri geratu oi jakee arantzaren bat; pekatubak gitxitu oi dira beste batzubetan; ta guenian, beti ateraten dabee, apostoluban pausubetan dabilzan relijioso oneek, arpegija Jesu Kristoren bando, ta izango dabee sarija, guztiak iraungo balebe legez.

Bein baño geijagotan zurtu nabena da, ikustia, zeinbat atzerapen, ta atxakija emon daruen askok eruateko errijetara misinuak. Ez ete dakije zeinbat mesede dakarrezan? Ez dakusku, zelan misino baten ostian esan oi dan, zorijonian ekarri zirala; noisian bein on andijak ekarten ditubezala? Zelan bada gero artu gura ezak? Diabruba dabilelako bitartian eragozteko. Zorigaistokuak arerijo onen lagun egiten dirianak. Emon biarko deutsee Jaungoikuari kontu estuba, eragotzi gura ditubezalako misinoeko frutubak. Jangoikuak gorde dagijala, Euskalerrriak dirauben artian, Zarauzko kolejjua. Bai arren bai.

FIN DE LA OBRA